



Asier Garitano | Entrenatzailea
"Leganes taldean agortu dira bazkide abonuz guztiak"

Jaioterrian pasatu ditu opor egun batzuk bergararrak | 31

ANTZUOLAKO JAIK

Xehetasunak barruko orrietan | 17



Elkartasun bidaia egingo dute

Oñatitik Nepalera | 7



Anporretako lubakiak balioan jarri

nahi ditu Arrasateko Udalak | 8

Aurkezpen berezia egingo dute Txalaparta Festan

Bihar, zapatua, ospatuko dute eguna Arrasaten | 32



Txalaparta berria. | A. TXINTXURRETA

Debagoieneko sortzaileak AEBetan, lanak erakusten

| 33

SINADURAK


- Begirada kontuak | 6
AMETS BELTRAN DE GEBARA
- 6 | Uda Mizpirualden
MONIKA BELASTEGI
- A ze deskonekzioa | 8
ENEKO FERNANDEZ
- 12 | Zentzuzkoa?
JAIONE CARPINTERO
- Espirituala bai, eta modemoa! | 15
GORETTI MADINA
- 28 | Herriatik eta herriarentzat
IKER ELEXPURU
- Hitzetatik ekintzetara | 40
AINTZANE OIARBIDE



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Belen Larrioni elkarrizketa umeen babesaz
- Alkate izandakoen bizimodu berriak

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05



URREZKO URRETXINDORRAK

Omenaldia egingo diote 1966an sortutako Bergarako Urretxindorak taldeari, bihar | 13



Goian, Juan Mari Narvaez eta Gotzon Bikuña; behean, Xabier Olabarria eta Julio Unamuno -jatorrizko diskoan, beheko ezkerrekoa, Raul Calvo zena-. | JAGOBA DOMINGO

Mikel Lezamiz: "Euskarak lan munduan dauka egoera zailena"

Mondragon Taldeko euskara koordinatzaile ohiari eman diote Bai Euskarari Laguna Saria | 2

Mikel Lezamiz | Mondragon Taldeko euskara koordinatzaile ohia

"Urte askotan euskararen alde egindako lanaren aitortpena da sari hau"

Printzipio kooperatiboak mantendu behar direla uste du Lezamizek, atzerapausorik ez emateko

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Mondragon Taldeko Hedapen Kooperatiboko arduradun eta euskara koordinatzaile ohia da Mikel Lezamiz, eta Bai Euskarari Laguna Saria jaso du. Berak dio garrantzitsua dela enpresen barne koordinazioa hizkuntza baten normalizazio plangintza aurrera eramateko. Bestalde, uste du oraindik bada goela zeregina euskararen normalizazioan.

Lehenik eta behin, zorianak! Zer da sari hau zuzentzat?

Egia esan, ez nuen espero, baina urte askotan euskararen alde egindako lanaren aitortpena izan da. Baina aitortpen hori gehiago da lan munduari egindakoa. Izan ere, euskarak egoera zailena arlo horretan dauka. Hezkuntza eta administrazio arloekin konparatuz, erdara asko erabiltzen da lan munduan.

Zenbat denbora daramazu Mondragon Taldean lanean?

36 urte daramatzat hemen. Hala ere, lehenengo bi urteak Alecop-en egin nituen.

Eta, hasi zinenean, zein zen euskararen egoera enpresan?

Ni etorri aurretik klase asko eman ziren euskaraz eta hizkuntza honetan ikasteko eta bizitzeko nahia sumatzen zen. Baina, egia esan, gutxiago egiten zen euskaraz, sentsibilitate txikiagoa zegoelako eta ahalmena ere txikiagoa zelako. Egungo egoera hobea da, nahiz eta ez gauden kanpaiak jotzeko moduan.

Euskara eta alfabetatze klaseak ematen ziren. Baina hori lan munda bideratzean dago gakoa.

Hala da. 90eko hamarkadan, normalizazio plangintzak antolatzen. Elhuyarrek Quebecetik ekarri

zuen metodologia lantegiak normalizatzeko plangintzak antolatzeko eta gu beraiekin batera hasi ginen. Orduan, normalizazio prozesu bat eraman da aurrera eta oraindik horretan gaude.

Langile guztiek era berean hartutako konpromisoa da euskararen normalizazio hori?

Garbi dago bai zuzendaritzak, bai errektore kontseiluak eta gehiengo handi batek onartu behar duela hizkuntzaren normalizazioarako plangintza, beste edozein plangintza den moduan. Guk, dagoeneko, batzar batzuk euskaraz egiten ditugu, nahiz eta batzuetan itzulpenak behar izan.

Euskararen normalizazio hori nazioartera zabaltzea zailagoa izango da, ezta?

Bai, baina nik uste dut posible dela. Badaude enpresa batzuk beraiekin hizkuntza ofizial moduan euskara ezarri dutenak eta horri gaztelania eta ingelesa gehitzen diotenak. Zaila da, baina hizkuntza ezberdinek enpresaren barne kohesio bat ekartzen dute.

Etorkizunera begira, enpresa munduan ze urrats egin behar dira, euskarari dagokionez?

Gaur egun 61 kooperatiba daude normalizazio plangintza horretan sartuta. Beraz, ezinbestekoa izango da enpresa hauek konpromiso horrekin jarraitzea, euskaraz lan egitera heldu arte. Guk, gure alde, dauzkagun printzipio kooperatiboak mantenduko ditugu eta helburu berriak finkatuko ditugu aurrera begira; bestela, atzerapausoak emateko arriskua egoten da.



Mikel Lezamiz sariarekin. | TXOMIN MADINA

Mondragon Taldeak euskararen normalizazioan izandako esperientzia eredugarria izan daiteke beste enpresa batzuentzat?

Mondragon Taldean elkarlana eta kooperazioaren printzipioak ondo barneratuta ditugu eta barne kooperatiben artean egiten ditugun koordinazioak eredugarriak izan daitezke. Izan ere, enpresa gehienek planta bat baino gehiago izaten dituz-

te eta planta guztien arteko koordinazioa ezinbestekoa da. **Erretiroa hartu duzu dagoeneko. Euskal Herriari lotuta jarraituko duzu lan egiten?**

Bai, jarraitzeko asmoa behintzat badut. Arrasate Euskaldun Dezagun taldean jarraitzen dut eta GOIENAREN inguruan ere banabil. Badago oraindik zeregina eta horretan jarraitu beharko dugu.

"Batzar batzuk euskaraz egiten ditugu, itzulpenak behar izan arren"

"Taldearen koordinazioa oso garrantzitsua da kooperatibetan"

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

2016-2017

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Ayoub Aboubi (Bergara)

www.mondragon.edu/gmh



Zergatik aukeratu zenuen Automatizazio eta Robotika Industrialeko Goi Mailako Heziketa zikloa?

Beti iruditu zait robotika ikusgarria; agian, ima futuristen eraginez izango da, bertan ikusten diren robot humanoide edo giza itxurako robot horientatik. Bestalde, lagun batek gomendatu zidan robotikako zikloa egitea. Berak ziklo berbera egin zuen eta robotikak eta automatizazioak industrian dituzten aplikagarritasunak azaldu zizkidan.

Heziketa Ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue. Hau da, erronken bidez funtzio profesionalak simulatzen dituzue. Zer esan dezakezu horri buruz?

Metodologia hauek erabiltzea oso ondo ikusten dut. Proiektuak egiterakoan, ikasgelan ikusitakoaren garrantziaz konturatu naiz. Adibidez, diseinu faseak duen garrantzia: hasieratik gauzak ondo planteatu behar dira eta presak alde batera utzi; bestela, arazo asko sortu daitezke.

Lantaldearen balioaz ere ohartu naiz. Irakasleak esaten digun moduan, lantaldean bat gehi bat bi baino gehiago dira. Zailtasunak gainditzea ere errazagoa da eta proiektua aurrera ateratzeko ardura guztiena dela ikasi dugu. Egia esan, oso giro ona izan dugu, nahiz eta momentu batzuetan haserretu ere egin garen, baten batek bere ardurak ez dituelako bete.

Zuen kasuan, zeintzuk izan dira erronkak?

Korronte zuzeneko motor baten abiadura kontrolatu behar izan dugu.

Horretarako, abiadura neurtu eta takodinamo baten bitartez, egokitzaila, konparadorea, kontroladorea, motorra eragiteko PWM baten oinarritutako aplikadorea eta bi elikadura iturri muntatu behar izan ditugu. Proiektua konplexu bilakatu da, eta lan asko egin dugu, baina, azkenean, lortu dugu martxan ipintzea!

Nola baloratuko zenuke esperientzia hau?

Esperientzia oso positiboa izan da, batez ere, industria mailan gure arloan zer egingo dugun ezagutzeko. Gainera, aukera paregabea izan dugu taldean lan egiteko, lanak planikatu eta gure artean banatzeko, txosten teknikoak idazteko eta besteen aurrean egindako lana aurkezteko. Laburbilduz, aukera izan dugu gure trebetasunak ikusteko eta frogatzeko.

Eskaintza akademikoa

•Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
•Automatizazioa eta Robotika Industrialak

•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
•Mekatronika Industrialak

Enplegu datua krisi garaiko mailetan egonkortu da

Debagoiengan 3.200 langabe pasatxo daude, iaz baino 300 gutxiago, baina krisi aurreko (2008. urtea) kopuruaren bikoitza izaten jarraitzen du

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Urteko mailarik baxuenean kokatu da langabezia tasa Debagoiengan, %10,41eko tasarekin (3.122 langabe). Maiatzean 3.209 langabe zeuden (%10,70eko langabezia tasa), eta ekainean 3.122ra jaitsi da (%10,41eko tasa). Iaz, 3.425 langabe zeuden ekainean (%11ko tasa), aurten baino ia 303 gehiago, hain zuzen ere.

Honako hauek dira herriz herriko datuak (parentesi artean, maiatzeko datuekiko aldea): Antzuolan, 77 langabe (+5), %7,09 (+%0,46); Aramaion, 27 (=), %3,56 (=); Aretxabaletan, 278 (-2), %8,10 (-%0,06); Arrasaten, 1.417 (-60), %13,99 (-%0,17); Bergaran, 703 (+2), %10,08 (+%0,03); Elgetan, 44 (-6), %7,42 (-%1,01); Eskoriatzan, 194 (-10), %9,58 (-%0,49); Leintz Gatzagan, 6 (-3), %4,38 (-%2,19); Oñatin, 403 (-13), %7,58 (-%0,24); Debagoiengan, 3.122 (-87), %10,41 (-%0,29).

Ez da lehenengo hobekuntza

Mankomunitateko Garapen Agentziako arduradun Koldo Azkoi-

tiaren esanetan, azken bi urteotan "jaitsiera nabarmena" izan du langabezia zifrak Debagoiengan: 2014ko urrian, 3.835 langabe ziren, orain baino 713 gehiago.

Baina datuak "perspektibaz" ikustera deitzen du: "Debagoiengan, benetako hondamendia 2008 eta 2009an gertatu zen; 1.600 langabe izatetik bikoitza baino gehiago izatera pasa ginen, 3.237 langabe 2009ko urrian. 2008a ezkerro, 3.000 baino gehiago langabe dago eta hortxe gelditu gara. Ez dugu lortu krisiaren egoera gordinenari buelta ematea". Azkoiak gogora ekartzen du honakoa

ez dela enplegu datuen lehenengo hobekuntza krisia hasi zentetik: "2009tik 2011ra, langabeziaren jaitsiera bat gertatu zen: 3.200 baino langabe gehiago zeuden 2009an, eta 2011n, 2.800 ingurura jaitsi zen datua. Gero, 2012a eta 2013a berriz ere oso txarrak izan ziren. Orain berriz oneratzeko bizi izaten ari gara. Beraz, irakurketa positiboa da, bai, baina perspektibarekin ikusi behar da".

Prestaziorik gabeko langabeak

ELA sindikatuak, bere aldetik, Hego Euskal Herriko datuen balorazioa egin du: maiatzean baino 5.105 langabe gutxiago eta joan den urteko ekainean baino 15.733 gutxiago; baina azpimarratu du inolako langabezia-prestaziorik jasotzen ez dutenak langabeen %59,6 izatetik %62,4 izatera pasa direla, eta "langabezia %7,8 murriztu den arren, langabezia-prestazioetara bideratutako gastua %11,6 murriztu" dela. Gainera, langabeen %55 emakumeak direla ere nabarmendu du sindikatuak.



Arantzazuko aterpetxea eta parketxea lehiaketara atera dira

L.K. | OÑATI

Arantzazuko parketxea eta aterpetxea –orain urte bete bukatu zutena egiten– kudeatzeko zerbitzua esleitzeko deialdi publikoa egin du Gipuzkoako Parketxe Sareen Fundazioak. Arantzazu Gaur Fundazioak GPSri utzi dizkio bi baliabide horiek bere kudeaketa aurrera eramateko.

Bi zentroetan arreta emateko eta haiek dinamizatzeko kontratua esleitzeko klausulen pleguak argitaratu dira eta Interneten daude ikusgai, *par-ketxesarea.org* webgunean. Lizitazioaren gehieneko prezioa 50.000 eurokoa izango da, kontratuak dirauen urte bakoitzeko. Kontratua bi urtekoa izango da; hasiera baten, behintzat.



Arantzazuko aterpetxea Gandiaga Topagunean dago. | GOIENA

Munduko Gizarte Ekonomiaren III. Foroan parte hartuko du Arrasateko Udalak irailan

Arrasateko Udalak GSEF2016 Gizarte Ekonomiaren Mundu mailako III. Foroan parte hartuko du beste zenbait hirirekin batera, hala nola Paris eta Rio de Janeiro. Montrealean izango da, Kananan, irailaren 7tik 9ra bitartean. 35 herrialdeko gizarte ekonomiar buruzko 90 proposamen inguru ezagutzeko aukera eskainiko du jardunaldi horrek.

triathlon Vitoria-Gasteiz

FULL & HALF • 10 JULY 2016

VITORIA-GASTEIZKO TRIATLOIA UZTAILAREN 10ean

Vitoria-Gasteizko Triatloia hamargarren edizioak inoizko parte-hartzerik handiena izango du, izan ere **22 herrialdeko 2.300 triatleta** izango ditugu gure artean.

www.triathlonvitoria.com

DEBAGOIENETIK LANDARA JOATEKO AUTOBUSAK DOAN

7:15 Arrasate: Garibal • 7:25 Aretxabaleta: Azbe • 7:35 Eskoriatza: Erdigunea
• Landara iritsiera: 7:50
09:00-12:00 artean Landatik Gasteizera autobusak izango dira.
Aldiz, ez da Landa-Debagoiena noranzkoan autobusik izango.

Zenbait errepide tarteka ibiko dituzte eta beste batzuk ibita egongo dira txirindulari proba marxan dagoen bitartean. Murrizketek eragingo dute Ullibarriko urtegiaren inguruan eta Landa eta Garaioako parke probintzietan.

ADII ERREPIDEA ITXIKO DA UZTAILAK 10

Txirindulari probarako ITXITA egongo dira Landarako sarrera hauek:

- Arlaban (A-627)
- Ozaeta (A-3014)
- Gasteiz (A-3002)

Landarako sarbidea aldi baterako ibiko da 6:30 eta 15:45 artean.

Landara 15:45etik aurrera joatea gomendatzen dugu

BABESLE NAGUSIA / PATROCINADOR PRINCIPAL

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

BABESLEAK PATROCINADORES

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

LAGUNTZAILEAK COLABORADORES

Isabel Saludek eta Victoriano Gallastegik uste dute oraingoan eratuko dela gobernua Espainian

- Diputatu eta senatari aktak jaso dituzte eta uztailaren 19an izango da Gorteen eraketa
- Euskadiren interesak defenditzera doazela esan dute, Saludek Kongresuan eta Gallastegik Senatuan

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA
Aztarna guztien arabera, ekainaren 26ko hauteskundeen ondoren, gobernua osatuko da Madril eta legealdi berria hasiko da. Datozen lau urteotan Espainiako Gortean izango dira bi debagoiendarrak: Isabel Salud (Ezker Anitza-Unidos Podemos) kongresuko diputatu izango da, eta Victoriano Gallastegi (EAJ), senatari. Saludendako esperientzia berria izango da; Gallastegik abendu hauteskundeetan lortu zuen senatari txartela, baina bilkura gutxi batzuk besterik ez ziren egin.

Kongresuaren eratze bilkura uztailaren 19an izango da, eta hor dira presidentea aukeratzekoak.

Salud joan den astelehenean izan zen Madril diputatu akta jasotzera; Gallastegik etxean jaso du, eta datorren astean da Madrilera joatekoa, bere burua inksribatzeko.

Bi debagoiendarrek uste dute oraingoan baietz, osatuko dela gobernua. Saludek bere kiniela egiten du: "Oraindik gauza asko

gerta daitezke, negoziatzen ari direlako; baina, nire iritziz, PPK gutxiengoan gobernatuko du". Gallastegik nahiago du iragarpenik ez egitea, baina "duda barik, gobernua egongo" dela eta "bere bidea jarraituko" duela dio.

PPren legeak atzera botatzera
Ezker Anitzeko ordezkariak bere koalizioaren emaitzak "dezepzioa" izan zirela onartu arren, konparaketa aurreko legealdiarekin egiten du bere alderdiak: "Orduan, PPK gehiago absolutua zuen, eta orain, berriz, ez; gainera, Euskadiko emaitzak ezin hobek izan dira, eta kongresuan PSOE-tik ezkererako inoizko diputatu kopuru handiena dugu; 20-23 artean izaten ziren garai baten".

Helburua, datorren legealdian, alderdi popularraren "lege gogorak bertan behera uzten saiatzea" da Unidos Podemosendako: "Kampainan alderdiak konprometitu ziren PPren lege batzuk -Lomce, mozal legea, abortuaren legea, lan erreforma...- atzera botatzera, eta konpromiso horri dei egin gogor".



Isabel Salud eta Victoriano Gallastegi. | GOIENA

Pertsonalki, Isabel Saludek espero du "Euskadiren beharrak, ekimenak, arazoak... Kongresura eroatea". Honako hau esaten du: "Nik bakarrik ez, Euskadiko sei diputatuok batera lan egingo dugu eta Euskadiren interesen defentsan jardungo dugu". Horretarako baliatuko du "erakunde publikoen funtzionamenduen ezagutza"; orain arte zinegotzi izan da eta "diputatu izatearen oso desberdina" den arren, erakunde lan egiteko moduan badauka esperientzia.

Kontzertua babesteko gertu

Victoriano Gallastegi ere "lan egiten hasteko desiatzen" dago, bere hitzetan: "Denbora asko galdu dugu dagoeneko; batzordeak sortu behar izaten dira Senatuan lan egiteko, baina gobernuari ez zegoenez, ez ziren sortu". Gallastegik ez daki oraindik ze batzordetan egotea egokituko zaion, baina argi dauka zein izango den bere ekarpena: "Gure gaiak, Euskadiri dagozkionak, Senatuan defendatuko ditut nire taldearekin batera: autogobernua, kontzertu ekonomikoa eta, aurrekontuak egiten direnean, gure eskaerak eta aldarrikapenak".

Azken hilabeteotan Euskadiren kontzertu ekonomikoak izan dituen erasoak errepikatuko ez diren konfiantza dauka: "Ez dut uste berriz gertatuko denik, baina hala eta guztiz ere gertu egongo gara gurea defendatzeko". Senatari lana "ilusioz" hasiko duela ere esan du.

Forjari buruzko nazioarteko jardunaldia egin dute Miguel Altuna Institutuan



Eguazteneko jardunaldiak, Miguel Altuna Institutuan. | MAI

ENEO AZURMENDI | BERGARA

Forjaren industriari lotutako joera berrien gaineko nazioarteko jardunaldi tekniko egin zuten eguaztenean Bergarako Miguel Altuna Institutuan, hainbat herrialdetako unibertsitate eta enpresetako ordezkariekin.

Alemania, Frantzia eta Italiako bazkideek hartu zuten parte jardunaldian eta *Dost* izeneko proiektuari eta 4.0 Industriari buruz jardun zuten. Hain zuzen, Miguel Altuna Institutua dabil *Dost* proiektua koordinatzen, eta nazioarteko bere bazkideekin batera, orain arte lortutako emaitzen berri eman zuten.

Azken joeren berri

Debagoieneko eta inguruetako 40 bat enpresa ordezkari forjan eta hotzeko, erdi-beroko eta bero-

ko estanziozko industrian dauden *Industry 4.0* izeneko tendentziak, aplikazioak, esperientziak eta aukera desberdinak ezagutzeko aukera izan dute. Horrez gainera, FEM simulazio nahiz frikzio modelo eta saiakuntzen nondik norakoak ezagutzeko aukera ere izan dute.

Ekitaldiren amaieran, aurten Miguel Altunan Hotzeko Estanziozko Graduondan espezializatu diren hamar ikasle diplomak jaso zituzten.

Balorazio positiboa

Nazioarteko jardunaldi hori Lotura Elementuen Fabrikatzaileen Elkartearekin -ASEFI- batera antolatu du MAIk.

Jardunaldi "arrakastatsua" izan dela adierazi dute institutuko ordezkariak.

» Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Matrikula
uztailaren 11tik 15era

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2016-2017





Lau erakundeetako ordezkariak akordioa sinatzen. | MONDRAGON UNIBERTSITATEA

MUk logistikarekin eta erosketekin lotutako bi graduondoko eskainiko ditu

Estatu mailan aitzindariak izango dira bi masterrak

XABI GOROSTIDI | DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitateak estatu mailan logistikaren eta erosketen alorrean aitzindariak izango diren bi graduondoko eskainiko ditu datorren ikasturtetik aurrera.

Bilboko Merkataritza Ganbarekin eta estatu mailako ICIL fundazioarekin eta AERCE erakundeekin sinatutako akordioari esker lortu du masterrak emateko hitzarmena. ICIL fundazioa enpresari aplikatutako logistikaren ikerkuntzan, formazioan, aholkularitzan eta zabalkundearen diharduen estatu mailako erakundea da. AERCE, aldiz, erosketako, kontratazio eta hornikuntzako profesionalen elkarte da.

Ikasle eta enpresarietzat

Prestatu dituzten bi graduondokoetatik lehena gradua amaitu berri duten ikasleei zuzenduta dago. Konkreteki, Enpresa

Zientziak, Ekonomia ikasketak eta Ingeniaritza tituluak dituztenei begira diseinatu dute. *Logistika Eragiketen Zuzendaritza masterra* izena hartuko du eta aurrez aurreko ikasketak izango dira. Bilboko Merkataritza Ganberan emango dituzte 2016ko urritik 2017ko ekainera bitartean.

Bigarren graduondokoa enpresari zuzendutako *Logistika eta erosketako Executive masterra* da. Profesional horiei hornikuntza kateen ikuspegi orokorra emateko xedearekin sortu dute. Hau ere Bilboko Merkataritza Ganberan emango dute, 2017ko otsailetik abendura arte.

Epe luzerako elkarlana

Akordioak bi urteko iraupenena du, baina asmoa da epe luzeko elkarlanerako lehen urratsa izatea. Bi masterrak hasiko dira,

baina etorkizunean kopuru hori handiagoa izatea espero dute hitzarmeneko parte hartzaileek.

Graduondokoek MUren ziguila izango dute, baina lau erakundeen artean egingo dituzte zuzendaritza, kudeaketa eta irakasle lanak.

Lau haur saharar etorri dira Debagoieneko familietan udako oporraldia pasatzera

Familia gehientzat era honetako esperientzia bat bizitzen duten lehen urtea izango da

X.G. | DEBAGOIENA

Urtero bezala, hainbat haur sahararrek bi hilabete pasako dituzte euskal familien artean.

Euskal Autonomia Erkidegora 325 etorriko dira eta horietako 106 Gipuzkoara. Debagoienean lau haurrek pasako dute oporraldia bertako familiekin. Horietako gehientzat, gainera, lehen aldiz izango da era honetako esperientzia batean.

Tradizio luzea

30 urte baino gehiago pasa dira lehen haur sahararrek uda pasatzera etortzen hasi zirenetik. Saleh Salek, Debagoieneko Saha-

raren kolektiboko lehendakaria, lehen espedizio haietan etorri zen eta uda hemen pasatzearen onurak azpimarratzen ditu: "Bertan, Saharako basamortuan eraikin handiekin edo argiztatze sistemekin amets egiten dugu. Beraz, holako toki batean uda pasatzea sekulako bizi esperientzia da gazte sahararrentzat".

Haur bakoitzak hiru oporralditan etortzeko eskubidea zuen lehen, baina krisiaren eraginez bi alditara murriztu dute. "Ahalik eta haur gehienek esperientzia hau bizitzeko asmoz hartutako neurria da".

Antzuolako gaztetxea zabalik, Bergaran bizikleta istripua izan zuen gaztearentzat dirua batzeko

Unai Prieto gazte bergararrak bizikleta istripua izan zuen pasaden maiatzean. Hain zuzen, auto batekin aurrez aurre jo ostean, kalte larriak izan zituen, eta orain, Gasteizko Santiago ospitalean dago ingresatuta.

Kalteak sendatzeko tratamendua garestia denez, bere Antzuolako lagunek gaztetxea zabalduko dute herriko jaietako eguenean eta zapatuan. Herritarrei gaztetxetik pasatzeko dei egin diete, bertan lortutako dirua Unairi laguntzera bideratzeko.

CITROËN JUMPY BERRIA EZ DAGO EZINEZKORIK

HIRU LUZERA: XS - M - XL
1,90 METRO GARAI* / ALBOKO ATE LERRAKORRAK
ESKU LIBREKO IREKITZE SISTEMAREKIN
LUZERAN 4 METRO BAINO GEHIAGOKO ZAMATZEA
MODUWORK-EKIN**



CITROËN-ek nahiago du TOTAL

*XS eta M neurriak furgoirako eta XS, M eta XL konbirako. **XL neurrian.

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 isuria (g/km): 5,1/5,6-133/148



TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

Bailarako merkatariek hasi dute jada udako denboraldiko merkealdia

X.G. | DEBAGOIENA

Uztaila heltzearekin bat hasi dira udako denboraldiko beherapenak. Aurreko urteetan izan dira uztaila baino lehen prezioak jaitsi dituzten dendak, baina, orokorrean, ohiko datak errespetatu dituzte dendari gehienek.

Eguraldiak ez du askorik lagundu orain artean udako produktuak saltze aldera. Hori dela eta, merkealdiarekin produktu hauen salmentari bultzadaxoa ematea da merkatarien asmoa. "Orain arte udaberriko produktuak nahiko ondo saldu ditugu, baina orain udako produktuak saltzeko ordua da", adierazi du Ainhoa Garitanok, Bergarako

Joka dendako arduradunak. Deskontuei buruz galdetuta, zera adierazi du: "%20-30eko deskontuekin hasiko gara, eta abuztua heldu baino lehen %50era jaitsiko ditugu. Kostaldean bizi ez garenok abuztuaren itxi egiten dugu, eta itxi baino lehen ahalik; gehien saltzea da helburua".

Arropak kalera

Merkealdia heldu dela irudikatuzeko, Bergarako dendariak arropak kalera atera zituzten pasaden egubakoitz eta zapatuan. "Hirugarren urtea da, eta jendea itxaroten egoten da. Eguraldi txarra egin arren, erantzun oso ona izan zen".

ZABALIK

AMETS BELTRAN DE GEBARA
goiena.eus/komunitatea/



Begirada kontuak

Jakina da umeak, jaiotzen diren unetik –eta zenbaitetan, munduratu aurretik ere–, genitalei erreparatuta eme edo ar kategorietan sailkatzen ditugula, eta, ostean, ar edo eme izate horretatik abiatuta, *neska* edo *mutil* gisa hezten edo ta sozializatzen ditugula. Mundua sailkatu eta ulertzeko modu horrek aukera guztiak bi kategoriatara mugatzea dakar, askotan oharatu gabe joko arau horietatik kanpo badela identitate-terik, gorputzik, bizitarik.

Iruditzen zait kategoriatu hertsia eta dikotomiko horietatik harago –gizon eta emakume– jendarte askeago eta denok kabitzeko moduko bidea egingo genukeela, genero araurik gabe, umeek nahi duten moduan jantzi, jostatu, mugitu, gozatu, haserretu, harremanak izan eta haziko bagenitu edo, sikiera, horretarako bide emango bagenie. Hau da, identitate ireki eta malguagoak eraikitzeak aukera eskainiko bagenie, ordainetan, noski, bazterkeriarik oparitu gabe.

Bururatzeko zait, agian, transexualitatea bera gure genero kultura zurrunaren adierazle eta, agian, ondorio bat ere izan litekeela.

Ezin dugu ukatu, gaur-gaurkoz, gure jendarte eredu honetan bulba duten gehienak neskek direla eta zakila duten gehienak mutilak. Ados. Baina neska edo mutil izan edo sentitzea subjektibitate kontu bat dela ere halaxe da. Izan ere, badira *ar* jaiotze edo neska izateko trantsizioa egiten dutenak, baita *eme* jaiotze edo gizon izateko bidea egiten dutenak ere, baita ez neska ez mutil gisa beren buruak definitzen dutenak ere... aukerak eta burua irekitzeko eta bestela pentsatzen hasteko bidea ere ematen dute aurrez aipatu hautuek.

Nik, behinik behin, garbi daukat gorputzak ez direla okerrak, aniztasunaren adierazpena baino ez direla. Okerrak direnak aniztasuna ulertzeko, errespetatzeko eta baloratzeak gai ez diren begiradak direla.

USTEAK USTE


MONIKA BELASTEGI | mbelastegi@goiena.eus

Uda Mizpirualden

Udarekin batera dagoeneko etorri da estatu osoko gazte boluntario taldea Bergarako Mizpirualde egoitzara. Hain zuzen, bi aste emango dituzte hantxe, egoitzako egoiliarrekin: belaunaldien arteko elkarbizitza, gazteak eta adinekoak esperientziak elkar trukatzeko, hori da auzolan-degiaren helburu nagusia. Nagusiek urteetan pilatutako esperientziak eta jakinduriak ematen duen patxada erakutsiko diete gazteei. Eta azken horiek, berriz, gaztetasunaren indarra eta freskotasuna eramango dute Mizpirualdera. Negua luze joaten da gurean, eta, uda heltzen denean, denoi gustatzen zaigu ohikotasunetik irtetea.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK

Eskerrik asko!

Jasone Elorza
(Abixaran taldearen izenean)
Oñati

Lotsak alde batera utzi eta elkarrekin korrika egin eta ondo pasatzeko helburuarekin sortu genuen Abixaran taldea. Ordutik hona, beti izan dugu buruan lasterketa herrikoi bat antolatzea. Iaz iritsi zitzaigun aukera. Antxintxiketan taldekoek esan ziguten Torreauzoko lasterketa antolatzeari utzi behar ziotela eta ea guk hartuko genuen erreleboa. Zalantza asko izan genituen, baina, azkenean, aurrera egitea erabaki genuen. Azkeneko hilabeteetan gogor egin dugu lan. Hala ere, arduratuta iritsi ginen domekara. Etorriko al da jendea? Ondo irtengo al da? Beldur asko.

Domekan sentsazioak bestelakoak izan ziren. Uste baino jende gehiago etorri zen, eta oso-oso pozik amaitu genuen eguna.

Lehenengo aldia izanda, akatsen bat edo beste egingo

genuen; horrela, bada, barkamenak lerro hauetatik. Torreauzoko lasterketako antolatzaileen izenean eskerrak eman nahi dizkiegu lasterketan modu batera edo bestera parte hartu zuten guztiei.

Eskerrik asko babesleei, Oñatiko Udalari, auzotarrei, lasterketa sortu zutenei, laguntzaileei, korrikalariei eta ikusleei. Zuek barik ezinezkoa izango litzateke hau guztia aurrera ateratzea.

Mila esker guztioi

Nuria Balanzategi
(San Martin eskolako 3 eta 4 urteko gelako haurren gurasoen izenean)
Aramaio

Aramaio San Martin eskolako datorren ikasturterako murrizketen inguruan Eusko Jaurlaritzak hartu zuen erabakiaren berri eman genizuen aurreko astean.

Nahiz eta eskola guztiko matrikulazioa aurreko kurtsoko bera izan, Delejaritzatik inposaturiko 3

eta 4 urteko gelen elkartzek, tutore baten murrizketaz aparte, eskolan lerro osoa galtzea zekarren ondorio gisa eta ikastetxeak martxan zituen proiektuak bertan behera uzteko arriskua.

Egindako alegazio eta eskaeren ondoren, onartu da murrizketa horrek izugarriko eragina izango lukeela eskola osoan.

Azkenean, nahiz eta murrizketak jasango ditugun, hasieran proposaturikoa baino 1,5 plaza gehiago lortu ahal izan dira.

Bi gelak elkartzeko dira, egokiena delakoan, eta horrek ahalegin berezia eskatuko dio ikastetxeari.

Hala ere, egoera hau aurrera eramatea bideragarriagoa izango da plaza gehigarri hauekin, talde honek behar dituen laguntzak jasoko dituelako.

Hau guztia kontuan hartuta, guraso, guraso elkarte, zuzendaritza talde, Aramaio Udal eta herritar guztiengandik egun hauetan jasotako laguntza eskertu nahi genuke.

Karakterak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefona. Gutuna helarazteko: Oñati Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Oñati Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uthane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Ozel Arrieta.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetzatzaile eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Oñati Lizentziaduna 31
132 posta-butxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Oñati Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Oñati Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adieraztako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

Elkartasun bidaia Nepalera

- ▶ Felipe Uriarte gidari dela, hiru asteko trekkinga antolatu dute udazkenerako
- ▶ Hango herritarrei eramateko arropak, oinetakoak eta botikak batzen dabiltza Oñatin

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Nepalgo lurrikarak han eragindako kalteak konpontzen laguntzeko sortu zen duela urtebete pasa Oñatiko Nepal Lagunduz elkarteak. Ekitaldi bat baino gehiago egin dituzte ordutik hona eta batutako diruarekin lurrikarak suntsitutako etxeak berreraikitzeke bi proiektu jarri dituzte martxan. Udazkenerako elkartasun trekkinga antolatu dute eta

bidaia horretan eramango dituzten produktuak batzen ari dira orain.

Arropak, oinetakoak eta botikak eramane gura dituzte, batik bat, Nepalera, eta hiru produktu horietara zehaztu dute bilketa. "Nagusiendako zein umeendako arropak ari gara jasotzen, baina egia da umeei emango diegula lehentasuna. Horiendako jantziak, gainera, nagusienak baino toki

txikiagoa hartzen dute motxilan, eta gehiagorendako eramateko aukera izango dugu horrela", dio elkarteko kide Urko Egañak.

Umeendako

Lau aste dira kanpaina hasi zutela eta orain arteko erantzunarekin oso pozik daudela aitortu du Egañak. "Herritar askok ekarri dizkigute arropak eta oinetakoak. Turismo Bulegoan batzen ditugu eta handik Bidebarrieta kalean Hermansaloña elkarteak erabiltzen duen lokalera ekartzen ditugu, hemen sailkatzeko. Lan honetan asko lagundu digute, gainera, elkarte horretako kideek ere. Eurek badute esperientzia honetan eta eskertzekoa da izan dugun laguntza".

Txamarrak, jertseak, prakak, nikiak, galtzerdiak, lepoak babesteko zapiak... Askok kaxetan sartuta dituzte dagoeneko, umeendako edo nagusiendako adierazten duten hizkiekin bereizita. "Gero, ziur aski, beste sailkapen bat egin beharko dugu, motxiletan sartu aurretik. Gerta daiteke behar baino gehiago jasotzea ere, baina ez da arazorik izango, Nepalera eramaten ez ditugunak Argentinarako, Greziarako edo beste herrialde baterako izango dira eta", dio Egañak.

Batutako jantzi eta oinetako gehienak herritarrenak dira. Botika batzuk ere eramane dituzte norbanakoek, baina horien bilketa enpresen bitartez ere egingo dute. Kanpainak indarrean jarraitzen du eta gura duenak Turismo Bulegora eramane ditza Nepalgo biztanleendako aproposak izan daitezkeen jantziak, batez ere, umeendako.



Bidebarrieta kaleko lokalean biltzen dituzte jasotakoak. | O.E.

FELIPE URIARTE | MENDI GIDARIA

"Bakoitzak 24 kilo estra eramango ditu motxilan, arropa eta botikekin"

Mendiak eta Herriak etxeak mendi zeharkaldiak egiten duen esperientziak baliatuta antolatu dute trekkinga Nepalera. Felipe Uriarte izango da gidaria.

Datak, iraupena eta tokiak zehaztuta dituzue, ezta?

Bai. Hiru asteko irteera izango da, gutxi gorabehera: irailaren 23an aterako gara, eta urriaren 16an bueltatuko gara.

Nora joango zarete?

Everesteko magalean ibiliko gara.

Nepal Lagunduz elkar-

tea sortu zenetik

6.500 euro inguru

batu ditugu eta kopuru

handi bat erabili

dugu bi egitasmo

martxan jartzeko:

Chaurikharka herriko

etxeak konpontzeko

zati bat eta Edurne

Pasaban buru den

elkarte batek duen

Dhola herriko

proiektu baterako

beste bat. Zeharkaldi

honetan bi herri

horiek ere bisitatuko

ditugu eta ikusiko

dugu guk bidalitako

dirua nola eta zertarako

erabili dute.

Argazkiak eta irudiak

hartuko ditugu,

bueltan gatozenez Oñatin

erakusteko.

Elkartasun trekkinga da.

Bai. Espedizioko kide

bakoitzak 20

bat kilo eramango

ditu motxilan,



GOIENA

baina lortu dugu beste 24 kilo ere eramane ahalizatea, eta batzen ari garen arropak eta botikak hango herritarrei eramateko erabiliko ditugu kilo estra horiek. Gure bidaiek, bestalde, lana emango die hango zama-ketariei eta ostalariei, adibidez.

Nola egingo duzue banaketa?

Aztartzeko dugu oraindik. Modu bat da herrietako agintariekin egitea eta bestea herritarrei ematea, zuzenean.

Zenbat zoazte?

Zortzi lagunek eman dute izena, baina beste bizpahiru lagunendako tokia ere badago; 12 laguneko taldea egokia izango litzateke. Etorri gura duena

garaiz dago oraindik izena emateko: info@herriaketamendiak.eus.

Ze kostu du bidaia?

Hemendik harako hegaldiaz gain, 1.900 euro. Hor sartzen dira zama-keta lanak eta hiru asteko egonaldia mantenu osoan, adibidez.

Ondo ezagutzen duzue zuk Nepal.

Bai. 3.000 metrotik gorako etxebizitzak harrizkoak dira baina 1.500 eta 3.000 metro artean daudenak oso sakabanatuta daude, paraje menditsuak dira eta zailagoa da laguntza hara iristea.

elejalde
COLCHONERÍA
VITORIA - GASTEIZ

Etor zaitez!

Parkeak, sehaskak, ume-kotxeak...

Merkatuko marka nagusien bermearekin.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin

* Kontsulta ezazu deskontua dendan bertan.

ZURE KOLTZOI ETA PUERIKULTURA DENDA

Zatoz eta gure eskaintza bereziaz gozatu!

Eta gainera, Goiena Klubeko bazkide bazara, %5eko deskontua aplikatuko dizugu.



Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:30 / 16:30-20:00
Zapatuetan: 10:00-13:30 (zapatu arratsaldeetan itxita)

www.colchonerieelejalde.com

Domingo Beltran 33
Tel.: 945 242 297

Benito Ginea 1
Tel.: 945 287 667

Panama 7
Tel.: 945 267 314

Florida 43
Tel.: 945 279 085

Donostia 64 (Lakua)
Tel.: 945 179 912



NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ



A ze deskonexioa

Zazpi egun izan ditut deskonektatzeko... Eta lortu dut! Ume txikiarekin joan gara bikotekidea eta hirurok oporretan Landetara. Oinarrizkoena, sanjuanetako gaupasa apartaren ajearekin telefono mugikorra etxean ahaztu izana. Ez hauteskunderik, ezta Eurokoparik ere aste osoan. Eta aitatasunaz gozatu dut berriro, eguneroko ardura guzti horietatik aske. Goizean gozetik semearekin egoteak izugarri zorionsu egin nau, hondartzako hanean eta kanpineko belarretan zikinduz, frustrazioak, nekeak eta konpromisoak garbituz.

Bueltatu gara eta hasi dira hitzorduak, telefono deiak eta lana. Arratsaldera arte ez dut umea ikusiko, baina begiak ixtean bere irribarrea dator kit burura, bere bakarriketa lelebte horiek nire bularrean lokartu baino segundo batzuk lehenago...

Goienako kolaborazioa tokatzen zaidala ahaztuta. Zertaz idatzi? Zuri geratu naiz. Umea, familia eta datorren asteburuan berriz irten ahal izateko furgoneta konpondu behar dudala bakarrik ditut buruan.

Ezustean nirekoi bihurtu al naiz ala bada horrela bizitzerik? Aspaldiko partez lau kontu bakarrik axola zaizkidala aitortzeak ea laguntzen didan, egunerokotasunak berriz ito aurretik, gogortzeko konpromisoetan oreka bat bilatu behar dugula eta beharbada bizitzaz gozatzeko denbora gutxiegi gordetzen dugula.

"Egunerokotasunak berriz ito aurretik, konpromisoetan oreka bat bilatzea"

Anporretari balioa eman eta herriari uzteko akordioa lortu du Udalak

Besaide elkartearekin batera ibilbide homologatu bat ere sortuko dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Meatzerreka eta Zigorrola artean, San Kristobal hilerriaren gainean, dagoen Anporretako tontorra (585 metro) jabego publikoak izango da aurrerantzean. Udalak akordioa lortu du lursailaren jabearekin, eta, erosketari esker, inguruan dauden 36ko gerrako lubakiei balioa eman eta bertatik pasatuko den mendi buelta bat diseinatu dute Besaide Mendizale Elkartearen laguntzarekin. 32.263 metro koadroko lursaila da eta 18.000 euroren truke itxi dute akordioa. Prezioaren barruan daude lursailak gaur egun dituen pinudiak. Udalaren asmoa da pinudi horiek saldu eta egindako inbertsioaren zati bat berreskuratzea.

Kurtzetxikikoaren antzera

Asteon eman dute erosketaren berri Udaleko ordezkariak, Anporretan bertan. "Helburua da Arrasateko tontor esanguratsu bat eta aldi berean herritarrentzat ezezagunena dena berreskuratzea eta publiko egitea. Gunea atondu egingo dugu, Kurtzetxikin



Arrupe, Zubiaga, Ubarretxena, Encinas, Ugarte eta Garai, Anporretan. | X. GOROSTIDI

egin zen antzeko esku-hartze batekin. Gero, Besaide elkartearekin batera, ibilbide bat egiteko asmoa dago; ibilbide horrek Monterron izango luke ardatz, herriko zenbait lekuri balioa emateko asmoz. Gure basoak eta tontorrak arrasatearrei hurbiltzea nahi dugu", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak.

Monterron "epizentro"

Erosketaren atzean herriko mendizaleentzat mendi buelta homologatu bat sortzeko egitasmoa dago. Monterronen hasi eta Anporretatik pasatuko den hamar kilometroko txangoa sortu nahi dute. Oraindik guztiz zehaztu gabe dagoen arren, ibilbidean zehar, Monterron, Hidalgo-baso,

Anporreta, Iturritxipigaina, Meatzerreka eta San Balerio zeharkatzeko aukera egongo da. "Iturritxipigaina, Anporretaren *anaia* den tontorra, pasatu ostean eta orain pinu barik dagoela, ikuspegi zoragarria ematen du. Udaltx, Arrasateko herria eta Elorrio inguruak ikusteko paraje ederra da", adierazi du Besaideko presidente Aitor Zubiagak.

Horrez gain, Meatzerreka auzoko aberastasuna ere nabarmendu du Zubiagak: "Oso aberatsa da ingurua, hor ez dago zalantzarik. Lur azpian kobazulo ederrak daude, Galarra izango da ezagunena. Lurgorri ere hor dago, Arrasateko altzairu famatua nondik ateratzen zen ikusteko. Ur-zulo ere hor dugu, Udaltxeko urak modu ikusgarri baten irteten direla erakusteko. Eta, ibilbidea borobiltzeko, San Balerioko ermita dago. Hor atsedean gune bat egokitu nahi da Udalarekin elkarlanean, bertako historia guztia kontatuko duen panel eta guzti". Pixkanaka-pixkanaka Arrasateko inguruei balio emateko lanean ari dira buru-belarri.

Baleike: "Adierazpen askatasuna bermatzeko ez dago borondaterik"

J.B. | ARRASATE

Baleikek gogor kritikatu du asteon Udal Gobernuaren jarraera garbiketa ordenantzaren harira. Astelehenean egin zen Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeko azken batzarra: "Argi geratu da gobernuak ez duela borondate politikorik Arrasaten benetako parte-hartze bat sustatzeko eta adierazpen askatasuna babesteko". Podemosen Arrasateko zirkuluak ohar bidez jakitera eman duenez, 78 alegazio aurkeztu ziren: "Hurrengo urratsa izango da mozal ordenantza uztailearen 12ko osoko bilkuran

onartzea EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin". Baleikeran ustez, adierazpen askatasuna ez bermatzearen adibide bat da Monterron parkeko hesietan pankartak jartzeko debekua: "Hainbat eragilek salaketa erabilitako leku mitiko bat da".

Gainera, salatu dute gaia debatera ekartzeko espazioa ukatzen dutela: "Diote herritarren parte-hartzerako parametroak adostu behar direla; ez du zentzurik, kontuan hartuta modu paralelo baten beste prozesu parte-hartzaile batzuk abiatu dituztela; Gorostizako jolas parkearena, adibidez".



MIRIEA BIKUNA

Sanferminak, beste era batera

Astelehenean hasi ziren Txatxilipurdiren udaleku irekiak, uztailearen 22ra arte. Atzo, San Fermin eguna, ospakizun berezia egin zuten Herriko Plazan. Ez zuten ohiko entzierroa egin; aurten buruhandiek hartu dute *zezenen* papera. Pregoia irakurri eta kalejira bat ere egin zuten. 200dik gora umek eman dute izena udaleku irekietan.

Toki Argi elkarteak boluntarioen esker on mezua 'Busti Zaitetz' kanpainaren harira

J.B. | ARRASATE

Toki Argi erretiratu elkarteak modu positiboan baloratu du esklerosi anizkoitzaren aurkako *Busti Zaitetz* kanpaina. Hasteko, eskerrak eman dizkie modu batera edo bestera ekarpena egin zuten herritarrei: "Asko edo gutxi izan, eskerrik asko. Bereziki Musakolako bizilagunei, kiroldegiko postuaren gertutasunagatik. Eskerrik asko kiroldegiko

arduradunei, esklerosiaren aurka igeri egindako metroak kontatzearen. Aurten 30.000 metro inguru izan dira". Eta nola ez, boluntarioak ere izan dituzte gogoan: "Zorionak itsulapikoekin hara eta hona aritu ziren boluntarioei, iaz baino 150 euro gehiago jaso dira eta. ADEMGi elkarteak eskerrak eman gura dizkizue, kanpainan parte hartu duten guztien eta kaltetuen izenean".

Unzueta
Sagardotegia

Uda garaian ere zabalik!

Sagardotegi menua • Aste-bukaerako menua • Karta
Ospakizun berezietarako jantoki bereiztuak
Aparkekua eta terraza

Zabola auzoa • 01001 Aramaio • 945 44 50 95

Iñigo San Vicentek irabazi du ArtGazkiren sanjuanetako lehiaketa

Lehen saria Iñigo San Vicentek irabazi du *Preparado para el desfile* argazkiarekin, bigarren saria Leire Murillok (*Suak*) eta hirugarren saria Jesus Lizarragak (*Fuego y sombras*). Argazki originalearen saria Anibal Carmonak irabazi du (*Aúpa sanjuanak*) eta 16 urtetik beherakoen kategorian Peru Arreseren argazkia izan da onena.

Mondra herriari gerturatzeko eta etorkizuna bermatzeko campusa

Uztailaren 22ra arte iraungo duen topaketan 155 umek eman dute izena

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Mondraren udako bigarren campusa arrakasta borobila ari da izaten. 155 umek eman dute izena aurten, iaz baino 25 gehiagok. Ekainaren 27an hasi zen eta uztailaren 22ra arte iraungo du. Futbola badago, baina ez da futbol campusa bakarrik: Donostiara txangoa ur jarduerak probatzeko, elikadurarekin lotutako hitzaldia, Gurutze Gorriko ordezkarien formakuntza saioa.... Lehen helburua umeek ondo pasatzea dela dio campuseko arduradun Josu Zubiak: "Horrez gain, Mondra ezagutzeko aukera dute. Helburu nagusia da Mondraren eta Arrasateren arteko lotura estutzea".

Klubari "mesede handia"

Emozioak eta balioak ere lantzen dituzte: "Errespetua, laguntasuna... Uste dut hasieran jarritako helburuak betetzen ari garela". Umeak "oso gustura" dabilzala dio Zubiak: "Poztasun handia da umeak horren gustura ikustea. Gurasoek ere errekonozitzen dute gure lana, eta hori ederra da".

Campusak klubari "mesede handia" egiten diola deritzo: "Ahalbidetzen du umeak eta gaztetxoak klubera hurbiltzea". Begiraleak ere Mondrako parte dira; jokariak dira edota futbol eskolan dihardute. Ander Romero, Edorta Bolinaga, Iker Uribarren eta Xabi Arrizabalaga dira aurtengo

begiraleak. "Sekulako lana ari dira egiten", dio Zubiak, laguntzaileez; begirale bakoitzarentzat 12 bat ikasle daude.

Era berean, Mondrako jokari ohi Iban Garai *Muxi* ere pasatu da campusetik, egun jokatzeko ari den Mikel Aizpuruarekin batera. 2001eko goiera gogora ekarri zien *Muxi*-k eta Aizpuruak aurtengo igoerako bizipenak kontatu zizkien gaztetxoek. Aste Santuan ere egiten da campusa, eta ekimena geratzeko sortu da: "Eran tzuna ikusita, epe luzearako proiektu moduan ikusten dugu. Urtez urte hobetzen saiatuko gara. Bestalde, Mondrari eta begirale taldeari eskerrak eman nahi dizkiet".



IMANOL SORIANO

Bakarra eta kolore bereziduna

Andaluzia bakarra dela dio eslogan ezagunak, eta Sevillak kolore berezia duela, aldiz, kantuak. Bi ezaugarri horiek agerian geratu ziren uztailaren 3an Arruena parkean ospatu zen Errozioan. Aurten 26. aldiz antolatu du Al-Andalusek, eta EAEn kokatuta dauden 19 elkarte etorri ziren: "1.000 pertsona inguru etorri dira, primeran joan da".



Talde argazkia Anoetako futbol zelaietan. Anoeta bisitatzeaz gain, ur jarduerak ere egin dituzte hiriburuan. | JOSU ZUBIA

Uztail amaieran zabalduko dute Jose Luis Iñarrako igogailua, konponketa-lan berezi batzuen ondoren

Ferixalekuko igogailua atzo ireki bazuten ere, Jose Luis Iñarra kalekoak uztail amaierara arte itxaron beharko du: "Igogailua erre zutenean kalte handiak izan ziren egituraren eta hori konpontzeko piezak ez ditu Oronak ekoizten [mantenuaz arduratzen den enpresa]. Alemaniara eskatu behar izan dituzte eta uztailaren 21ean dira heltzekoak. Pieza horiek muntatzen eta guztia prest uzten astebete inguru beharko dute. Hil amaierarako funtzionamenduan egongo da", adierazi du Udal Gobernuak.

Renault CAPTUR eta Renault KADJAR

Crossover Gama

RENAULT
Passion for life

Renault CAPTUR LIFE

12.750€-tik aurrera*

Renault KADJAR LIFE

16.550€-tik aurrera*

Crossover Gama (Renault Kadjar eta Renault Captur): kontsumo mistoa (l/100km) 3,6 eta 5,8 bitartean. CO2-aren isurla (g/km) 95 eta 131 bitartean. *Eskaintza hau eta PSP gomendatzen diren promozioak eta bonifikazioak dira. Renault Captur LIFE Energy TCE 95 kW (130 ZP) Euro 6 Basic Pack eraketa eta Renault Kadjar LIFE Energy TCE 96kW (130ZP). Berme duak BEZA, inbentarioa argi, gurtza-zerua, RECSA eskaintza promozioak eta PIVE-8 planaren deskontua. Balantza de partibusamiztat eta autoheriotza: berme, inbentario 1.900.000/2015 Eneko Dekretua. "Balantza Eraginkortasuneko Programaren Programaren (PVE-8) diru laguntzak ezarriak emateko ondorioz, horiek arautzen dituzten, ezarritako baldintzak bete behar dira, eta Preference bidez finantzatu gero HCl Barcile S.A. Sotuzko eta España Tekn. Guterakoen enpresa. 24 hilabetez. Finantzatu beharrezko gutxienezko kopurua: 8.000 €. Opari diren oparitutako matrikulazioak 2 urteko diru gehienez ere, 2 urtez edo 30.000 km egun arte (lehenengo gertatzen dena), 600 €-ko franketudun arloko ordaino asagotua lehen lehen. Matrikulazio, BECSA oparitutako matrikulazio egonkortze eta asagotua. Ez da batzugarria beste finantzazko aukerak. Eskaintza hau 2016/07/01etik 2016/07/31ra bitartean eta PIVE-8 plana bukatutakoan egonaldi eskaintza da. Inbentario arautzen diren modokoak. Renault Captur Zen Energy TCE 96 kW (130 ZP) puztura matrikulazio berria eta 19" ko aluziozko hagurekiki, PSP gomendatzen diren sartuta daude promozioak eta PIVE-8 planaren deskontua. 21.100€ eta Renault Captur Zen Energy TCE 96 kW (90 ZP) puztura oparitutako eta 17" ko hagurekiki bezelako pertsonakentzat. PSP gomendatzen sartuta daude promozioak eta PIVE-8 planaren deskontua. 15.100€.

Renault gomendatzen ditu reault.es

AUTOBERRI
San Andres, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE - MONDRAGÓN
www.autoberri.com

I. Arrasate Saria egingo dute etzi, domeka, kadete mailakoei zuzenduta

Dorletako Ama lasterketa antolatzaera animatu da, duten harrobia ikusita

XABI URZELAI | ARRASATE

Duela hamarkada batzuk txirringularitzak egun baino indar handiagoa zuen Arrasaten. Baina, harrobitik hasita, Dorletako Amako lagunak badabilta poliki-poliki aurrerapausoak ematen, eta domekan egingo duten I. Arrasate Saria da adibideetako bat: "Domekakoa kadete mailakoendako lasterketa izango da. Dorletako Amaren inguruan gauden lagun batzuk aspaldi genbiltzan lasterketa bat antolatzeko gogoz. Hasierako asmoa zen amateur mailako ziklismo lasterketa bat antolatzea, baina, Bergarako Lokatzako lagunekin berba egin da, gomendatu ziguten gauzak behetik egiten hasia. Hala, ikusita klubaren harrobiko kadete mailakoak oso lan txukuna egiten dabilzala, kategoria horretarako lasterketa antolatzera animatu gara", adierazi du Iñaki Juldain *Jali-k*.



Joan den astean Amaro lasterketan izan ziren kadeteak. | DORLETAKO AMA

Lasterketa "gogorra"

Federazioak asko zaintzen ditu kategoria txikietako lasterketako distantzia eta gogortasunak: "Baina denboraldia aurreratuta dagoenez, lasterketa gogortxoak jartzeko aukera ematen dute, eta Arrasatekoa nahiko

zorrotza da". Lasterketa Garibain hasiko dute (16:00), Oñatirako bidea hartuko dute eta handik Eskoriatzara joango dira. Ainguru Guardan buelta erdi eman, eta Arrasatetik Aramaiora igoko dira: "Eta ordurako, lehenengo aukeraketa eginda egongo da.

LASTERKETA DATUTAN

Irteera: 16:00etan Garibain.
Helmuga: 17:40 aldera Garibain.
Kilometroak: 65 kilometro.
Mendateak: Kanpanzar.
Lasterketa pasako da:
 Oñati (16:15), Arrasate (16:35), Aretxabaleta (16:40), Eskoriatza (16:44), Aramaio (17:08), Arrasate -Muxibar- (17:26), Epele (17:31), Garibai (17:40).
Ziklista kopurua: 120 inguru.

Arrasatera jaitsi, Kanpanzar igo eta Epeletik jaitzita, Garibairaino etorriko dira (17:40). Seguruenik, Kanpanzar erabakigarria izango da azken taldetxoak aurrera egin dezan, eta ikusteko dago azken kilometroak zelakoak izango diren".

Dorletako Amako Eroski-Portabicis.com taldekoekin batera Oñatiko gaztetxoak ere lasterketan izango dira; Ulmakoak, hain zuzen. Eta eurekin batera, Gipuzkoako beste hainbat talde.

ESANAK

"Hasieran asmoa zen amateur mailako lasterketa antolatzea, baina pausoz pauso joango gara"

"Lasterketa zorrotza izango da; Kanpanzar erabakigarria izango da ziklista indartsuenek aurrera egin dezaten"

IÑAKI JULDAIN | ANTOLATZAILEA

Isabella Blezien piano-irakasleak Arrasate Musikal utziko du

"Sentsibilitatea, konstantzia, diziplina eta ikasteko gogo beharrezkoa da"

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Isabella Blezien 30 urtez izan da Arrasate Musikaleko piano-irakasle. Erroman jaiotako poloniarra da bera, eta, hemen bizi izandakoak ahaztu gabe, ibilbide berriari ekingo dio. Bere esanetan: "Sentsibilitatea, konstantzia, diziplina eta ikasteko gogo beharrezkoa da musikari ona izateko".

Orain dela urte asko, Christophe bere anaia Euskadiko Orkestran izan zen, biolinista, eta eskolak ematera etorri zen Arrasate Musikalera. Isabella, berriz, Polonian ari zen lanean, eta anaiarekin etorri zen 1986an, eszedentzia bat eskatuta, eta Arrasaten egon da ordutik hona. Izan ere, penaz utzi du Arrasate Musikal, baina edozein proiektutan laguntza behar duenari laguntzeko bueltatuko dela adierazi du.



Isabella Blezien, lore sortarekin, piano-irakasleekin batera. | ARRASATE MUSIKAL

Pena, uzteagatik

Eskerrak eman nahi izan dizkie Arrasate Musikaleko irakasleei urteotan bizi izandakoengatik. Batez ere, Eduardo Arzamendi, Marta Izagirre eta Rakel Hernandezi (bere ikasle ohia). Bestalde,

berarekin jo duten Amaia Arzamendi, Eli Auzmendi, Amaia Garro eta Arantza Idigoras biolin-joleei, eta hauekin bizitakoak ez dituela ahaztuko adierazi du. "Nire bihotzean eramango dut Arrasate Musikal, bertako ikas-

DATUA

30

URTEZ IRAKASLE

Isabella Blezien piano-irakasleak Arrasate Musikal utzi du.

le eta irakasleak... Hala ere, bide berriari ekin arren, uste dut lanean jarraituko dugula, eta egingo ditugu kolaborazio ezberdinak, hori seguru". Bestalde, lasai utzi ditu bere ikasleak; izan ere, "irakasle bikainekin" uzten ditut.

Musika eskolan hutsunea

Arrasate Musikaleko Edorta Ayastuyk ikasle zela ezagutu zuen Isabella Blezien, eta musika eskolarentzat erreferente izan den pertsona izan dela adierazi du. "Diziplina handikoa da, eta horrek guregan ere eragina izan du. Exijentzia maila handia erakutsi du, eta beti lanerako prest egon den pertsona maitatua izan da".

'Letter' zirku-antzerki ikuskizuna Seber Altuben

I.B | ARRASATE

Uztailaren zehar kultur eskaintza zabala izango da Arrasaten; izan ere, Udazabal egitasmoaren barruan, hainbat egitasmo izango dira. Aipatzeko bat uztailaren 10ean, 20:00etan, Seber Altube plazan izango den *Letter* zirku-antzerki ikuskizuna da.

Euskal zirkuaren adierazle nagusienetakoa den Malas Companias antzerki taldearen lana da *Letter*. Zortzi urteko ibilbidean, ikuskizun ezberdinak eskaini ditu taldeak, eta hau seigarren ikuskizuna izango da. Bertan, antzerkia eta zirkua umorearekin eta poesiarekin nahastuko dira. Agurtzane Intxaurrearen gidaritzapean, Diego Aimar, Mikel Pikaza eta Aritz Rodriguezek antzeztuko dute.

EGUN URDINAK

FORD FOCUS ECOBOOST 12.490€

MUGARRI AUTOAK

Arrasate
Araba etorbidea z/g
tel.: 943790744

Bergara
Amillaga 5
tel.: 670827186



UZTAILAREN 1ETIK 31RA

PREZIO HARRIGARRIAK



Focus gama, batez besteko kontsumo konbinatua: 3,8-7,7 l/100 km. CO₂ emisioak: 99-175 g/km.

Uztailaren 1etik 31ra eskaintza harrigarriak izango ditugu Ford gamako turismoetan. Eskaintza baliagarria atxikitako kontzesionarioetan, stockean dauden autoendako. EcoBoost motorrak %20 hobetzen ditu kontsumoak motor konbentzional batekin alderatuta. Focus Trend 1.0 EcoBoost Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW), 5 ate, atzeko kristal-jasogailu elektrikoak eta lainotako argiak. Eskaintzaren barne daude: BEZA, IEDMT (garraio bide mota batzuei ezarritako zerga berezia, autonomia erdiko bakoitzaren arabera); korneri da lekuan lekuko aztertzea), garraioa, sustapen deskontuak, kontzesionarioaren ekarpena eta deskontua FCE Bank PLC SREkin finantzazearren, 8.000 euroko gubieneko geroratu finantzazio konbentzionalen eta 24 hilabeteko gubieneko iraupen-konpromisoa. Gubernaren Pive planaren ekarpenaren menpe dago eskaintza. Penintsulan eta Balear uharteetan baliagarria 2016/04/23ra arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Iragarkian agertzen den modelo ez du zertan eskaintzako izan. Ale mugatuak stocka bukatu arte. **Ford.es**.

Hasi orduko, elkarri laguntzen; hasi orduko, barre eta malkoak

- ▶ Astean ekin diote Mizpirualdeko auzolandegiari hamazazpi gazterekin
- ▶ 'Belaunaldi arteko trukaketa'-k egoitza dinamizatzea du helburu

JULEN IRIONDO | BERGARA

Adrian Reinoso madrildarra da, eta 21 urte ditu: "Jende nagusia-rena da gehien gustatzen zaidan kolektiboetako bat; ekarpen handiena egin dezaketenetakoak dira, eta ez daude behar beste baloratuta". Ez da gazte hauen kasua. Martitzena; lehen bisita dute hurrengo bi asteetan *lantoki* izango duten egoitzara. Solairuz solairu doaz, Mizpirualdeko psikologo Orbaiz Formoso lagun, lekua ezagutuz eta bidean topatzen dituzten egoiliarrei taldea aurkeztuz. Espe topatu dute, pasillo erdian, jesarrita lasai. Azaldu diote nortzuk diren, eta badoaz, egoitzako beste txoko batera; gazteetako batek eskua luzatu dio, eta Espek berea; elkar laz-tandu dute bi eskuek. Lehen kontaktua izan da; kontaktu goxoa.

"Freskotasuna eta jarrera"; bi ezaugarriok nabarmentzen ditu Orbaiz Formosok urtez urte-aurten zortzigarrenez- auzolandegira etorri ohi diren gazteengan: "Batzuk uda pasatzera eta esperientzia berri baten bila datoz, eta beste batzuk, ikasketak arlo horretatik bideratuta dituztelako, adibidez, proba modura; baina, bateko zein besteko, nabarmenduko nuke duten jarrera egoiliarrekin egoteko".



Gaztea egoiliarrari erlojua lotzen laguntzen. | JULEN IRIONDO



Auzolandegiko kideak, egoitzakoak eta Udalekoak. | J.I.

Jarraitu dute bisitarekin. Egongelan lagun mordoxka daude; konturatu orduko, erlojua eskumuturrean lotzen laguntzen

ari zaio gazteetako bat Eulaliri. Auzolandegiko parte-hartzaileak desberdinak dira urtetik urtera, baina egoiliarrentzat urterokoak

dira: eurei konpainia egitera datozen gazteak, berriketan, jokoan edo paseoan lagun egitera datozenak. Egoiliarrek ez dute egokitzapen beharrik.

"Gu oso gustura egoten gara, eta eurak ere uste dut baietz. Poza ematen digute, entretenitu egiten gara eurekin, gauza asko kontatzen dizkigute... eta guk, geure bizimodua"; Inazio Arantzabalek dio hori, egoitzako egoiliarra bera. Hartu eta eman, eman eta hartu, beraz: "Nik uste dut eurek ekarpen handiagoa egingo didatela niri, nik eurei baino. Nagusiak jakintza iturri dira, gauza asko bizi izan dituzte, eta asko irakatsiko digute"; Castelloko Marta Reigek esana.

Eta Valentziako Joana Martinezek, berriz: "Gazteago senti daitezen egin nahi dut eta bizi-poza handitu dakien". Iritsi orduko lortu dute gazteok; hala dirudi. Jesusak euren hizkuntzan hizketan jarri ditu auzolandegiko kide kataluniarrak. Barrez egon dira denak. Eta barreen artean malkoren batzuk, egoera okerragoan dauden egoiliar batzuen gelatik irteteen gazteetako batek isuritakoak. Emozio handiko egunak izango dira datozenak Mizpirualden, gazte zein nagusientzat.

IZASKUN LABAIEN
GAZTERIA ZINEGOTZIA

"Gaur ere, sartu garenerako, gizon bati poza antzematen zitzaion"

Eusko Jaurlaritzak antolatzen ditu auzolandegiok.



Ze helburu du ekimen honek?

Helburua da gure zaharrak pozteak. Eurak deseatzten egoten dira; gaur ere, sartu garenerako, gizon bati poza antzematen zitzaion aurpegian. Harreman hauek, gainera, kasu batzuetan, mantendu egiten dira urtean zehar. Kontatu didate nola egoiliar batek harreman handia egin zuen neska batekin, hark Whatsapp erabiltzen irakatsi ziola eta harremana mantendu dutela horrela. Merezi duen ekintza bat da auzolandegia.

Udal ordezkari moduan, inportantea izango da gazteok Bergarako eta inguruko irudi on bat eraman dezaten ere; enbaxadore lana egin dezakete gero.

Bai; egingo dute lan goizez ordu pare bat eta astean bi arratsaldetan ere bai. Bestea izango da herria ezagutzea; egun batean hondartzara, beste batean Laboratoriumera. Eta, bai, ziurrenik, hurrengo baten euren aldetik etorriko dira. Bada gure herria erakusteko modu bat ere, beraz.

ESANAK

"Ekarpen handia egin dezakete, baina ez daude behar beste baloratuta"

ADRIAN REINOSO | PARTAIDEA

ESANAK

"Gazte hauek egoiliarrekin egoteko duten jarrera nabarmenduko nuke"

ORBAIZ FORMOSO | PSIKOLOGOA

ESANAK

"Gu oso gustura egoten gara, eta eurak ere uste dut baietz; poza ematen digute"

INAZIO ARANTZABAL | EGOILIARRA

ESANAK

"Eurek ekarpen handiagoa egingo didate niri, nik eurei baino; jakintza iturri dira"

MARTA REIG | PARTAIDEA

ESANAK

"Egin nahi dut gazteago senti daitezen, eta bizi-poza handitu dakien ere bai"

JOANA MARTINEZ | PARTAIDEA

MIGUEL ALTUNA L.H.I.I
MATRIKULA: Uztailaren 11-tik 15-era.
Ordutegia:
 08:00-etatik - 14:30-era.
 15:30-etik - 18:30-era.
 (Ostiraletan goizez bakarrik).

ibargarai 1
 20570 Bergara
 943763840/943 762491

www.imaltuna.com
 imaltuna@saremail.com



Edurne Garitano, lehen saria jaso duen balkoian. | EDURNE GARITANO

Edurne Garitanorentzat lorez apaindutako balkoi eta leihoen lehiaketako lehen saria

JULEN IRIONDO | BERGARA

Angiozarko Euskitza Gainekoa etxeko Edurne Garitanorentzat izan da lorez apaindutako balkoi eta leihoen lehiaketako lehenengo saria -400 euro, herriko dendetan gastatzeko-. Bigarren saria -200 euro-, berriz, Aitzol Mujikarentzat izan da. 9,37 puntu lortu ditu irabazleak, eta 7,75 bigarrenak.

"Hiru balkoietan geranio frantsesak ditut, gorriak, hemezortzi

jardinera denera. Eta lorategian, berriz, denetik dut: hortentsiak, begoniak, alegriak, surfiniak...", zioen irabazleak.

Lehenengoz eman du izena lehiaketan Garitanok: "Ohitura dut beti loreak edukitzeko, asko gustatzen zait, eta aurten izena ematea pentsatu eta irabazi!".

Saria zertan gastatu arazorik izango ez duela dio; ohiko loradendan erosketaren batzuk egingo ditu, adibidez.

Permutaren aldaketarako tramitea, osoko bilkuran

J.I. | BERGARA

Hilaren 18an egingo da uztailako osoko bilkura, eta bertan onartuko du udalbatzak Elena Lete alkatea baimentzea Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko permutaren aldaketari dagokion hitzarmena sina dezan.

Diputatuen Kontseiluan hala onartuta, Markel Olanok sinatuko du hitzarmena Aldundiaren izenean, eta gauza bera egingo du UNEDeko ordezkariak. Aldaketarekin, horren ondorio den 1.107.043 euroko diru-laguntzarako hitzarmena izenpetuko dute Aldundiak eta Udalak. Sinadurok ez dute oraindik datarik.

Dirua Seminarioko areto-ko altzarietarako eta ekipamendurako, lanen proiektua idazteko eta obra zuzendari-tzako gastuetarako izango da.

NIRE USTEZ

JAIONE CARPINTERO



Zentzuzkoa?

San Fermin jaiak bete-betean ditugu. Hurrengo ostegunera arte luzatuko diren festak fenomeno kultural bilakatu dira. Munduko txoko guztietako jendea Iruñeko kaleetan pila-tzen da astebeteko giro paregabea, gutako askok bizi izan dugun bezala.

Baina kuriosoa egiten zait festa hauetako hitzordu garrantzitsuenetako bat, oraindik ere, arratsaldero egoten diren zezenketak izatea. Ohiturarengatik joaten ohi da jendea. Tradizioagatik. Urtean zehar ikusten ez duten jendea ikusteko momentua dela diote batzuek. Gehienetan zezen-plazaren erdigunean gertatzen denaz jabetu ere egiten ez direla diote. Erdigunera

bizkarra emanez esertzen direnak ere ikusten dira. Baina, hala ere, 50 euro inguru ordaintzen dituzte sarrera merke baten truke. Aukera merkexegoak bururatzen zaizkit niri gutxi ikusten ditudan lagunekin elkar-tzeko, baina tira.

Zezenketen kontra dagoen jendea ingurura gerturatu ere ez da egiten. Zentzuzkoa. Bitartean, zezenketen alde dagoen jendeak aspalditik izango ditu sarrerak erosita. Zentzuzkoa, baita ere. Ez nator bat pentsamendu honekin, baina ulertu nezake beraien postura.

Baina zer gertatzen da gainerako jende horrekin? Argi dago beraien barne gatazkek tradizioa ideologiaren gainetik jartzera daramatzatela. Zentzuzkoa?

"Ideologiaren gainetik jartzen dute tradizioa"

Kilometroak 2016 arte, ekintza ugari

J.I. | BERGARA

Aurkeztu dituzte urriaren 2ko festa bitartean herrian egingo dituzten ekintzak. Datorren egubakoitzean Demasa kriteriuma egingo dute, emakumeen txirrin-dulari lasterketa, 18:30ean. Abuztuaren 10eko Realaren eta Eibarren arteko futbol partiduaren ostean, berriz, hilaren 31n Bera Berak eta Zarautzek neurtuko dituzte indarrak -eskubaloia-Labegaraletan.

Irailaren 15etik aurrera Kultura Hamabostaldia egingo dute, Aranzadiren 45. urteurrena eta Kilometroak jaiaren 40. aldia dela eta; besteak beste, izango dira: Kilometroak bidea erakusketa Aroztegin, edizio guztietako argaz-

kiekin, leloekin, irudiekien...; ikastolan bertan, berriz, Juan Gorritiren erakusketa; hilaren 17an world kafe saioa egingo da Kilometroak bidea hausnarketa prozesuaren gainean; hilaren 20an, Atea Teatro konpainiaren Inklusioaz formatu txikian antzezlan Zabalotegin; eta 24an, Garden ikuskizuna Udal pilotalekuan.

Garden izenekoa Eñaut Elorrietaren eta Alos Quartet, Aukeran eta Oreka TX taldeen ikuskizun "berritzailea" da, musika eta dantza uztartzen dituen: "Estreinatu zenetik, oso gutxitan ikusteko aukera izan da orain arte, eta Bergara izango da plaza-tako bat". Sarrerak salgai datoren astean jarriko dituztela

jakinarazi dute antolakuntzatik.

Irailaren 15era arte egongo da, bestalde, Demasa lehiaketarako udako argazkiak bidaltzeko aukera -kmk16komunikazioa@bergara.ikastola.net, 615 75 77 87ra whatsapp-a edo #DemasaUdan Instagramen eta Twitterren-. Kilometroak 2016ren dendan gastatzeko 100 euro izango dira saria.

2.000 boluntario

Azkenik, urriaren 2an boluntario jarduteko dei ere egin dute antolakuntzatik; 2.000 lagun behar dituzte -gaur egun, 400 ari dira lan desberdinetan-. Herritar guztiei egiten diete dei: kmk16gb@bergara.ikastola.net-en eman daiteke izena.



MAITE TXINTXURRETA

Eraitsi dute Mugertzako etxea

Joan den astean eraikineko amiantozko plakak kentzen ibili ostean, martitzenean eta eguaztenean aritu ziren eraiste lanetan. Ikusmira sortu zuten lanok. Izan ere, etxe horrek San Lorentzo eta Zubiet kaleen arteko bidea estutzen zuen, eta behin eraitsita, pasabidea oinezko zein ibilgailuendako zabaltzeko lanak egingo dituzte.

San Martzialerako neurrien emaitzarekin "pozik" agertu da Udala

San Martzialgo erromeriaren ostean ingurua "inoiz baino garbiago" geratu dela-eta, "pozik" azaldu da Udala, ohar bidez adierazi dutenez. "Puntu jakin batzuk hondakinekin bukatu arren, Udalak emandako pausoa onuragarria izan dela esan dezakegu", dio Lander Arregik, Obra eta zerbitzuetako zinegotziak. Izan ere, neurri bereziak ezarri dituzte ingurua babesteko, edalontzi berrerabilgarriak eta hondakinak sailkatzeko poltsak banatuaz. "Eskerrik beroenak" eman nahi izan diete herritarrei. Hala ere, oraindik "gauzak hobetzeko" badaudela azpimarratu dute, eta "bide horretan lanean" jarraituko dutela.

Saguzar gaua eta bisita gidatuak Laboratoriumen

Gaur, egubakoitza, Saguzar gaua izango da Laboratorium museoan. 21:00etan hasita, bi zati izango ditu jarduerak: lehenengo adituen saguzarrei buruzko azalpenak jasoko dituzte parte hartzaileek, eta ondoren ibilalditxo egingo dute animalia horiek behatzeko eta saguzarrak detektatzeko tresnak nola erabiltzen diren ikasteko. Bestalde, bihar, 17:30ean, Loreak Asmatzen: naturzale europarrak Euskal Herrian erakusketaren gatzelerazko bisita gidatua izango da Maddi Mujika adituaren eskutik; domekan, berriz, euskaraz izango da bisita, 11:30ean. 45 minutu inguru iraungo dute bisitek.



Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskala aldatzea:

1.Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena (hirilurren tipo berriak)

Erabakia Udalbatza Osoak 2016ko ekainaren 27ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegunez jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedienteaz aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia jakinarazi zaio jendeari Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 1ean argitaratutako iragarkiaren bitartez eta 2016ko uztailaren 2tik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arazko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berriak hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2016ko uztailak 1
Alkatea



Olabarria, Narvaez, Bikuña eta Unamuno. | AMAIA TXINTXURRETA

Urretxindorrek | Musikari taldea

"Aitorren hizkuntz zaharra"-k sekulako fama ekarri zigun

Bihar, zapatua, jaialdi batekin omenaldia egingo diete Urretxindorrek talde ezaguneko kideei

A.T./M.T. | BERGARA

Taldearen sorreratik mende erdi pasa dela eta, jaialdi berezia izango da bihar 19:30etik aurrera Udal Pilotalekuan egingo dena. Herriko hainbat taldek hartuko dute parte, eta egun batez Urretxindorrek itzuliko dira agertoki gainera. Emanaldian, Xabier Olabarriak beteko du 2005ean zendu zen Raul Calvoren hutsunea.

Nola hartu duzue herriak zuei omenaldi bat egin nahi izatea?

Gotzon Bikuña: Harriduraz eta urduritasun handiz. Sorpresa handia izan da horrenbeste urte pasa eta gero jendea oraindik gutaz gogoratzea.

Urretxindorrek hasieratik egon da euskararekiko konpromisoarekin lotuta, baita ikastolekin ere.

Juan Mari Narvaez: Lehenengo aldiz egin genuen kantuan Bergaran antolatu zen ikastolen aldeko jaialdi batean. Benito Lertxundirekin eta Xabier Leterekin abestu genuen, besteak beste, eta oso ondo ateratu zen. Handik aste-

"Harriduraz eta urduritasunez hartu genuen omenaldiaren berri"

betera Oñatira joateko dei egin ziguten, eta horrela hasi ginen, poliki-poliki.

Zentsura ere pairatu zenuten.

G.B.: Garaiko abeslari guztiak genuen arazo bera. Kantaldi batean jo aurretik, kantu zerrenda bat bidali behar zen, eta poliziak bai-mena eman behar zuen. Gero, kantaldiaren egunean poliziak etortzen ziren eta esaten zuten: "Abestu behar dituzue lehenengoa eta bosgarrena", adibidez. Gainera, kontrolatzen egoten ziren. Zehatz-mehatz bete behar zen. Bizpahiru jaialditan kantu guztiak debekatu zizkiguten.

Pasadizo bat ere baduzue Aitorren hizkuntz zaharra kantuarekin, ezta?

J.M.N.: Guretako, abestirik onena zen, sekulako fama eman zigun. Gogoan dut Lekeitioko jaialdi batean jo genuela eta jendea berotu egin zela, eta denok ateratu ginen manifestazioan. Bestetik, esan ziguten kantu hori zela grabable pero no radiable; hau da, ezin zela irratian ipini.

Zuen ahotsak oso ezagunak dira jende askorentzat.

Julio Unamuno: Nik uste dut gure ahotsak dezente entzundakoak direla, eta jendeak buruan sartuta dituela. Ahotsa entzutearekin bakarrik identifikatzen gaituzte askok. **Raul Calvo gogoan izango duzue urteurren honetan?**

J.U.: Bai, noski. Bera izan zen piezarik onenetakoa gure artean. Musikak eta letrak egiten zituen, baita tokiaren araberrako moldaketak ere... Oso dinamikoa zen, pertsona ona, eta langile eta taldekide bezala ere oso ona zen.

Xabier [Olabarria], umetatik izan duzu Urretxindorrek-ekin lotura,

Bai, etxera etortzen ziren nire aitarekin [Dionisio Olabarria] entseguak egitera. Beti etxean ikusteaz gogoratzen naiz. Ordutik, beti izan ditut euren zintak eta diskoak etxean. Harreman estua izan dugu etxean beraiekin. Horregatik, niretako, plazer handia da beraiekin batera kantuan egin ahal izatea.

OHARRAK

KAFE KONPON

Uztailaren 13an, 16:00etan San Joxepeko erretiratuen etxean.

DOMÉKA AZOKA

Uztailak 10, 11:00-14:30, San Martin plaza. Bigarren esku-ko produktuak eta artisauak.

SAN KRISTOBAL JAIK

Gaur (22:00) pinu sartzea. Zapatu gauean Unsain anaien erromeria. Domekan, meza (11:00), bertsolariak, luntxa, herri kirolak eta trikitilariak.

SAN JOXEPE JOKOAK

San Joxepeko jokoetako txapeldunak: igela: Eusebio Mendizabal; toka: Florentino Garcia; boloak: Emilio Gutierrez.

SAN JOXEPE BIDAIA

Madril, Toledo, Cuenca eta Segoviara joango dira irailaren 19tik 26ra. Izena ematea San Joxepeko bulegoan. Azken eguna: uztailak 12.

Martxe Aranaren paisaia koloretsuak ikusgai Aroztegin

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Martxe Arana margolari aretxabaletarraren Paisaiak erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan.

Olio teknikaz margotutako paraje koloretsuak dira nagusi mostra honetan. Hilaren 24ra arte izango da erakusketa bisitatzeko aukera.



Bazter Arrosak. | MERTXE ARANA

Tabernetako erakusketak

Antxon Arrillagaren margoak ikusgai daude Nahikari tabernan; Hilario Azkargortaren argazkiak Pol-Polen; Guillermo Azkarate eta Agustin Amozarrainenak Hamaikan, Idoia

Elxpururen margoak Dixulan; Alfonso Romerarenak Raizabalen eta Josefe Diaz de Tuestaren argazkiak Artesanen.

Zinea aire librean izango da martitzenean eta 'Funes Van' antzerki ikuskizuna egunean

Kon-Tiki filma emango dute uztailaren 12an San Martin plazan, 22:15ean. Euskaraz izango da eta zazpi urtetik gorakoei zuzendua dago. Bestalde, egunean, hilak 14, Funes Troup antzerki taldearen *Funes Van* ikuskizun ibiltaria izango da. Hiru lagunek, euren karabanarekin, zirkuko espektakulu lotsagabea eskainiko dute.



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Miriam Moñux EIOrekin

Bergarako Musika Eskolako biolin ikasle Miriam Moñux Euskal Herriko ikasleen orkestrarekin izan da Vican eta Donostiako Victoria Eugeniaren. Euskal Herriko ikasleen orkestrak eta Kataluniako Gazte Orkestrak, batera, Berliozen *Sinfonia Fantastica* interpretatu dute, Juanjo Menaren zuzendaritzapean. Zuzendariaren eta musikarien arteko "konexio berezia" nabarmendu dute kontzertuan egondakoek.

Elgeta-Orissuain eta TCC-Ezdakiu, Udako Futbol Txapelketako finalerdiak gaur Ipintzako zelaian

Elgeta-Orissuain finalerdia 18:30ean eta TCC-Ezdakiu 19:45ean jokatu dira. Finala, hilaren 15ean, 19:45ean. Beteranoetan, finalerdiak hilaren 11n: Poteo Izarrak-Mongitxarrak eta The Purple-Txokokuak, biak 20:00etan. Finala, hilaren 14an, 19:45ean. Kopako finala, egun berean, 18:30ean: Minavo-Birgerias. Eta neskena, hilaren 15ean, 18:30ean: Kiussnes-Salabarduak.

Pol-Pol elkartearen batzar orokorra eguaztenean eta datozen irteerarako izena emateko aukera

19:30ean hasiko da batzarra, Irizar jauregian. Urteko kontuak eta ekintzak, 2017ko 75. urteurrena eta lokal berria izango dituzte hizpide. Estatutuetan aldaketa bat egitea ere aztertuko dute. Bestalde, hilaren 23tik 25era Belagua-Zuriza ingurura egingo duten irteerarako hilaren 18ra arte eman daiteke izena. Beteranoek, berriz, Iparraldera egingo dute irteera hilaren 17an.

Uda giroko kontzertuak kartzela zaharreko patioan

KOMUNITATEA GOIENA
BERGARAKO GAZTETXEA

Hainbat ekimen izango dira uztailean kartzela zaharreko patioan. Hala, martitzenean Ametsen liburuaren aurkezpena izan genuen.

Domekako kontzertuak

Domekan, uztailak 10, Telmo Trenor & Unai Pelayo "Pelax" eta Lumi ariko dira 19:00etan hasita.

Pop elektronikoa egiten duen bikotea da Lumi, Nahia Zubeldiak eta Manu Mathyssek osatua.

Telmo Trenor eta Unai Pelayo *Pelax*, berriz, txikitatik elkar ezagutzen duten bi musikari egitar dira. Telmo rapean eta musika elektronikoa ikusi izan dugu, eta Unai, ordea, rock eta folk doinueta. Fusioa izango da nagusi gaztetxeko kontzertuan.



Unai Pelayo Pelax Telmo Trenorrekin batera arituko da. | PELAX

Nagusien danborradaren antolakuntza, aztergai

- Lan dinamika taldeetan barneratzea da sistema berriaren helburuetako bat
- Aurtengoa antolatzeko hurrengo bilera martitzenean izango da

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Duela hiru urte nagusien danborrada bertan behera geratzeko egon zen arriskua ez errepikatzeke lanean hasi dira udal ordezkariak. Aurtengoa antolatzeko lehen bilera egin dute, astean, danborradan parte hartu gura

dutenekin. Han erabaki zuten lanak banatu egingo dituztela konpainien artean. Danborrada antolatzeko beste sistema bat ezartzeko aukera aztertzea ere adostu zuten. "Tope bat jotzen du orain arteko moduak, beti jende berdina egonda eta alarma egoeran lan

egitea ez da osasuntsua eta sistema aldatzea proposatu da; bileran egon garenok ondo ikusi dugu. Horrela, ea lortzen den dinamika taldeetan barneratzea, transmisioa eta danborradan irten gura dutenen inplikazioa eta konpromisoa", azaldu du Nerea Zubiak, kultura zinegotziak.

Aurtengoari begira egin beharreko lanen zerrenda egin zuten eta datorren asterako beste bilera bat deitu zuten, lanak banatzeko. Bilera hori martitzenean izango da, uztailak 12, kultura etxean, 18:30ean.

Umeen danborradarako izen-ematea ere zabalik dago, kultura etxean, abuztuaren 31ra arte; irailaren 1ean hasiko dituzte entseguak. Jaien egitarauaren azal lehiaketarako lanak, berriz, uztailaren 15a aurretik entregatu behar dira eta 21etik aurrera ikusgai egongo dira, herritarrek gustukoena aukera dezaten. "Uztaila bukatu orduko ia dena lotuta egongo da irailean lan operati-boekin hasteko", dio Zubiak.



Ibilgailuak aparkatuta Portu kalean. | O.E.

Udazkenerako arautu gura dituzte erdiguneko aparkalekuak

O.E. | OÑATI

Denbora mugatua izango duten aparkalekuak herriguneko hainbat kaletan egongo dira, tartean Kale Barriar, Atzeko kalean eta Portu kalean. Gunearen arabera, gehienezko denbora mugatuko egutegi eta ordutegiak izango dira eta gune horietako bizilagunek txartel bereziak izango dituzte. Ekaineko osoko bilkuran behin-behinekoz onartu zen ordenantza hori, EH Bilduren aldeko botorekin. EAJk kontra bozkatu zuen.

Araututako gune horietan aparkatzeagatik ez da ordaindu behar, baina, gehienezko denbora gaitzen ez dela jakite-

ko, papera jarri behar da ibilgailuan. "Errotazioko lau gune egongo dira, eta bi bizilagunendako plazekin. Dena zehaztuta dago, makinak esleitzeta eta guneak margotzea falta da, eta irailerako prest egotea da asmoa", azaldu du Irati Etxeberria zinegotziak. Alderdi jeltzaleak ez du gogoko egitasmoa. "Atzeko kaleko eta Kale Barriko bizilagunendako ez da erreserbarik egin eta Portu kalean, udaletxe ostean eta Motxon kalean ordubetez aparkatu ahal izango da bakarrik", esan zuen Lourdes Idoiak. Ordenantza hobeto aztertzea eskatu dute jeltzaleek.



Bost ordezkari joan ziren martitzenean egindako bilerara. | MIREIA BIKUÑA

Jaietan Gatibu eta Ze Esatek taldeak gura dituzte gazteek

O.E. | OÑATI

Herriko jaietan Kuadrillen Eguna antolatzea eta Gatibu eta Ze Esatek moduko taldeak ekartzea eskatu dute, besteak beste, 12 eta 16 urte arteko neska-mutikoek. Arazerixan egitasmoaren barruan landu dituzte eskaerak, eta uztailaren 1ean aurkeztu zituzten osoko bilkuren aretoan Udal Gobernuak hainbat kideren aurrean; besteak beste, Nerea Zubia, Kepa Zelaia eta Rafael Kortabarria.

Arloka egin zituzten eskaerak gazteek. Adibidez, Euskara eta Hezkuntza sailari eskatu diote Kilometroak jaia ondo

antolatzeko; kirolekoari, kanpoko igerilekua egiteko; eta ingurumen sailari, bizikletak aparkatzeko lekua. Horiez gain, partiduen ordutegiak aldatzea ere eskatu zuten, eskasak neskek izaten dituztelako beti; eskiatzera eta Port Adventurara joateko irteerak antolatzeko, herri busa jartzea eta udaltzainak bulegoan egotea ere eskatu zuten.

Datorren urteko aurrekontuak lantzeko, 3 eta 16 urte arteko gazteen eskaerak jaso gura izan ditu Udal Gobernuak eta jasotako guztiak aztertuko ditu orain.



Bujanda, Forrest, Etxeberria eta Zurutuza, San Martingo ortuetan. | E.A.

Okitaño elkarteak autokudeaketa maila handiagoa izango du

O.E. | OÑATI

Okitaño (San Martin auzoan dauden aisiadiko ortuen erabiltzaileen elkarte) sortu zenean, ortuek autokudeaketarantzko bidea hartu behar zutela hitzartu zuten elkarteak eta Oñatiko Udalak. Hasieran, udalaren esku zeuden ortu hauek, baina duela hilabete inguru ezker, erabiltzaileek kudeatzen dute zati handi bat. Oñatiko Udalak gastu handiei bakarrik egingo die aurre eta argia eta ura bezalako gastuak erabiltzaileen esku geldituko dira. Horrez gain, ortua eduki nahi duen eskatzaileak elkartearengana joan behar du zuzenean eta honek batzordeari egingo dio

proposamena, hark onartu dezan. Erabiltzaile bakoitzak udalari ordaintzen zion kuota Okitaño elkarteari ordaintzen dio egun, eta udalari bost euro eman behar dizkio erabiltzaile bakoitzak urtero. Irati Etxeberria zinegotziak dio "garapen komunitarioko adibide garbia" dela hau, "autokudeaketa sustatzen duena eta, era berean, hestizalea dena".

74

Gaur egun 74 ortu daude San Martinen eta lau geratzen dira libre. Hala ere, datozen egunetan bi ortu hartuko dituzte eta beste bi bakarrik geldituko dira erabiltzaile berrientzat.

Aitzulo eta Urbia ere udako turismo eskaintzan

O.E. | OÑATI

Oñatiko Turismo Bulegoak eta Arrikruz Kobak, ohiko bisiten ordutegia zabaltzeaz gain, bisita eta irteera bereziak ere antolatu dituzte aurtengo udarako. Esaterako, herriko ondare geologikoa ezagutzeko hiru ibilbide gidatu egingo dituzte: Arrikruzeko kobak, Aitzulo eta Urbiko parajeetako balio geologikoa gertutik ezagutzeko irteerak izango dira. Kobetako uztailaren 17an egingo dute, Aitzulokoa abuztuaren 14an eta Urbikoa irailaren 24an. Txikiendako ere egingo dituzte koba barruko eremuak ikusteko planak. Uztailean zein abuztuan egongo da aukera espeleotxiki abentura ekin-tzaren batean parte hartzeko. Edozein irteera edo bisitatan parte hartzeko, baina, izena eman behar da aurrez. Horretarako bideak dira: 943 08 20 00 eta arrikruz@onati.eus.

Turismo Bulegoak antolatuta, bestalde, herrigunea ezagutzeko bisita gidatu bereziak egingo dira uztailean eta abuztuan.



Osoko bilkuren aretoan egin dituzte euren eskaerak gazteek. | IMANOL SORIANO

Uztailaren 14tik 17ra izango da aurtengo Garagardo Azoka

Hamargarren edizioa izango da; hori dela eta, pitxer bereziak egingo dituzte

ENKO AZURMENDI | OÑATI

Aurten hamar urte beteko ditu Aloña Mendik antolatzen duen Garagardo Azokak. Uztailaren 14an emango zaio irekiera eta uztailaren 17ra arte egongo da zabalik. Eskubaloi sailak zabalduko du azoka, eta saskibaloi sailak itxi. Urteurrena dela eta, elkarreko intsignia duen pitxer bereziak egingo dira. "Urtero moduan, nahi duenak etxera eraman ahal izango du pitxerra, eta bestela, bertan

utzi. Lau euro balioko du, eta, itzuliz gero, lau euro horiek bueltatuko zaizkio kontsumitzaileari", dio Anton Inzak, Aloña Mendiko presidentek.

Hamar garagardo desberdin egongo dira eta urteroko menua izango da, ukondoa, saltxitxak edota oilaskoa.

Elkarteko hamar bat sail ari tuko dira lanean lau egunetan. Aurten, futbol sailak ez du lan egingo.

Diruari dagokionez, Inzak adierazi du azkenaldian ez duela "askorik" ematen eta azokaren beraren gastuak ordaintzeko erabiltzen dela bertatik ateratakoa.

Emanaldiak

Uztailaren 15ean, egubakoitza, *Europa bat-batean* nazioarteko kantu inprobisatu emanaldia izango da karpan eta uztailaren 16an, berriz, herriko gaztetxoendako bakarriketa.



Garagardo azoka, iaz. | OIHANA ELORTZA



Elkar Heziko haurrak, pailazo-sudurrekin. | GOIENA

Motxila solidarioak batuko ditu Hotz Oñatik, irailean bidaltzeko

Haur errefuxiatuei laguntza ematea eta hemengo haurren enpatia sortzea dira helburuak

E.A. | OÑATI

Irrifuxiatuak izeneko kanpaina jarri du abian Hotz Oñati taldeak, helburu bikoitzarekin: alde batetik, haur errefuxiatuei laguntza ematea; eta bestetik, hemengo haurren errefuxiatuen egoera larriarekiko enpatia sortzea.

Herriko haur guztiei kanpaina honetan parte hartzeko aukera eman nahi die Hotz Oñatik. Horretarako, ikastetxe guztietan Siriako gatazkari buruzko informazioa eman du eta ikastetxe bakoitzak 200 pailazo-sudur erosi ditu, *Refugiados x Narices* proiektuari laguntzeko.

Bestalde, datorren ikasturteari begira, errefuxiatuendako izango diren motxilak batu nahi ditu Oñatiko taldeak, *Motxila Solidarioa* ekimenaren bitartez. Ekimen honen helburua hauxe da: hemengo ikasle bakoitzak

etxean daukan motxila bat prestatzea, barruan eskolako materiala, argazkiren bat edota opariren bat gehituta, ondoren haur errefuxiatuei bidali ahal izateko. "Esan digute datorren urtean ikasturtea hasiko dutela ume hauek. Hala ere, material falta dute. Horregatik egingo dugu bilketa hau", dio Ana Mendizabalek, Hotz Oñatiko kideak.

'Himaya' proiektuarekin bat

Bakarrik bizi eta seme-alabak dituzten emakumeei, haurdun daudenei, gaixoei, adinduei eta beste egoera batzuetan dauden errefuxiatuei etxebizitzak alokatzen laguntzeko, *Himaya* proiektuarekin bat egin du Oñatiko taldeak. "Pertsona bakoitzak hilabetean euro bat jarrita, pisuak alokatzen ditugu", azaldu du Mendizabalek.

NIRE USTEZ

GORETTI
MADINA



Espirituala bai, eta modernoa!

Oraingo denbora gutxi egunkarian irakurritu eta estimatua dudana lagun batek jakinarazi zidan estekan gehiago informata jakin izan dut, Agora Elkarreko irailetik aurrera Arantzazun antolatu duen ikastaro baten berri: *Espiritualtasuna XXI, oinarriak, loturak eta galderak*.

Kristautasunean oinarrituta jaso dut biziaren iturriaren, zentzuaren eta noranzkoaren galderen erantzuna, hausnarketak sakonenean ulertuta. Ildo horretatik hezia izan naiz, etxean, eskolan... Hautu hori egin dugu ere, kontzienteki, alaben heziketarako. Esan beharrik ez dago ez daukadala sinesmen itsurik, ezta ere erantzunik gabeko galderarik, ez eta bilakaeran jarrai-

tzeko premiarik... Ez, noski! Formakuntza egarria sentitzen dut, beste arlo batzuetan bezala!

Kontatu nahi dut barneko-tasuna lantzeko joerak mugitzen ari diren testigu izan naizela. Ikastaroan, irrikaz, barru bilakaerak bultzatuta, eman dut izena. Eta hara hor nire sorpresa: jende askok eman du izena eta ondorioz, ez dakit ziur ikastaroa egiteko aukera izango dudana, ikasle kopurua mugatua baita.

Bost axola moda kontuak barruari erreparatu diogunean, baina era modernoa espiritualtasunari lekua egiten ari zaio. Arantzazun izango diren gogoe-tak, eraberrituko dute, beti bizi iraun duten auzi existentzialei loturiko galderak... Erakargarria da oso eta gaur eguneko, modernoa!

"Era modernoa espiritualtasunari lekua egiten ari zaio"

Trianako jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan

E.A. | OÑATI

Gaur hasiko dituzte jaiak, etxafuego jaurtiketarekin, 18:45ean. Ondoren, Astotrostoaren jaitsiera izango da, eta, hori bukatzean, txorimalo eta erraldoiak irtengo dira kalera. 20:00etan, pintxo-potea egongo da txosnagunean eta gauean kontzertuak: Liher, Ezustean eta Brigada Inproductiva-atxosenaldian, Air Guitar lehia-keta-.

Bihar, zapatua, umeendako marrazki saioa egongo da, 11:30ean. Arratsaldean, ilinti kafea egongo da, 15:00etan. Ondoren, mus txapelketa, jolasak-Oinaztu taldearen eskutik- eta txorimalo eta erraldoiak egongo dira. 20:30ean, Gaitzerdi eta Trikidantz taldeen erromeria hasiko da eta atxosenaldia irrintzi txapelketa egiteko baliatuko dute. Gaueko ordu txikietan *txupiteixia* eta txokolate-jana egongo dira.

Domekan, diana, auzoko hildakoen omenezko meza, auzo bazkaria, jolasak eta Xolonporen omenezko jaialditxoak izango dira.

Oñatiko gidariak eta mekanikariak San Kristobal eguna ospatuko dute uztailaren 10ean

Urtero bezala, euren zaindariaren eguna ospatuko dute Oñatiko gidariak eta mekanikariak. Ohiturari jarraituz, Olabarieta auzoan dagoen santua auto batean jaitsiko dute parrokiara, prozesio batean, atzetik lorez apaindutako beste hainbat autoz lagundurik. Meza amaitzean, ibilgailuen bedeinkazioa egingo du apaizak eta ondoren bazkaria izango dute, Etxe Aundi jatetxean.

Lekord taldeak ikuskizuna eskainiko du uztailaren 13an, Lazarragako lorategian

Kalean egitasmoaren barruko emanaldia izango da talde donostiarrena, *Eskutik Sokak* izenekoak. Lekord taldea bi musikaririk-Iñaki Letamendia eta Ane Artetxe- eta bi antzezlek-Amaia Ruiz eta Amaia Irazabal-osatzen dute. Ikus-entzuleak bidaia poetiko-musikal batera gonbidatzen dituzte, harparekin, perkusio instrumentuekin eta hizkuntza dramatiko baten bitartez. Eguraldi txarra egiten badu, Santa Ana antzokian izango da.

Zirku tailerrak, mendi ibilaldiak eta beste hainbat ekintza izango dira Gaztetxean uztailaren zehar

Hileko astelehenak gaztetxean eta inguruetan hainbat txoko txukundu eta gaztetxean bertan hobekuntzak egiteko aprobeztatu dituzte. Beste urte batzuetan bezala, asteartean zirku tailerra egingo dute, 19:00etatik aurrera. Uztailaren 20an zine emanaldia egongo da. Uztailaren 14an, berriz, Araban mendi ibilaldia egingo dute, 08:00etan irtenda. Azkenik, uztailaren 21ean, ogia egiteko tailerra egingo da, arratsaldean.



Gaztetxoak Herriko Plazako iturriko ura edaten. | MAIDER ARREGI

Uraren faktura erroldaren arabera ordainduko da

38.700 euroko aurrekontua dute herriko jaiek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin Antzuolako Udalak duen hitzarmena aho batez onartu zuten martitzeneko ohiko osoko bilkuran. Beñardo Kortabarria alkateak azaldu zuen hamar urtetik behin berritzea tokatzen

den kontratua dela. Eta martitzenean, berritzea onartu zuten denek. Uraren Kudeaketari dagokionez, beste aldaketa bat ere aho batez onartu zuten. Aurrerantzean, antzuolarrek egiten duten ur kontsumoagatik ordainduko dute; hau da, erroldaren

araberako fakturazioa aplikatuko zaie eta. "Uste dugu justuagoa dela erroldaren arabeko ur-fakturazioa egitea. Izan ere, ez da berdina hiru lagun bizi diren etxe batean 30 m³ gastatzea edo lagun bakar bat bizi den etxe batean 30 m³ gastatzea. Kasu honetan, bakarrik bizi denak gehiago ordaindu beharko du", argitu du alkateak.

Jaien atarian

Uztaileko ohiko osoko batzarrean herriko jaiak ere presente egon ziren. Alkateak argitu zuen onartuta zegoen aurrekontuko 39.000 euroetatik 38.700 euro gastatuko dutela: "29.000 euro ekintzetara bideratuko ditugu; gainontzekoa azpiegitura eta zerbitzuetara".

Nobedadeekin datoz aurtengo jaiak. Hala, kuadrillen arteko herri kirolak egingo dira lehenengoz. Gainera, Joselu Anaiak talde mitikoaren ordez, flamenko eta txalaparta ikuskizun bat eskainiko da plazan. "Jai batzordean herritarrek hartutako erabakiak dira. Esan behar da batzar horietara ez dela jende askorik azaldu".

Aurten, gainera, jaietako hasiera bi herritarrek emango diete etxafuegoa botata eta ikurrina igota udaletxeko balkoitik.

Ormazabal: "90 ekarpen batzen ditu 2025erako EAJren plan estrategikoak"

Herritar orori irekia dagoen txosten elebiduna 'www.eajpnvantzuola.eus' webgunean dago

M.A. | ANTZUOLA

EAJk 2025. urtera bitarteko plan estrategikoa egin du. Antzuolako eraldaketa orain hogeitaz hamar urte hasi zela dio EAJko bozeramaile Babilio Ormazabalek. Baina, zorpetze mailak eta orain krisiak eraginda, eraldaketa hori gelditu dagoela dio. "Hemendik 10-15 urtera nolako Antzuola gura dugun hausnartu gura genuela adierazi genion alkateari aurrekontuak aurkeztu zituen osoko bilkuran. Gure asmoa zela plan estrategikoa integratu, osoa, egitea. Eta hala egin dugu. 90 ekarpen jaso ditugu", dio Ormazabalek. "Herrian eragile diren herritarrekin batu gara eta euren ekarpenak ere gehituko dizkiogu".

Herriko hainbat arlotako indarguneak eta ahulguneak identifikatu dituzte: kultura, hezkuntza, aisialdia, euskara, gazteria, ingurumena, industria, ongizatea, lehen sektorea... tartean, etxebizitza hutsen arazoa azpimarratu dute. "Gaur egun erdigunean etxebizitza huts asko daude, gazteek nahiago dute etxe berria erosi. Horregatik, erdigune historikoko etxebizitzak zaharberritzeko plana egitea proposatzen dugu".

Ekarpenak

EAJren plan estrategikoa industria herrian geratzearen aldeko apustua egiten du. "Industrialde bat izateak enpresak herrian geratzea ekarriko du lanpostuak bermatuz. Herrian lau enpresa indartsu daude eta Antzuolan geratu behar direla uste dugu".

Hondakinen kudeaketa berriro aztertu behar dela ere jaso dute: "Herritarrek ikasi dute hondakinen sailkapena egiten eta orain galdetu behar zaie ea atez atekoarekin jarraitu gura


duten. Defizitarioa izaten jarraitzen du eta".

Narruola egitasmoak aurrera egitea ere proposatzen dute. "Garai batean lau larru fabrika zeuden Antzuolan; bertako historia kontatu beharra dago ez dadin galdu. Herrira bisitan etortzen direnei esaterako; baina baita ere historia jakin gura duten antzuolarrei".

Desadostasuna

EAJk txostena aurrez argitaratu izanarekin ez da Beñardo Kortabarria alkatea ados azaldu: "Guk lau urterako gure plan estrategikoa eginda daukagu herritarrekin. Baina, elkarrekin egiteko baiezkotza eman genuenean, herritar guztiekin egindakoa eta hausnartutakoa izatea gura genuen. Eta ez gurea edo EAJrena aurkeztea aurrez; parte-hartze prozesuan egin gura genuen; hala ulertu dugu".

EAJko Ormazabal bozeramaileak argitu gura izan du: "Guk alkateari adierazi genion elkarrekin egitea nahi genuela eta onartu zuten eta uste genuen gaurtik aurrera hasetea. Baina, mezua bidali zuen esanez bilera horiek atzeratzeko; izan ere, eurek ere lanketa bat egitea nahi zutelako. Lan hau egin dugu eta nahi izan dugu herriaren aurrean aurkeztea".



Babilio Ormazabal. | MAIDER ARREGI

AKEk urteko batzar nagusia egingo du gaur

M.A. | ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, 18:30ean egingo du, Olaranen, Antzuolako Kirol Elkartek batzar nagusia. Hiru batzordekide berri aukeratuko dituzte. Urteko balorazioa eta kontu ekonomikoaren berri ere emango dute. "Aurten 146 jokalarik eta bost talde izan ditugu: lau mutilenak eta bat neskena.

Denboraldi berrian, ordea, saiatu garen arren, ezinezkoa izango da nesken taldea edukitzea", argitu du Mikel Kerexeta presidentek.

Lapurreta ugari

2016an bost lapurreta jasan dituztela azpimarratu dute: "Kalte ekonomiko handiak eragin dizkigute lapurretek; ondorioz, des-

fibriladore berria erosi behar izan dugu (3.000 euro)".

Hastapeneko futbol eskola

Lehenengoz, hastapeneko futbol eskola izango da Antzuolako Ezta-la zelaian. "Alebin eta benjamin mailetak 50-60 neska-mutiko batzea gura dugun futbol eskola sortu nahi dugu", argitu du.



helburu
zure hezkuntza akademia

656 76 17 54
Kalebarren 1 • Antzuola
helburuakademia@hotmail.com

Ondo pasau jaietan!



Tara natur denda
Herriko Plaza, 4
Ondo ibili jaietan!
943055889
677986106
taranaturdenda@gmail.com



ABAD
DEKORAZIOA
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
Ondo pasau jaietan!

Errekalde 6. Antzuola • 943 76 60 19 • 637 55 14 46 • 637 55 14 47



**DESKARGA
AUTOAK**

*Jai zoriontsuak
antzuolar guztioi!*

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tel.: 943 76 62 75

Itzar

**LIBURU DENDA
ESTANKOA**

JAI ZORIONTSUAK!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxe: 943 76 60 62

ANTZUOLAKO JAIAK 2016

Egitaraua

Mairuaren alardea

Berritasunak

Txosnetako eskaintza

Larrain dantza

Banderaren igoera

Gastronomia lehiaketa

Umeentzako eskaintza



AITOR AGIRIANO



ALKATEAREN AGURRA

BEÑARDO KORTABARRIA

Antzuolako alkatea



Urtariletik hasi eta gaur arte hamar bilera-deialdi egin ditugu jaiak antolatuzeko.

Eta erdia, gutxi gorabehera, bertan behera geratu dira inor agertu ez delako; beste erdian, berriz, ohiko eta beharrezko lau katuak izan ditugu lagun. Bertold Brecht-en arabera, "ezinbesteko diren horiek". Ezer baino lehen, eskerrik asko horiei!

Hala eta guztiz ere, ilusioz prestatu dugu egitaraua. Aldaketa txiki batzuk nabaritutako dituzue: Juanluren kuadrilla ez da etorriko osteguneko afaria, Joselu eta bere anaiak ere ez zapatu gauean, zezentxoak kuadrillen arteko jokoengatik aldatu ditugu... eta jaiak hasiera ematen dion ikurrina jasotzea eta etxalferoa jaurtitzea ez ditut nik egingo. Balkoian, behintzat, parte hartzea igerriko da.

Eta zuri ere, herritar, horixe desio dizut: zabalten ari den ñoñostiar voyeur mozorroa ken dezazula eta buelta zaitzela antzuolar jator eta herriaren aldeko doako langile izatera. Seguru La Manchako lautadan preso dagoen bizardunak ez duela horrelako metamorfosirik izan!

Kalera irten, parte hartu eta ondo pasatzen saiatu. Lau egun dira eta!

OHARRA: Antzuolako jaiak 2016ko antolatzaileak eta parte hartzaileak: abesbatza, AKE, Antzuolako udala, Eperra, Ez dot moztuko bizarra, Gaztetxea, Landatxope jubilatuko elkarte, kintoak, Mairuaren Alardearen kultur elkarte, Oinarin, Olalde pilota saila, Pausoka, Peñia Aiaztei txirindulari elkarte, txistulariak, txosna batzordea eta herritar ugari. Eskerrik asko denoi, baita jaietan lan egingo duzen guztioi ere!

DOMEKA

17

09:30 TXIRRINDULARI LASTERKETA. LXXI. Antzuola saria. Iñaki Lete XXIV. Oroigarria.

14:00 JUBILATUEN BAZKARIA Herri ikastetxean. Ondoren dantzaldia.

EGUENA

14

12:30 Jai hasiera. UMEEN IKUSKIZUNA, plazan.

13:30 UMEEN HERRI BAZKARIA, Pausokaren eskutik.

18:00 Txistulari, trikitilari eta buruhandiek KALEJIRA.

18:30 TXOSNAK ZABALTZEA azeitunaren jaitzierekin.

19:00 MEZA eta salbea.

19:45 ANTZUOLAKO ZAPIA JARTZEA 2015eko jaietatik 2016ko jaiak bitartean jaiotako umeei eta herriko bi nagusienek.

20:00 IKURRIN DANTZA. Aurten dantzan hasi diren lehen saioa.

►Antzuolako BANDERA eta IKURRINA JASOTZEA. Udalbatzaren AURRESKUA.

22:00 Kuxkuxtu taldearekin KANTU AFARIA plazan.

23:50 Mahai eta aulkiak JASOTZEA.

00:00 HONTZAREN JAITSIERA.

►Ondoren, 01:30ak arte KALEJIRA Kuxkuxtu taldearekin.

02:30 Gautxori JOLASAK, txosnetan.

ANTZUOLAKO JAIEN EGITARAUA



HERRI BAZKARIA | DOMEKA | ELIZAKO ARKUPEETAN | 14:30 Ez dot moztuko bizarrak antolatutako bazkaria egingo dute, urtero legez, eta baita ere egubakoitzeko herri bazkaria, kasu horretan, Kalebarrenen.

EGUBAKOITZA

15

10:00 Txistulari taldearekin GOIZERESIA.

10:30 Txanpinoiak saltsan LEHIAKETA.

11:30-13:30 Umeen JOLAS PARKEA patioan.

12:00 MEZA nagusia.

12:45 Lore lehiaketako IRABAZLE AUKERAKETA.

13:00 Lore lehiaketako, lepoko zapiaren diseinu lehiaketako eta gastronomia lehiaketako SARI BANAKETA.

13:15 Txanpinoi DASTAKETA.

14:30 HERRI BAZKARIA Kalebarrenen.

16:30-18:30 JOLAS PARKEA, patioan.

18:30 Koadrilen arteko JOKOAK herrian.

►Irulitza TXARANGA.

22:30 PILOTA PARTIDAK: Gazteak: Uribe-Eulate vs Biain-Balardi

Profesionalak: Jaunarena-Irusta vs Mendizabal-Tolosa.

Sarrerak: behean 10 euro. Goian 5 euro. Olalde OROIGARRIA emango dio Aitor Mendizabali.

23:00 ASEA ETA JOXPA, txosnetan.

23:00 BERRIKETAN, flamenkoa eta txalapartaren arteko fusioa, Plazan.

ZAPATUA

16

9:55 KANOIAK SUTZEA.

10:00 Txistulari taldearekin GOIZERESIA.

11:30 Bergarako bandaren KALEJIRA.

12:00 MARRAZKI LEHIAKETA Plazan, Xinkonaren eskutik.

12:30 Bergarako bandaren KONTZERTUA, A. Glz. Chirlaqueren zuzendaritzapean. Zurrategin.

19:00 MAIRUAREN ALARDEA. Desfilea herrian; ekitaldi plazan.

20:30 R ke R ELEKTROTARANGA herriko kaleetan zehar.

22:00 ZEZENSUZKOA, plazan.

22:30 OBANEUKE, plazan.

23:00 KONTZERTUAK txosnetan Skasti, Huntza eta DJak,

DOMEKA

17

12:00 SALDA ETA TXORIXOA, plazan, Jubilatuen eskutik.

12:30 Plazera irratia IKUSKIZUNA, plazan.

14:30 HERRI BAZKARIA, Ez dot moztuko bizarrak antolatuta.

16:30 KANTALDIA, plazan.

18:30 BOLATOKIAREN INAUGURAZIOA: bola jokoak.

20:00 LARRAIN DANTZA Oinarin dantza taldearekin.

20:30 PINTXO DASTAKETA, AKEren eskutik.

20:45-22:00 eta 23:00-00:00 eta 00:15-01:00 FAN&GO taldearekin erromeria, plazan

00:00 HONTZAREN IGOERA.

MUJIKA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434



HARATEGIA

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorak

Jai Zoriontsuak!

Aixa

frutategia

Buztinzuri 6 behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69



JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!



Herri zahar andre berri ikuskizunak hausnarketarako gonbidapena egingo du. | DSS2016

Emakumeak eta tokiko tradizioa ardatz hartuta

Donostia 2016k antolatutako 'Herri zahar andre berri' ekimenak irrati-antzerki saio performatiboa egingo du gai horren gainean sakontzeko

XABI GOROSTIDI | ANTZUOLA

Zein da emakumeek euskal gizarteko ekintza kulturaletan izan duten rola? Zertan hobetu dugu? Zer dugu oraindik egiteko? Galdera horien inguruan hausnartzearen beharraz jabetuta, Donostia 2016tik *Herri zahar andre berri* ekimena jarri zuten martxan.

Miarritzeko hazia

Apirilaren 1etik 3ra, kultur elkarreetan, elkarte feministetan, alor akademikoan eta tokiko admi-

nistrazio publikoetan lan egiten duten 30 kide batu ziren Miarritzeko gazte-aterpetxean. Talde-identitatea eta komunitate-izaera sortzen dituzten eta gizartean erabat errotuta dauden kultur praktikak aztertu zituzten, hala nola alardeak, bertsolaritza, musika, dantza, antzerkia, desfileak eta danborradak.

Hausnarketa prozesuaren helburua garbia zen: emakumeek parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmen handiagoa izango duten

etorkizun kolektiboa marraztea, eta hura lortzeko berme sozialak eskaintzea.

Antzuolako esperientzia

Bada, azpimarratu behar da han izan zirela Antzuolako Mairuaren Alardeko ordezkariak. Emakumeen parte hartzea bermatu eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren erakusgarri den ikuskizuna da, eta euren esperientziaren berri eman zieten Miarritzen batutakoei.

Hiru eguneko saioaren ostean, bertan landutako eta ondorioztatuko gaiei buruzko sintesi-dokumentu bat egin zuten. Horretaz gain, gogoeta kolektiboan lortutako ondorioetan oinarritutako proposamen eszeniko bat sortzea pentsatu zuten. "Sintesi-dokumentuak astunegiak izan daitezke, eta ez dira erakargarriak izaten publikoarentzat. Hori dela eta, bertan landutako ondorioak era zuzenago eta freskoagoan helarazteko irrati-antzerki saio performatiboa sortzea pentsatu genuen", adierazi du Iñigo Cantero antolatzaileak.

Estreinaldia Antzuolan

Miarritzeko gazte-aterpetxeko jardunaldietan, performancearen estreinaldia Antzuolan egitea adostu zuten. Arrazoi nagusia Antzuolako Mairuen Alardearen eredugarritasuna goraiatzea izan da. Izan ere, era honetako gaiek komunikabideetan izaten duten oihartzuna ez da positiboa izaten. Irun edo Hondarribiko alardeak diren horren erakuslerik garbienak. Urtero komunikabideetako lehen lerroan azaltzen dira, berdintasuna sustatu nahiak eragiten duen ika-mika eta lis-karrak azaltzeko. "Estreinaldia Antzuolan egitean, eredu ez gatazkatsu eta normalizatu baten gainean jarri nahi izan dugu fokua", azaldu du Canterok.

Ekintza publikoa izango da, baina zuzeneko emankizuna egingo dute, bertatik bertara ikusi ezin dezaketenez. Ordu pasatxo iraungo duen saioan, iraganetik, gaur egunetik eta etorkizunetik ibilbidea egingo da, umore giroan eta ondo pasatzeko helburuarekin. "Kalean egindako irratsaio moduko bat izango da, partaide ezberdinekin, non gai konkretu batzuk antzerki bidez landuko diren".



XABIER LEGORBURU
ALARDEAREN ANTOLATZAILEA

"Ikastetxetan eredu positibo bezala lantzen gaituzte"

Mairuaren Alardea ate-joka dago eta aurtengo edizioari buruz galdetu diogu Xabier Legorburu antolatzaileari.

Parte hartze aldetik nola aurkezten da aurtengo Mairuen Alardea?

Akaso, partaideren bat gehiago gorabehera, baina iazkoarekin alderatuta nahiko berdintsu.

Lortu al duzue aurten jende gaztea erakartzea?

Batzuek alardea uzten dute adinaren poderioz, eta gazteagoek ordezkaten dituzte. Hala ere, alardea herritarrei zabaltzen jarraitzen dugu, antzuolartasunaren adierazle bezala senti dezaten. Herritar guztiei zabaltzea nahi diegu, baina, batez ere, gazteenei, eurak izango baitira etorkizuneko alardea bizirik mantendu beharko dutenak.

Zein ekintza egin dituzue alardea Antzuolako mugetatik harago ezagutarazteko?

Alardea kanpoan ezagutarazteko, kanpoko gonbidapenak onartu ditugu. Miarritzen izan ginen, genero berdintasunaren eta alardearen erlazioa azaltzeko. Aipagarria da ere ikastetxetan gure eredu nola lantzen den. Kultur transmisioan eta genero berdintasunaren eredugarria den adibide bezala jorratzen dute.



ERREKA

Erreka taldea
Ibarreta auzoa z/g
20577 Antzuola. Gipuzkoa
T. (+34) 943 78 60 09
F. (+34) 943 78 71 79
E. info@erreka.com



FINKAPEN SOLUZIOAK

PLASTIKOAK

AUTOMATISMOAK

ATE AUTOMATIKOAK

**DIBERTSIFIKAZIOA
ETA PERTSONEKIKO
KONPROMISOA
DIRA GURE
ETORKIZUNeko BERMEA**

www.erreka.com



Ondarre, 9 ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 45
Faxa: 943 78 71 16
garitanocb@euskalnet.net

**JAI
ZORIONTSUAK
ANTZUOLAR
GUZTIOI!**



Kuadrillen arteko jokoak, jaietako berrikuntza nagusi

Orain arte ohikoak izan diren Joselu Anaiak taldea eta zezentxoak ez dira aurten izango

XABI GOROSTIDI | ANTZUOLA

Bizitzako hainbat alderditan beza-la, jaien antolakuntzan ere garrantzitsua da hausnarketak egin eta hobekuntza prozesuak martxan jartzea. Aurten jaien antolakuntzan jai parte hartzaileago batzuen aldeko apustu garbia egin dute, eta horrek aldaketa batzuk eragin ditu aurtengo egitarauan.

Ildo horretan, berrikuntza nagusia aurten lehen aldiz egingo dituzten kuadrillen arteko jokoak izango dira. Egubakoitzeko herri bazkariaren ostean egingo dituzte. Kuadrillak antolatuta eta txarangaren laguntzarekin, Ibarrondotik, Herriko Plazatik, Zurrategitik eta Kanpo Beltzetik pasako dira. "Indarra alde batera utzi eta trebezia baliatzeko jokoak prestatu ditugu. Denok ondo pasatu eta irabazteko moduko jokoak izango dira. Hamabi urtetik eta 40 urterainoko bederatziki kuadrillak eman dute izena; beraz, pozik gaude, lehengo aldia da eta", adierazi du Usoa Agirre jaietako zinegotziak. Taldekako zaku lasterketak, hankak taulalara lotuta egin beharreko lasterketak eta sagar eta arrautzekin egindako jokoak egingo dituzte, besteak beste. Kuadrilla irabazlearentzat sari sorpresa egongo da.



Aramaio jaietan egindako taulen jokoaren modukoak izango da probetako bat. | GOIENA

Ekintza klasikoak kanpo

Aurten, orain arte ohikoak izan diren zezentxoak eta Joselu Anaiak ez dira jaietan egongo. Jai parte hartzaileagoak egite aldera, zezentxoak kentzea erabaki dute. "Jende asko erakartzen

"Denok irabazteko eta ondo pasatzeko moduko jokoak prestatu ditugu"

zuten, baina parte hartzea oso txikia zutela uste dugu". Prozesu berritzaile horren baitan, La Pulgaren *Berriketan* ikuskizunak orain arte klasikoak izan den Joselu Anaiak-en kontzertua ordezkatzeko du.



AITOR MENDIZABAL
PILOTARIA

"Herriarren aurrean jokatzera berezia da edozein pilotarientzat"

Aitor Mendizabal izango da egubakoitzeko pilota jaialdiko protagonista. Herriko zaleen aurrean jokatu du, eta omenaldi txiki bat ere egingo diote.

Urduritasun handiagoga egoten al da etxekoan aurrean?

Bueno, urteekin ikasten den zerbait da, baina herriarren aurrean jokatzeko beti sentitzen da zerbait berezia tripa barruan.

Herriarrek, gainera, omenaldi txiki bat ere prestatu dizute...

Herriarren babesa sentitzea oso pozgarria da. Nire ibilbidean zehar asko lagundu didate, eta herriko jende asko etortzen da nire partiduak ikustera.

Berriz ere Jaunarena aurrean. Mendeku gosarik?

Mendeku gogoa baino gehiago, partidu polita eskaintzeko gogoa. Urtean pilota jaialdi bakarra egiten da Antzuolan, eta, hortaz, herriko jendeari pilota partidu ikusgarri bat eskaintzeko gogoz.

SUKALDEKO ALTZARIAK

Harizki

MOTA GUZTIETAKO SUKALDEEN PROIEKTUAK ETA INSTALAZIOAK

Hartu arnasa! Finantzaketa Laboral Kutxaren bitartez egin ezazu!

Zurrategi 4, behea. • Tel.: 943 78 71 80 • Mug.: 637 436 500 • e-posta: harizki@hotmail.com • www.harizkicocinas.com

ONDO PASA ANTZUOLAKO JAIXAK!

MOX GOROSTI LARREA GAILUR

ONDO PASA JAIAK!

EGIN TOPA GUREKIN!

AITZ GARBI ARIN ONGI ETORRI KOXKOR



Skasti taldeak berriro ere joko du aurten txosnetan. | BELOKI



Iaz Azeitiko Skandalue taldea –goiko argazkian– gonbidatu zuten; aurten, R ke R elektrotxaranga etorriko da. | GOIENA

Hontza baino lehen, olibaren jaitsiera aurten

Azeitunaren Jaitsierarekin zabalduko dira txosnak; kontzertuetan, ska eta erromeria izango dira nagusi

JOKIN BEREZIARTUA | ANTZUOLA
Ez daude Antzuolako jaiak ulertzerik txosnagune barik, eta, horregatik, aurten ere fin ibili dira gaztetxeko kideak, txosnetako eskaintza festetako zutabe garrantzitsuetako bat izan dadin. Aurtengo nobedade nagusia izango

da Azeitunaren Jaitsiera. Gaztetxe berria ireki zenetik Asanbladaren irudia oliba bat da; garai baten Mairu Mozkorra izan zen, ondoren Iratxoa, eta, gaztetxe berria ireki zenetik, oliba da Asanbladaren logoko protagonista. "Aurten zerbait berria egin nahi genuen jaie-

tarako eta Azeitunaren Jaitsiera antolatzea bururatu zitzaigun. Oliba antzeko bat egin dugu; egia esan, emaitza ez da esperotakoa izan, baina hori gutxienezkoa da...", adierazi du, barre algaraka eta festarako gogotsu, Txosna Batzordeko kide Mikel Arregik. Asmoa da ondoko etxe bateko balkoi batek Zurrategi plazara egitea Azeitunaren Jaitsiera; ekintza horrekin irekiko dira txosnak. Olibak protagonista izango dira geroxeago ere, gautxorien jolasetan, zaku lasterketaz eta beste ohiko jolasez gain, oliba jaurtiketa ere egingo dutelako.

Zuzeneko musikaren garrantzia
Txosnagune orotan moduan, Antzuolakoan ere zuzeneko musikak protagonismo berezia izango du. Hilaren 15ean eta 16an izango dira kontzertuak. Herriko bertako kideak dituen Asea taldeak street ska doinuak eskainiko ditu eta ondoren Joxpa taldearen erromeria etorriko da. Zapatuan, berriz, Antzuolan jotzea zer den badakiten Skasti-k –ska

doinuez gain, beste hainbat estilo lantzen dituzte– eta Huntza erromeria taldeak joko dute. "Zapatu gaua borobiltzeko DJ saio bat izango dugu; ez dakit ziur, baina uste dut lehen aldia dela DJ bat izango duguna. Tolo-saldeatik etorriko dira, bi lagun", adierazi du Arregik. Txosnetako

egitaraua borobiltzeko, domeka goizean gaupaseroen argazkia aterako dute eta ondoren ogitar-tekoak egongo dira.

Amaitzeko, gogora ekarri dute zapatuan gaztetxea zabalik egongo dela; jasotako dirua bizikletan istripua izan zuen Unai Prieto antzuolarrari bideratuko zaio.

UZTAILAK 13, EGUAZTENA

20:00 Estatua mozorrotzea eta afari merienda.

UZTAILAK 14, EGUENA

18:30 Txosnen irekiera Azeitunaren Jaitsierarekin.

02:30 Gautxori jolasak.

UZTAILAK 15, EGUBAKOITZA

23:00 Kontzertuak: Asea eta Joxpa musika taldeak.

UZTAILAK 16, ZAPATUA

Goizean zehar Askotariko sandwichen dastatzea.

20:30 R ke R elektrotxaranga.

23:00 Kontzertuak: Huntza, Skasti Maskarak eta DJ Electronic Shock.

UZTAILAK 17, DOMEKA

07:00 Gaupaseroen argazkia eta gerturatzen den edozein herritarrendako ogitartekoak.

amaia

Kalitatezko produktuak
Bertako produktuak
Produktu ekologikoak

*Ondo pasau
Antzuolako jaixetan!*

Aiherra kalea 2 - Antzuola - Tel.: 649 66 27 91



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela



Ondo pasau jaixak!!!

KALEBARREN 5

943 76 62 90

ANTZUOLA

Herriko Plaza txiki geratuko da larrain dantza ikusteko

Urtetik urtera parte hartze handiagoa lortzen ari den ikuskizuna da

XABI GOROSTIDI | ANTZUOLA

Larrain dantza Antzuolako jaietako ezinbesteko osagaia da. Jaietako domekan, herritarrei dantzari izateko aukera eskainiko diete aurten ere.

Dantzaren izen ofiziala Lizarrako larrain dantza da. Izan ere, Euskal Herriko txoko askotan egiten den arren, jatorria Lizarran duen dantza da. Hasieran, Lizarratik etortzen ziren dantzariak Antzuolako jaietan dantza hau egitera.

Baina antzuolarrek dantza ikasi zuten, eta, gaur egun, jaietako ekintza nabarmenetako bat bilakatu da.

tako ekintza nabarmenetako bat bilakatu da.

Plaza txiki

Urtetik urtera larrain dantzan parte hartzen duen herritarren kopurua gorantz doa.

"Gero eta jende gehiago animatzen da plazara atera eta dantzan egitera. Iaz, adibidez, Herriko Plaza txiki geratu zitzaigun. Aurten jende gehiegok hartuko du parte; beraz, ikusi beharko dugu nola antolatzen garen. Herriko plaza handitzeko neurriak hartu beharko dira; izan ere,

pena litzateke leku faltagatik jendea dantza ikusi gabe gertzea", adierazi Jon Lizarazuk, Oinarin dantza taldeko kideak.

Dantza ikastaroa

Duela hiru hilabete, dantza ikastaroa jarri zuten martxan Oinarin taldekoek. "Bertan ikasi ditugun dantzen artean larrain dantza ere badago, eta, beraz, iaiztik hona dantza ikasi duen jende gehiago dago. Horretaz gain, jaien aurreko azken bi martitzenetan larrain dantzaren entsegu espezi-fikoak egingo ditugu".



Txistulari taldea kalejira egiten. | GOIENA

Txistulariak jaietako hauspoa izango dira

Eguenean hasi eta zapatuta bitartean bost ekintzatan hartuko dute parte

X.G. | ANTZUOLA

Herriko jaiak eta txistulariak bi kontzeptu banaezin dira, eta Antzuolan ere hala gertatzen da. Jaien hasieratik eta Mairuen Alardea bukatu arte bost hitzordu izaten dituzte Antzuolako txistulariek. Beraz, lanik ez zaie faltako.

"Txupina jaurti ostean, buruhandi eta trikitilariekin egiten dugun kalejira izaten da gure lehen hitzordua. Horren ondoren, dantzarien ekitaldian ere parte hartzen dugu. Bertan ez gara guztiok aritzen, baina nire kasuan beste hitzordu garrantzitsu bat da. Ondoren, egubakoitz eta zapatu goizeko diana izaten ditugu, eta, amaitzeko, zapatuko Mairuen Alardean aritzen gara. Alardean pieza asko jotzen ditugu eta luze joaten da. Behin hau bukatuta, merezimendu osoz, dome-

ka libre izaten dugu, eta jaiak era lasaiagoan gozatzeko aukera da guretzat", adierazi du Izaskun Fernandez txistulariak.

Gehien gustatzen zaizkion ekintzen inguruan galdetuta, zera erantzun du: "Egueneko kalejira asko gustatzen zait. Ez du beste munduko ezer, baina giroan jaien hasiera dela igartzen da eta urduritasun puntu hori polita dela uste dut. Horretaz gain, alardean parte hartzea oso polita da edozein antzuolarrentzat".

Sasoi betean

Gaur egun 20 txistulari inguruk osatzen dute txistularien taldea. Kontuan izateko zifra da Antzuola bezalako herri batentzat. Duela gutxi, bost gazte gehitu zaizkie; beraz, etorkizunean osasuntsu jarraituko dute.



lazgo larrain dantzako bikoteetako bat. | GOIENA

xinkona

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Eskulan Ikastaroak
- Arropak
- Osagaiak
- Gozokiak.

Ondo pasau jaixak!!!



Zabalo Iturgintza S.L.U.

Ondo ibili jaietan!

- Gasa
- Berogailuak
- Aire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBAre bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Antzuola. Tel.: 943 78 71 78 / Faxe: 943 76 64 73





Oinarin dantza taldeko dantzariak ikurrin dantza egiten. | AITOR AGIRIANO

Bandera igoera herritarren esku geratuko da aurten

Ekimenaren bueltan ikurrin dantza eta udalbatzaren aureskua izango dira

MAITE TXINTXURRETA | ANTZUOLA
Antzuolako banderaren eta udaltxeko bakoiko ikurrinaren jasotzeak emango die ofizialki ongiatorria aurtengo Antzuolako jaietara. Uztailaren 14an izango da hori, eguena, 20:00etan; egun seinalatua, duda barik, antzuolarren agendetan.

Aurtengo ekitaldia desberdina izango da, gainera. Izan ere, orain arte alkatea arduratu izan den arren banderak jasotzeaz, aurten ez da hala izango. Hori bai, nork egingo duen, oraingoz, "sorpresa" da, eta eguenera arte

itxaron beharko dute herritarrek. Beñardo Kortabarría alkateak aurreratu du bi pertsona izango direla. Hain zuzen, Kortabarría adierazi du aspaldidanik dela bere nahia urtero ez izatea alkatea bandera jasotzen duena. Hala, aurten herritarren esku geratuko da udaltxeko bakoitik herriko jaietara ongiatorria ematea.

Ikurrin dantza

Oinarin dantza taldeko neska-mutikoak plazara aterako dira, urtero legez, ikurrin dantza egitera. 20:00etan izango da hori.

Urteko hitzordurik garrantzitsuenetakoa izaten da gaztetxoentzat.

Udalbatzaren aureskua

Ikurrin dantzaz gain, udalbatzako kideen dantza ere izango da banderaren jasotzearen bueltan.

Udal ordezkariak entseguetan aritu dira azken egunotan, beraien unea heltzean ahalik eta ondoen dantza egiteko. Beñardo Kortabarría alkateak adierazi du ahalgina egingo dutela: "Ez naiz dantzaria, eta entsegu askorekin ere ziur ez dudala ondo egingo. Baina saiatuko naiz".

Herriko chef-en sukalde bilakatuko da Kalebarren

Egubakoitz goizeko gastronomia lehiaketan txanpinoiak saltsan gertatuko dituzte

M.T. | ANTZUOLA

Antzuolako sukaldariek hitzordua daukate egubakoitz goizean Kalebarren. Izan ere, bertan egingo dute jaietako urteroko gastronomia lehiaketa. Lehen, patata-tortilla lehiaketa izaten zen, baina iaz aldatu egin zuten eta entsalada errusiarra egin behar izan zuten parte hartzaileek; aurtengoa, berriz, txanpinoiak saltsan gertatzen erakutsiko dute euren trebetasuna.

10:30ean hasita, goiza aprobetxatu beharko dute guztia mimoz prestatzeko, eguerdi aldean epaimahaia igaroko da eta. Plater guztiak dastatu ostean, ordu batean jakinaraziko dute zeintzuk izan diren irabazleak.

Baina epaimahaikideak ez dira izango platerak probatuko dituzten bakarrak. Izan ere, beraiek pasatu ostean, lehiaki-

deek gertatutako txanpinoien dastaketa izango da inguratzen diren herritarrendako.

Iazko txapeldunak

Iaz, Arantxa Izagirrek, Arantxa Aranburuk eta Marije Zubimendik osatutako hirukoteak eraman zuten etxera lehen saria. Koadrilako lagunak dira hirurak, eta lehen aldiz aurkeztu ziren lehiaketara. Bistan denez, ez ziren erabakiaz damutu.

Marije Zubimendik azaldu du ez zutela sekretu berezirik erabili euren platera prestatzeko. "Betiko moduan" egin zutela dio, era tradizionalan.

Zubimendi aurtengoa aurkeztuko da lehiaketara, taldekide berriekin. Aurtengo errezeta iazkoarekin alderatuta oso desberdina izan arren, ahaleginduko dira mimoz eta ahalik eta ondoen prestatzen.



Iazko lehiaketako irabazleak buru-belarri lanean. | GOIENA

Berezae

ondo pasau jaixetan!

AMETS



Berezae
ANTZUOLA

Berezae Antzuola. Lizarragako hiribidea 8. Antzuola. Tel.: 943 78 70 77. berezaeantzuola@raopel.com



**ANTZUOLA
JAIXETAN.
ONDO PASA!**



Antzuolako udala

www.antzuola.com
www.antzuolakoalardea.com





laz, Herriko Plazan egindako umeen ikuskizunean koreografia ezberdinetako hainbat dantza ikusteko aukera izan zen. | AITOR AGIRIANO

Umeeek ere dibertsiorako aukera izango dute Antzuolako jaietan

Eskolako patioko jolas parkean atrakzio berriak izango dira aurten

IMANOL BELOKI | ANTZUOLA

Antzuolako jaiak ate-joka daude, eta herriko gaztetxoak dagoeneko oporrak hartuta gogotsu egongo dira jaietan murgiltzeko. Aurten ere eskaintza zabala izango dute, eta egunero ekintza ugari prestatu dira beraientzat.

Jaiak hasteko, uztailaren 14an, urtero egin ohi den moduan, alkateak eta alkate txikiek pregoia irakurri eta txupinazoa botako dute, baina azken hauek nortzuk izango diren sorpresa izango da azken momentura arte. Ondoren, umeen ikuskizuna izango da pla-

zan, 12:30ean, eta aukera aparta izango dute gurasoek beraien seme-alabak dantzan ikusteko, eta, nola ez, gaztetxoek ere disfrutatuko dute oholtzan. Udalekuean ari diren hamalau talde igoko dira taula gainera, eta dantzak egingo dituzte. Gainera, "iaz

seigarren mailan ari ziren gaztetxoek azken urtez egin zuten dantza plazan, eta aurten ere gogotsu daude ikuskizuna eskaintzeko. Hala eta guztiz, konfirmatu gabe dago parte hartuko duten edo ez", adierazi du Jone Larrañaga kultura teknikariak.

Ikuskizuna amaitzean, 13:30ean herri bazkaria izango dute gaztetxoek eskolako patioan. Pausoka Guraso Elkartearen eskutik udalekuean ari diren gazte guztiak eta DBH bigarren mailara arteko guztiak gonbidatuta daude bertara.

Arratsaldean, berriz, indarrak berreskuratuta, txistulari, trikitilari eta buruhandiekin kalejira egingo dute. "Haurren eskaera nagusia buruhandiak egun gehiagotan izatea da, eta disfrutatzen duten ekintza izan ohi da".

Jolas parkean atrakzio berriak



Uztailaren 15ean jolas-parkea izango da eskolako patioan, gerizpean. 11:30etatik 13:30etara izango da irekita, eta bertan askotariko jokoak izango dituzte, puzgarri ezberdinak... Gainera, aurten, hiru atrakzio berri izango dira. "Humor Amarillo programaren tankerako jokoak izango dira. Hurrei zuzenduta dagoen arren, helduek ere parte hartu ahal izango dute".

Zapatuan, berriz, marrazki lehiaketa egingo da 12:00etan, Herriko Plazan, Xinkonaren eskutik. "Alaitz Jauregik proposatutako lehiaketak balorazio oso ona izan zuen, eta aurten ere egingo da. Gainera, marrazki guztiak Bustinzuriko aldapan eskegiko dira herritarrek ikus ditzaten".

Umeentzako oso gustukoa den beste hitzordu nagusi bat zezensuzkoa da. Aurten, ordua aurreratu da, eta 22:00etan izango da, plazan.

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago, handitzen, berritzen eta gizarte eta ingurumenarekin konprometituta.





Aiherra eta Antzuolako gaztetxoak eskolako patioan. | AMAIA ARANA

Gaztetxoan arteko senidetzea indartuz

Aiherrako umeak gaur joango dira etxera bueltan aste betez udalekuekin gozatu ostean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Uztailaren 4tik 8ra gozatu dute Antzuolaz eta antzuolarrez Aiherrako hamaika gaztetxok. Udalekuak gaur, egubakoitza, bukatu dituzte eta makina bat ekinztatan parte hartu dute. Gustura ibili direla esan du Amaia Arana udalekuetako hezitzaileak: "Elkar ezagutzeko jolas kooperatiboak egin ditugu; dantza ere egin dugu. Herria ezagutzeko helburuarekin, zirkuitu bat prestatu eta euska-

raren alde Korrika antolatu dugu. Mendi irteerak, jolasak, eskulanak... eta Antzuola Ezagutzen ekimenaz ere gozatu dugu".

Agur festa

Gaur da Aiherrako gaztetxoendako azken eguna. Hala, etxera bueltatzeko garaia iritsita, agur festa egin diete antzuolarrek. Bi herrien arteko senidetzea bultzatzen jarraitzeko esperientzia aberasgarria izan da.


Jone Larrañaga Gorritxoren marrazkiak irudikatuko du aurtengo jaietako zapia

Alardeko kanoiak dira protagonista nagusiak berde pistatxo koloreko zapien

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aurtengo jaietako zapia irudikatuko duen marrazki lehiaketara hamaika antzuolar aurkeztu dira. Herritarrek botoa emateko aukera eduki dute eta bi marrazki izan dira aurtengo irabazleak: Jone Larrañaga Gorritxorena eta Eneritz Larrearena. Epaimahaiak baina, bat aukeratu behar zuen eta Jone Larrañagarena Gorritxorena aukeratu du.

"Iazkoa laranja kolorekoa izan zen; aurtengoa berde pistatxo kolorekoa izango da. Marrazkia berriz, Mairuaren Alardeko kanoiak irudikatzen dituen izan-



Jone Larrañaga Gorritxoren marrazkia da aurtengo irabazlea. | ANTZUOLAKO UDALA

go da", argitu du Kultura teknikari Jone Larrañagak.

"Zapia hiru euren truke dago salgai herriko tabernetan".

Gastronomia lehiaketa

Txanpiñoiak protagonista diren gastronomia lehiaketan izena astelehenera arte eman daiteke.



ANTZUOLAKO UDALA

Pilotalekua garbitzen dihardute

Udalak aspiragailu industrialak alokatu behar izan du pilotalekuan isuritako su-itzalgaileen hautsa garbitzeko. "Hautsa itsatsi egiten da eta behin eta berrito garbitu behar da. Egileak identifikatu ditugu eta ondorioak izango ditu. Gure asmoa da auzolanean jartzea egin dutenaz hausnartu dezaten eta kaltea ordain dezaten", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak. "Makina alokatzeak dirua suposatuz dio Udalari; ezin da oharkabea pasa. Euren gurasoekin ere hitz egingo dugu. Gure asmoa heztea da berrito horrelakorik gerta ez dadin".

HORTZ KLINIKA
 Ana Sainz Malkorra
 Mediku estomatologoa
 Elkargokide zk.: 20000437

RPS: 306/13

PADI • Odontologia orokorra
 Periodontzia eta inplanteak

ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!

Herriko Plaza 4, behea 20577
 Antzuola Tel.: 943 78 71 69

Ile apaindegia

Costa

Edertze aretoa

Ondo pasatu Antzuolako jaietan!

Germaine de Capuccini produktuak

Laser bidezko depilazioa
 Informa zaitez!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

MARTIN OKINDEGIA

Lantegia: Kalebarren 4
 Saltokia: Herriko plaza
 943 76 64 35

Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!

Marilina mertzeria

Jai zoriontsuak antzuolar guztiei!!!

Herriko plaza 4
 ANTZUOLA
 Tel.: 677 46 63 21

Nereia

Zorionak antzuolar guztioi!

659 57 50 97

Kalebarren 13 ANTZUOLA



Aurtengo jaietan Herriko Plazan izan da Euskal Jai eguneko herri bazkaria. | AITOR AGIRIANO

Astean zehar ospatu diren jaiek arrakasta izan dute aurten

"Datorren urtera begira aldaketa batzuk egin beharko ditugun arren, balorazio oso positiboa egiten dut orokorrean", adierazi du alkateak

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Duela astebete amaitu ziren Eskoriatzako sanpedroak, eta ekainaren 28tik uztailearen 1era bitartean giro aparta izan da herriko jaietan. Astean zehar ospatu diren arren, herritarrek kalera irten eta jai ederrak pasa dituzte.

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea oso pozik dago aurtengo jaiek eman dutenarekin, eta egin beharreko aldaketa batzuk dauden arren, balorazio positiboa egin du, orokorrean.

Alkatearen balorazio positiboa

"Giro bikaina izan da herrian, eta, astean zehar ospatu diren arren, jende nahikoa izan da egun guztietan. Ekintza esanguratsuen, berriz, herri bazkaria izan zela esango nuke, eta ekainaren 29an Gorosarrin izan ziren dantzen gainean oso ondo hitz egin digute...". Bestalde, herriko plaza inguruko giroa berreskuratu dela azaldu du, eta, horrez gain, jaia herri osora zabaldu dela, besteak beste.

Hala ere, datorren urtera begira hainbat aldaketa eta berrikuntza egin beharko direla adierazi

du. "Bandera jaitsieran musika oso baxu zegoen, eta suzko erru-berak ere bertan behera geratu ziren euriarengatik...".

Txosnek arrakasta jaietan

Eskoriatzako Txosna Batzordeko kideak gustura geratu dira herritarrek eman duten erantzunarekin. Maite Santamaria Txosna Batzordeko kidearen esanetan: "Jaiak aste barruan izan arren, jende asko gerturatu da txosna-gunera, eta giro bikaina izan dugu". Lehenengo egunean, aldaketa bat izan zen egitarauaren barruan; DJ Txorimalo izan beharrean, DJ Moto eskoriatzarra izan zen musika jartzen, eta jen-

dea oso gustura izan zen aldaketarekin. Bigarren eguneko kontzertuek ere arrakasta izan zuten, "espero baino jende gehiago" izan zen bertan. Bestalde, "tonbolak harrera bikaina izan du, bertako objektuekin ederto pasa dugu...".

Hala eta guztiz ere, hitzordu arrakastatsuen kuadrillen arteko bazkaria izan zen. Guztira, 110 lagun batu ziren paella jateko, eta ondoren jokoek ere eman zuten zer esana. Ikusle asko batu zen jokoetan, eta, antolakuntzan hainbat arazo izan arren, umorez eta lehia sanoarekin, giro aparta izan zen. "Eskerrak eman nahi dizkiegu, Txosna Batzordetik, txosna-gunera izan diren guztiei".

ESANAK

"Ekintza esanguratsuen herri bazkaria izan da"

JOSERRA ZUBIZARRETA | ALKATEA

"Astean zehar ospatu arren, giro bikaina izan dugu jaietan"

MAITE SANTAMARIA | TXOSNA BATZORDEA

Hari-laukote batek emango dio hasiera Errekan Gorari

Kataluniako Le Touquet Quartet taldeak emanaldia eskainiko du gaur Zaldibarren

I.B | ESKORIATZA

Gaur hasiko da Atxorrotx Kultur Elkarteak antolatutako Errekan Gora jaialdia. Uztailean zehar hainbat kontzertu izango dira eta egitasmoari ateak irekiko dion taldea Le Touquet Quartet Kataluniatik etorritako lau kotea izango da. Emanaldia gaur eskainiko dute, 22:30ean, Zaldibar antzokian.

2014an Bartzelonan sortutako hari-laukotea da Le Touquet Quartet (txeloa, biola eta bi biolin). Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolako ikasleak laurak, Quartet Casals Zaldibar antzokian. 2014an Bartzelonan sortutako hari-laukotea da Le Touquet Quartet (txeloa, biola eta bi biolin). Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolako ikasleak laurak, Quartet Casals Zaldibar antzokian. 2014an Bartzelonan sortutako hari-laukotea da Le Touquet Quartet (txeloa, biola eta bi biolin). Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolako ikasleak laurak, Quartet Casals Zaldibar antzokian.

rreta (txeloa) aretxabaletarra dago, Errekan Gora egitasmo taldeen artean debagoiendar bakarra dena.

Bi urteko lana oholtzara

Duela bi urte batu zen taldea, eta ordutik lan asko egin dute. Kontzertu batzuk eman dituzten arren, hasiberriak dira oholtzara gainean, eta Euskal Herrian joko duten lehen aldia izango da. "Uztailearen 7an Markinan joko dugu, eta hurrengo egunean Eskoriatzan. Gogotsu gaudete, eta bi urteko lana erakutsiko dugu", adierazi du Eñaut Zubizarreta musikariak.

Le Touquet Quartet taldeaz gain, Izaki Gardenak, Maialen Errotabehera, Big Band Berri eta Belako taldeak izango dira uztailean zehar Errekan Gora egitasmoaren barruan.




Hasi dira Eskoriatzako udalekuak

Martitzenean hasi ziren Eskoriatzako udalekuak, eta gustura ari dira umeak herriko txokoetan jolasean. Aurten, gainera, hainbat berrikuntza egin dituzte Txirikila Aisialdi Elkarteak: dinamismo handiagoa lortzeko udaleku mugituagoak izango dira, Luis Ezeiza herri eskolako Tximeleta Gelakoek parte hartuko dute hainbat ekintzatan, eta abar.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



VILLAR ILE-APAINDEGIA SALGAI



Nire jabearen erretiroagatik saltzen naute. Betiko bezeroek ni erostea eskertuko dizute!

ESKORIATZA

Tel.: 600 433 566
Deitu 13:00-17:00 artean.

LEINTZ GATZAGA

28 pertsonak hartu zuten parte doke txapelketan

ENKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA
Arrakasta handia izan zuen San Martin egunean jokatu zen doke txapelketak. Orain arte taldeka jokatu bada ere, aurten bakarka aritu dira. "Aurreikuspen guztiak gainditu ziren, jende ugari bildu zen eta", adierazi du Aitziber Gorosabelek, antolatzaileetako

batek. Izan ere, nagusien txapelketan 28 pertsona aritu ziren eta hurrenean, berriz, bost. Nagusietan bi irabazle izan ziren, Miriam Toapanta eta Irene Beitalarrangoitia. Hurrenean, berriz, Iker Gallo izan zen garai-le. Sariei dagokienez, alde batetik, Puntaik Punta jaialdian banatu

ez zen sari bat aprobetxatze aldera, Maulanda jatetxean bazkari bat eskuratu zuen Beitalarrangoitiak. Eta Toapantak eta Gallo gaztai bana irabazi zuten.

Udalekuak

Bestalde, udalekuak hasi dituzte dagoeneko herriko haurrek eta azken momentuan, gainera, ume gehiagok eman dute izena. Bada, hilabeteko azken hiru egunak Haron (Errioxa) igaroko dituzte eta hara joateko ere haur gehiagok eman dute izena.



Irabazleak sariekin. | GUREL

Txakolin Eguna egingo dute lehenengoz, bihar, bederatzi upategirekin

Gazta eta urdaiazpikoa ere izango dira Mitarte kalean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Udaleko Kultura Sailak lehenengoz antolatu du Txakolin Eguna. Bihar izango da, 12:00etatik 15:00etara, Mitarte kalean, eta Gipuzkoako bederatzi txakolin upategi elkartuko dira. Edatekoari lagun egiteko, gainera, jatekoa ere izango da bertako ekoizleen eta merkatarien eskutik; gazta eskainiko dute Etxezuri eta Mendibitzu baserrietako ordezkariak, eta urdaiazpikoa Hankabeltz urdaitegiak.

Hiru gune Mitarte kalean

"Udako aste bukaeretan herritarrek kanpora joateko ohitura dute eta herri giroa bultzatze aldera antolatu dugu Txakolin Eguna", dio Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak. "Izen handiko" upategiak elkartuko direla herrian jakinarazi du, eta "txakolin ederrarekin" gozatu ahal izango dela prezio ezin hobean: bost txakolin,



Bi kopa txakolin mahats zuri ale batzuk ondoan dituztela. | GOIENA

bost euroren truke –kopa, prezio barruan-. Hiru gune egokituko dituzte Mitarten; bakoitzean hiru txakolin upategitako ordezkariak egongo dira eta jateko postu bat. "Halako oso egun gutxi egingo

dira Gipuzkoan eta upategiak hona etortzea eskertzekoa da", dio Uribarrenek. Kultura Saileko kideen asmoa da egutegian egun bat finkatzea Txakolin Egunerako, eta urtero antolatzea.

Iaz hiru milioi botilatik gora atera ziren

Getariako Txakolina izendapena bakarrik Aiako, Getariako eta Zarauzko txakolinek izatetik Gipuzkoa osokoek izatera pasatu zen 2007an. Eta gaur egun 402 hektarea mahasti daude. 96 dira izena emanda duten titularrak, baina mahastietan 150 bat lagunek egiten dute lan.

Iazko uztan izena emandako upategiak 31 izan ziren, gehienak getariarrak, hamabi hain zuzen, eta debagoiendar bi ere bazeuden, Oñatikoa bata eta Arrasatekoa bestea. Upategi horiek prozesu guztia eurek egiten dute, hau da, mahatsa ekoiztu eta txakolina egin. 3.700.000 kilo mahats jaso ziren iaz eta 3.350.000 botila bete. Ondarrabi Zuri mahats mota erabiltzen da %98an eta Ondarrabi Beltza, gainerako %2an.

UPATEGIAK

- ▶ Agerre (Getaria)
- ▶ Akarregi Txiki (Getaria)
- ▶ Arregi (Zarauz)
- ▶ Basa Lore (Zarauz)
- ▶ Etxetxo (Getaria)
- ▶ Flysch (Deba)
- ▶ Gaintza (Getaria)
- ▶ Sagarmiña (Mutriku)
- ▶ Txomin Etxaniz (Getaria)

Edukiontzien kokalekuak jakiteko planoak egongo dira komentuko elizan

Eguenean jarriko dituzte herritarrek ikusteko, baita Azbe lantegi inguruari dagozkionak ere

M.A. | ARETXABALETA

Irailean jarriko dituzte hondakinak jasotzeko edukiontzia Aretxabaletan, zintzilikarioak kenduta. Edukiontzi horiek non egongo diren herritarrek jakin dezaten planoak jarriko dituzte ikusgai. Datorren egunean, uztailaren 14an, hasita komentuko elizan egongo dira hilabetea bukatu artean; hona hemen ordutegia: 10:30etik 12:30era eta 17:30etik 19:30era.

Aldaketa handirik ez

"Edukiontzi horiek zintzilikarioak dauden antzeko lekuetan jarriko dira, ez da egongo aldaketa handirik", jakinarazi du Unai Elkorok, alkateak. Hala ere, herritarrek iradokizunak egiteko aukera izango dute datozen bi asteetan.

Jarriko diren edukiontzia Arrasaten dauden modukoak

izango direla jakinarazi du Elkorok, eta data zehatzik ez du eman gura izan.

Azbeo planoak

Bestetik, Azbe lantegia izandako lursailaren izendapen aldaketaren prozesua abian jarri du Udalak, eta Azberri dagozkion planoak ere ikusgai egongo dira komentuan eguenera –ordutegi berbera–.

Industri erabilera izatetik erabilera komertzialera pasatu gura dute Azbe, supermerkatu bat egiteko han. Horretarako zein aldaketa egingo diren herritarrek jakin dezaten jarriko dituzte planoak ikusgai. Udaleko Hirigintza Saileko ordezkari bat egongo da, gainera, komentuan, azalpenak gura dituenari emateko, eta herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.



Azbe lantegiaren planoak. | ARETXABALETAKO UDALA

Diru-laguntzen gaineko plan estrategikoa onartu du Udalak

M.A. | ARETXABALETA

Joan den astean onartu zuen udalbatzarrek 2018a arteko diru-laguntzen gaineko plan estrategikoa –Irabazi aurka azaldu zen–, eta uztailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean horren berri eman dute. Hor zehaztu dituzte Udaleko sail bakoitzak emango dituen laguntzak eta kopuruak. Hona hemen sailak: Kultura, Euskara, Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Kirolak, Enplegua eta Berdintasuna. Alkateak argitu du derrigor egin beharreko plana dela, baina zehaztutako kanti-tateak alda daitezkeela.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



JOXE MIGEL URIBARREN

Ia 70 lagun
herriko kontuen
ganean
kontu-kontari

Aitor Antxia Leturiak esateko zituenak entzutera ia 70 lagun gerturatu ziren joan den domekan. Hasi Santutxo ermitan eta Taberna Berri jatetxera bitartean kontu mordoaren berri eman zien gidari lanak egin zituen Antxiak. Kultura Saileko kideak pozik daude izandako arrakastarekin, eta irail inguruan beste bisita gidatu bat egitekotan geratu dira; hori, baina, Urkulu aldeko auzoren batean izango da.

Giro onean agurtu dituzte jaiak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Datorren urtera arte agur esan diete sanmartinei Aramaion. Giro onean ospatu dituzte. Astelehenean, Urrezko Gibela saria banatu eta DJ dantza saioarekin amaitu zuten gaua. Iker Arriolabengoak eroan du aurtengoan parranda-

zale onenaren saria. Horrez gain, kuadrillen arteko pikea ere izan zuten astelehenean: sei kuadrilla lehiatu ziren, eta *Bixente Totxa ausente* nagusitu zen.

Beste lehiaketa batzuk ere utzi dituzte jaiak: zapatuan egingo dako patata-tortilla lehiaketan

Adela Elejalde eta Aintzane Telleriarte izan ziren txapeldunak. Bikarbonatoa beharrez gatzatu zuten horiek, sukaldari trebeak direla erakutsita.

Arratsaldean bigarren irrintzi txapelketa jokatu zuten. Uxue Ibabe eta Aitziber Santamaria

ama-alaben lekaioak izan ziren onenak.

Udala ere pozik

Cristina Etxenagusia zinegotziak jaien balantze positiboa egin du. Batetik, eskerrak eman nahi dizkie jaiak antolatzen lagundu duten talde eta norbanakoei; bestetik, berrikuntzen arrakasta nabarmendu, eta etorkizunean kontuan izango dituztela azaldu du.



Indiako bikotea.



Kuadrillen arteko pikean, gazteak jolasean.



Ume zein heldu, gustura zezentxoaren gainean.



Gaztetxoak flamenkoa dantzan.



Bi kuadrilla pepinoaren jokoan.



Hori bai patata-tortilla ederra!



Aitziber Santamaria aretxabaletarra sariarekin.



Lagun Artean dantza taldekoak eta txistulari ohiak Udaletxeko balkoian, txupinazoa botatzeko prest.



Zapatu goizean, umeak egurrezko jolasekin. | ARGAKZIAK-MIRARI ALTUBE ETA AITOR AGIRIANO.



ARANTZAZU EZKIBEL

Txikienak kamisetak margotzen

Eguaztenean hasi zituzten udalekuak Aramaion. Taldetan banatuta, 101 ume eta gazte ibiliko dira udalekutan. Atzo, kamisetak margotzen ibili ziren 3, 4 eta 5 urtekoak; 1. mailatik 4. mailara artekoak altxorraren bila; eta nagusiak Uribarrira joan ziren. Gaur, San Fermin eguna ospatuko dute egurrezko zezentxoekin.

Film laburren sorta esanguratsua ikusteko aukera egongo da gaur

A.E. | ARAMAIO

Film laburrez aire librean gozatzeko aukera dute aramaioarrek gaur gauean. Kalean! elkartearen ekimenez, eta Aldundiarekin eta

Arabako hainbat udalekin elkarlanean *Korterraza* film laburren emanaldia antolatu dute. Bada, film laburren sortak eskainiko dituzte herrietan. Aramaion atzo

egin zuten lehenengo emanaldia, eta gaur bigarrena egingo dute Bañera parkean, 22:00etan.

Korterraza emanaldiak lau sorta ezberdinetan banatu dituzte: *Korterraza Euskara* saila, *Korterraza Txiki* saila, *Korterraza Mix 1*, *Korterraza Mix 2* eta *Korterraza Superseleccion*. Aramaion atzo eskaini zuten sorta *Korterraza Mix 1* izan zen; eta, gaur, *Korterraza Mix 2* eskainiko dute.

Gaurko emanaldiak

Bañera parkean elkartuko dira gaur-eguraldi txarra eginez gero, Sastiñan-. Bederatzi film labur eskainiko dituzte: *Just the Beginning* (7.16), *El vendedor de humo* (6.20), *Los Chimponitos* (19.58), *Bubbles don't lie* (4.05), *Para Sonia* (8.51), *Una vez* (13.22), *Turno de noche* (9.30), *Hileta* (20.00) eta *Cretinos* (14.57).

Aurten zazpigarren urtez egingo dute film laburren jaialdia.

'KORTERRAZA' EMANALDIK

UZTAILAREN 8AN, EGUBAKOITZA, BAÑERA PARKEAN 22:00ETAN

► *Just the beginning*, Abraham Lopez Guerrero

► *El vendedor de humo*, Jaime Maestro

► *Los Chimponitos*, Alberto Pons

► *Bubbles don't lie*, Stepan Etrych

► *Para Sonia*, Sergio Milán

► *Una vez*, Sonia Madrid eta María Guerra

► *Turno de noche*, Vicente Ruiz de Leon Consuegra

► *Hileta*, Kepa Sojo

► *Cretinos*, Eduardo Moyano

Gozatu egin dute elgetarrek lau eguneko festa giroarekin

Domekako Ferixa Nagusia, zapatuko herri bazkaria, bariku gaueko kontzertuak eta erretiratuen bazkaria izan dira ekitaldi jendetsuenak

MIREIA BIKUÑA / L.Z. | ELGETA

Egueneko mozorro jaitsieratik domekako feria egunera arte kalean eman dituzte ordu asko elgetarrek. Jaiei hasiera emateko herrian izan ziren gospel korua, okin taldea, txaranga, egiptoar taldea, hippyak, mota guztietako animaliak... Argazkiak ateratzeko aurten ipinitako txokoan atera zuten erretratua askok.

Barikua eta zapatua euritsuak izan ziren eta frontoian egin zituzten ekitaldi ugari, tartean herri bazkaria. 550 bat paella-errazio banatu zituzten. Ondotik etorri zen kuadrillen arteko herri kirolen txapelketa. Hiru taldek hartu dute parte, eta EH Bildu taldea izan da irabazlea. Domekan, feriak hartu zituen herriko kaleak. Debagoieneko Txakolin Eguna ere egin zuten.

Balorazioa jai batzordean

Udalak hurrengo jai batzordean egingo du festen balorazioa. Adizera eman dute batzorde hori uztailako hirugarren asterako deituko dutela. Aurrekoak bezala, herritar guztiei zabalik dagoen batzarra da honako hau ere.



Okin kuadrilla, mozorro egunean, herriko plazan.

AITOR AGIRIANO



Erretiratu taldea, barikuan, Espaloian egindako bazkarian.

AITOR AGIRIANO



Josu Mañarikua kuadrillen arteko herri kirolen txapelketan.

AITOR AGIRIANO



Domekan, feria.

AA.



Herriko dantzarien saioa.

AA.

Herrian agertutako pintaketak gogor salatu ditu Udalak

Herritar talde batek deituta elkarretaratzea egingo dute gaur, barikua, 19:00etan, herriko plazan

L.Z. | ELGETA

Zapatutik domekara bitarteko gauean pintura beltzarekin egindako hainbat pintaketa iraingarri agertu ziren Elgetan.

Elgetako EH Bilduk domeka goizean salatu zuen ekintza: "Ez dugu jarrera xenofoborik onarzen, ez Elgetan, ez inon!".

Udalak ere salatu ditu pintaketak: "Pintaketa arrazistak,

xenofoboak, klasistak eta aporofobikoak agertu zaizkigu Elgetako hainbat gunetan: ohe elastikoen jabearen furgonetan, elizpean, Bolatokiko horman... Elgetako Udalak gogor salatu nahi du pintaketa hauen edukia, eta oso larritzat jotzen du gaur egungo gizartean eta jai giroan era honetako diskurtsoek presentzia izatea", adierazi dute.



Elizpean agertutako pintaketak. | L.Z.

Txomin de Vega hirugarren Euskadiko jaitsiera txapelketan

Ferixa Nagusiko Herri Eguen, hilaren 2an, Euskadiko BTT jaitsiera txapelketa jokatu zuen Txomin de Vegak Galdakaoko Maxxis zirkuituan. Eguraldi eskasa izan zuten. Hala ere, elgetarrak hamabigarren egin zuen proba eta hirugarren sailkatu zen bere kategorian, Master 30 kategorian.

OHARRAK

TUTOREA KZGUNEAN

Eguaztenean, hilak 13, kultura etxeko KZgunean izango da tutorea, 16:00etatik 17:30era.

PODOLOGO ZERBITZUA

Uztaileko kontsulta egunean, hilak 14, izango da. Txanda hartzeko deitu 943 76 80 77 telefono zenbakira. Abuztuan ez da kontsultarik izango.

INTXORTAKO LEHOIAK

Jaietako zozketako zerbaki saritua da 1.181, eta ordezkoa 1.940. Saritua agertu da.

LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA

Udako ordutegia da: astelehenean 16:30etik 20:00etara, eta martitzenetik egunera bitartean 14:30etik 17:30era.

Maiatzean hondakinen %83,21 bereizi dute Elgetan, orain arteko daturik onena

L.Z. | ELGETA

Debagoieneko Mankomunitateak ekaineko azken astean eman ditu hiri hondakinen bilketa selektiboaren inguruko maiatzeko datuak herriz herri. Elgetan hondakinen %83,21 jaso dute bereizita. "Orain arteko tasarik onena da", nabarmendu dute Elgetako udal

arduradunek datua ezagutu bezain laster. "Pozgarria da elgetarrak gauzak ondo egiten ari direla ikustea", adierazi du Elgetako EH Bilduk.

Debagoieneko batez bestekoa %80,96 izan da maiatzean. Antzuolak da tasa handiena (%84,15) eta Aretxabaletak, aldiz, txikiena (%78,20).



L.Z.

Bi entzierro, atzo, umeendako

Zuri-gorri janzteko eguna izan zuten atzo, eguna, Elgetako udalekuetako neska-mutikoei; izan ere, San Fermin jaiek isla izan dute aurten ere Elgetan. Bi entzierro egin zituzten umeek; bat izan zen txikiendako, eta bestea nagusitxoagoak direnendako. Biak ala biak azkarrak eta emozio handikoak korrikalariendako.

FUTBOLA

Asier Garitano | Leganes taldeko entrenatzailea

"Oso futbolzaleak dira Leganeskoak, harmailak bete egiten zituzten Bigarren B mailan ginenean"

- ▶ Oporretan egon arren, Bergarakoaren telefonoak ez dio atsedenerako tarterik ematen
- ▶ lazko hamar-hamaika jokalarirekin hasiko dute denboraldi-aurrea, fitxaketen zain

XABIER URZELAI | BERGARA

Bergaran, etxean, eroso dagoela igartzen zaio Asier Garitanori (Bergara, 19). Herrikideak agurtu, Udal pilotalekutik Usondo parkera paseoa egin, eta handik Zubieta kalera, *Zubitxara*. Irailetik aurrera Zidannen Real Madrilen, Luis Enriqueren Bartzelonaren edota Eusebioaren Realen kontra neurtuko ditu indarrak: "Taldea batek ere ez dit aparteko ilusioa egiten, guztien kontra jokatu gura dut".

Zer moduz oporrak? Atsedeen egunak bai, baina telefonoa jo eta jo ibili da... Oso ondo, gustura etortzen naiz Bergarara, lagunekin egon, amaren urtebetetzea ospatu... Baina bai, atsedeen aktiboa esaten zaio honi, taldea sortzen ari garela eta gauza mordo aldatu behar ditugulako. Eta halaxe nabil, egun osoa telefonoan.

Zer moduz sanmartzialetan?

Ederto, sanmartzialetan beti ibiltzen gara ondo, giro ona, herritarrrak pozik...

Dagoeneko hilabete pasa da Leganes taldearekin mailaz igo zinetenetik. Ospakizun ikusgarriak egin zenituzten, Leganes osoa plazan zure izena oihukatzen... Zelan kudeatzen da hori?

Ez da erraza, ez genuelako halakorik espero. Besteen ospakizunak askotan ikusi izan ditugu telebistan, baina norbera ez da jabetzen zelako ilusioa sortu dugun jende askorengan. Ederra izan zen horrenbeste jende pozik ikustea, esperientzia ederra.

Duela hilabete 'Puntu' -n egindako elkarrizketan ez zenuen haztzen taldean jarraituko zenuen ala ez. Eta, futbola oso esker txarreko kirola da... Bai, bertan jarraituko dut. Beste

urtebeterako kontratua neukan, baina kategoriaz igota ikusi egin behar zen taldeak ze asmo zuen, ze asmo nuen nik... Baina bai, beste urtebete gehiagorako sinatu dut; horrenbestez, bi urtez izango naiz Leganesen. Etxean moduan nago, taldearekin batera egin dut nik gora, eta oso pozik nago. Talde aproposa da Lehenengo Mailan estreinatzeko.

Futbola esker txarrekoa dela aipatu dut, ikusi zer gertatu zaion ondo ezagutzen duzun Jose Bordalasi. Alavesekin mailaz igo, eta ez du Gasteizen jarraituko.

Bai, bost urtez izan nintzen harekin; lehenengo, jokalaria moduan; eta ondoren, entrenatzaile laguntzaile. Ondo dakit zenbat lan egin duen aukera hau izateko, eta liga irabazi dute, gainera. Baina halakoxea da futbola, eta entrenatzaile moduan barneratuta izan behar dugu halakoak gerta daitezkeela. Nahiz eta norberari gertatzen zaionean ez den batere erraza, ilusio handia izaten dugulako proiektu berriari heltzeko.

Zelako taldea da Leganes?

Talde orekatua izan dugu, jokari azkarrekin, eta partiduetan erritmo handiz jokatu dugu. Jokalarien abiadura hori aprobetxatu beharra zegoen, hori zen gure ezaugarria; horretan asmatu egin dugu. Orain, ikusi egin behar Lehenengo Mailarako zelako jokalaria ekartzeko gauza garen.

Izan ere, Bigarren Mailako jokalaria guztiek ez dute Lehenengo Mailarako balio, ala?

Halaxe da. Oraingo, iazko hamaika edo hamabi jokalarirekin hasiko dugu denboraldi-aurrea, eta liga hasiera gerturatu orduko



Asier Garitano Bergaran, eguztanean. | XABIER URZELAI

beste horrenbeste fitxatu beharko ditugu. Horiekin asmatzea ezinbestekoa da, Lehenengo Maila beste kontu bat delako.

Rayo eta Getafe, biak jaitsi izanarik mesede egiten dizue Madrilen talde horiek utzitako hutsunea betetzeko? Bertako jokalaria erakartzeko? Ez pentsa, kontratua dutenek tal-

de horietan jarraituko dutelako, edo nabarmendu direnak kanpora joango direlako. Garbi dauka gure kosta egingo zaigula jokalaria fitxatzea. Bigarren B-tik Bigarren A mailara igo ginenean berdina gertatu zitzaigun, kategorian berriak ginen eta inork ez zuen etorri gura. Aurten, berriz, guk

"Bigarren mailako talde batekin ezin gara Lehenengo Mailan lehiatu"

"Kosta egingo zaigu jokalaria fitxatzea, baina barneratuta daukagu hori"

gura genituen jokalaria ekarri ditugu, eta Lehenengo Mailara igo gara. Orain, ostera ere kosta egingo zaigu jendea konbentzitzea, baina barneratuta daukagu.

Zelako zaleak ditu Leganesek?

Oso futbolzaleak dira. Bigarren B mailan bete egiten genuen futbol zelaia. 8.000 lagun ziren, ez dira asko, baina kategorian beste inork ez zuen lortzen halakorik. Orain, futbol zelaia handitzeko obretan dabiltza, entrenatzeko ez ditugu Alavesek edo Osasunak dituzten kirol instalazioak; hor ere pazientzia beharko dugu. Hori bai, agortuta daude bazkide abonu guztiak.

Realzalea txikitatik, Athletic ere bihotzean... Eta, entrenatzaile moduan etortzea?

Horiek ametsak dira, baina horretarako oso ondo egin behar dira gauzak, zaila delako Lehenengo Mailako entrenatzailea izatea, eta ambizioa behar da. Oso zaila da, garbi daukat hori, baina ilusio hori ez dugu galduko.

ZIKLISMOA

Antzuola Sariak batuko du amateur mailako tropela, etzi

X.U. | ANTZUOLA

Peña Ayastuiko lagunek domekan egingo dute, 09:30ean hasita, Antzuola Sariaren 71. edizioa -Iñaki Lete memoriala-. Lasterketa Lehendakari Txapelketarako baliagarria izango da, eta 23 urtez azpiko amateur mailako ziklista onenak batuko ditu. Lehenengo 60 kilometroak lautadan egin eta gero Deskarga igo eta Udanatik etorririko dira bueltan; urtero moduan, Asentzioko maldek egingo dute aukeraketa zorrotza. Helmuga, 12:45 aldera.

MENDIKO BIZIKLETA

Eskoxtreme martxa egingo dute bihar Eskoriatzan

X.U. | ESKORIATZA

Bihar, zapatua (09:00), egingo dute Eskoxtremeko 27. edizioa, edo, beste modu batera esanda, Eskoriatzako mendi bizikleta martxa. Goizean egongo da izena emateko aukera, 08:00etan hasita (federatuek 12 euro, ez federatuek 15 euro). Azken edizioetan moduan, antolatzaileek lan handia hartu dute bidezidor ikusgarriak prestatzen. Izenak dioen moduan, zailtasun fisiko eta teknikoki aldetik zorrotza da. baita ibilbide motza ere. ere.

TRIATLOIA

Bailarako hainbat ordezkari Gasteizko triatloian, etzi

X.U. | GASTEIZ

Domekan egingo dute -08:00etan hasita, Landan-Gasteizko Triatloia, eta bertan izango dira bailarako hainbat ordezkari, bai distantzia erdian, eta baita ironman distantzian ere. Antolatzaileek, gainera, autobusa jarriko dute ikusleak Landara igotzeko: Arrasatetik (07:15), Aretxaballetatik (07:25) eta Eskoriatzatik (07:35) irtengo da autobusa. Izena eman behar da horretarako (triatlonvitoria.com).

ZIKLISMOA

Sasoi onean daude Xabier Murgiondo eta Garazi Erostarbe

X.U. | OÑATI

Euskadiko Erlojupeko Txapelketan -kategoria ezberdinetan- txapela jantzetik oso gertu egon dira bi ziklista oñatiarrak. Ulmako ordezkari Murgiondo Gopegin lehiatu zen, eta bi segundoko tar-teagatik bigarren sailkatu zen. Caja Ruraleko txirrindulari Erostarbe ere bigarren izan zen; garailearengatik lau segundotara geratu zen Iturmendin. Espainiako Txapelketan izango da asteburuan.

AKUATLOIA

Ihanire Urteagak irabazi du Plentziako proba

X.U. | OÑATI

Aloña Mendi triatloia taldeko atleta Ihanire Urteaga izan zen Plentziako akuatloiko emakumezko azkarrena, joan den zapatuan. Igeriketako tartea bikain egin eta gero abantaila hartu zuen, eta alde hori ondo kudeatu ostean, bere kirol ibilbideko aurreneko garaipena eskuratu zuen oñatiarrak. Urteagak minutu batetik gorako aldea aterazioan bigarren izan zen Ane Aranagari.

Julian Maeso, Hammond organoaren maisua, Berumugan

70eko hamarkadako bluesarekin gozatzeko aukera gaur, egubakoitza, Espoioian, 22:00etan

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Musika beltza oinarri duen Berumuga zikloaren aurtengo edizioa bigarren saioa izango da gaur, egubakoitza, Espoioian, 22:00etan.

Agertokian, ibilbide luzea duen Julian Maeso musikaria izango da. Musika beltzetik abiatuta, 70eko hamarkadako blues estiloa jorratzen du, bereziki. Hala ere, askotariko musika iturrietatik edaten du Maeso; hori horrela, ezaugarri nagusi duen ahots sendoa, blues-rock, country, funk eta jazz doinuekin jantzita entzuteko aukera izango da gaur.

Onenen artean hazitakoa

One Way Ticket To Saturn izena duen lan berriarekin dator Bergarara. Adituen esanetan, lan horretan agerian geratu da, berriro ere, egilearen musika ezagutza entziklopedikoa. Black Crowes moduko taldeen zaleentzako proposamen aproposa da.

Eskarmentu handia du agertokian. Talde eta musikari erreferente askorekin lan egindakoa da Estatuan eta baita atzerrian ere: The Blackbirds, The Sunday Drivers, Speaklow, M-Clan, Ken Stringfellow, Taylor McFerrin, Maceo Parker, Neneh Cherry...



Ttakun taldeko Dapena eta Langaran Arbolapetako gaztainondoarekin egindako txalapartarekin. | AMAIA TXINTXURRETA

Arbolapetako zuhaitzaren hotsa Txalaparta Festan

- ▶ Herritarrek ere txalaparta egin eta jotzeko aukera izango dute zapatuan
- ▶ Irrintzilariak, bertsolariak, eta albokariak ere izango dira hainbat txokotan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

2014ko urriaren 29an bota zuten 114 urtetan Arbolapetan izan zen gaztainondoa. Bezperako egunetan herritar asko elkartu ziren Arrasateko ikurretako bat izan zen zuhaitza agurtzeko. Ttakun taldeko kideak ere han ziren; zuhaitzaren alboan kokatu zuten txalapartaz gain, enborrean ere astindu zituzten makilak. "Zuhaitzaren enborrean ttakunak egiten ari ginela otu zitzaion Gorka Zubizarreta taldekideari akaso aukera egon zitekeela Arbolapetako zuhaitz maitearen zati batzuekin txalaparta bat egiteko. Bai mena eskatu genuen eta baiezkoa eman ziguten", azaldu du Kike Dapenak, Arrasateko Ttakun taldeko kideak.

Bihar, zapatua, Txalaparta Festa egingo dute eta orduan erakutsiko dute txalaparta berria herritarren aurrean. Eguerdian, txalaparta nola egin duten azalduko dute Ttakunekoek Herriko Plazan egingo duten tallerrean; iluntzean, berriz, txalaparta berriaren soinuaz gozatzeko aukera izango da Arbolapetako zuhaitz berriaren ondoan.

Txalaparta egiteko prozesua

Gaztainondoa bota zuten goizean Arbolapetan ziren Ttakun taldeko Unai Langaran eta Kike Dapena. "Udaleko teknikariak adarrak moztu ahala aukeratu genituen enbor zatiak. Handik zerrategira eramane genituen ohol forman mozteko, eta gure egoitzan sikatu genituen gero", azaldu du Unai Langaranek.

Gustura daude emaitzarekin; soinu bizia duela diote eta, duda barik, hunkigarria dela egur bereziaren gainean jotzea.

Askotariko herrietatik

Aurreko edizioetako egitura jarraituta egun osoko jai antolatuta dute, eta beste hainbat herritako

taldeak gonbidatu dituzte. Casinoko elkartean bazkalduko dute elkarrekin eta txartelak Herriko Plazan salduko dituzte 10 eurotan.

EGITARAUA

10:30 Diana. Goikobaluko gaztelu Zaharretik eta Altamirako igogailu berritik.

12:00 Txalaparta saio libreak, Herriko plazan. Pintxoak eta edariak ere egongo dira.

13:00 Arbolapetako txalapartaren aurkezpena eta irrintzilariak, Herriko Plazan.

14:30 Herri bazkaria, Casino elkartean.

18:30 Tabernaz taberna txalaparta saioak, albokariekin eta bertsolariekin.

▶ 18:30: Arrasateko txalapartariak Monte tabernan.

▶ 19:00: Pasaiako txalapartariak Taupa tabernan.

▶ 19:30: Aulestiko txalapartariak Iluntz tabernan.

▶ 20:00: Arrasateko txalapartariak Arbolapetan.

▶ 20:30: Urretxuko txalapartariak Irati tabernan.

▶ 21:00: Donostialdeko txalapartariak Arrasate tabernan.



Julian Maeso Organ Trio taldea izango da gaur Bergaran. | GAZTELUPEKO HOTSAK

Ruper Ordorikaren kontzertua '2016 Bideak' domekako etapan

A. A. | OÑATI

Mendiaz eta naturaz era berezian gozatzeko asmoarekin sortu zuten Donostiako Kultura Hiriburutzaren ekitaldien barruan, 2016 Bideak egitasmoa. Helburua, 600 kilometrotan eta 32 etapatan banatuta, Euskal Herri osoa zeharkatzea da. Antolatzaileek kontakizun bat osatu dute ibilbideekin; tokian tokiko sortzaileei eta lurralde bakoitzeko historia gertutik ezagutzeko ekimenei lekua eginez.

Etzi, hamaseigarren ibilaldia egingo dute; Legazpin hasi eta Arantzazun bukatuko dute. 13,3 km dituen zailtasun ertaineko ibilaldia da. Parte hartzeko, gaur, 20:00ak baino lehen eman behar da izena www.dss2016.eu atarian. Kudeaketa gastuetarako joan-etorriko autobusa eta istripu aseguruaz zazi euro ordaindu behar da.

Egun osoko plana

Egun pasa polita antolatu dute domekarako: askotariko bisita gidatuak eta Ruper Ordorikaren kontzertua, horien artean.

8:30etan abiatuko da Oñatitik autobusa Legazpira, eta Donostiatik helduko diren lagunekin elkartuko dira han. Eguna hasteko, Legazpiko Mirandaola auzoko Burdinola bisitatu dute. Ondoren, Jarondoko bordetara joatea da asmoa Gipuzkoako Parketxe Sarearen eskutik azalpenak jasotzeko. Kataberako meategiak izango dute hurrengo geltoki, eta gidari batekin Arantzazura helduko dira 14:00etan. Eguna borobiltzeko, Basilikan bisita gidatua (15:30), eta Oñatiko abeslariaren kontzertua izango da Gandiaga Topagunean, 17:00etan. Emanaldia doan da, eta interesa duten guztiendako dago zabalik.



Ttakuneko kideak Arbolapetako gaztainondoan jotzen. | JOKIN BEREZIARTUA

Smithsonian Folklife jaialdian Debagoieneko sortzaileak euren lanak erakusten ari dira

Bergarako Edu Muruamendiaren koreografoa eta Jesus Mari Lazkano margolaria daude AEBetan

A. ARANBURUZABALA BERGARA

Smithsonian Folklife jaialdia ari dira ospatzen egunotan Washingtonen. 1967an sortutako jaialdiak munduko kultura bat gonbidatzen du urtero, eta aurtengo edizioan Euskal Herria da protagonista. Hamar egunez -ekainaren 29tik uztailaren 10era bitartean-, Ameriketako Estatu Batuetako hiriburua euskal kulturaren, gastronomiaren, historiaren eta jardura ekonomikoaren erakusleho bihurtu dute.

Euskal Herriko askotariko txokoetako eta profiletako ordezkariak daude jaialdian parte hartzen, eta horien artean debagoien-darrak ere bai: Bergarako Edu Muruamendiaren dantzari eta koreografoa eta Jesus Mari Lazkano margolaria.

Euskal dantzekin txundituta

Uztailaren 11n itzuliko da etxera Aukeran dantza taldeko Muruamendiaren. Hitzaldiak, dantza saioak eta tailerrak egiten ari dira jaialdian, eta baita bestelako ekitaldietan parte hartzen ere. "Harrituta gaude zenbat jende hurbildu zaigun euskal dantzen

inguruan galdezka. Dantza taillerretan hainbat dantza erraz erakusten saiatu gara. Aukeran dantza taldearen emanaldiek ere erantzun ikaragarria izan dute. Bestelako saio bereziak ere egin

ESANAK

"Harrituta gaude hurbildu zaigun jende mordoarekin"

EDU MURUAMENDIAREN | DANTZARIA

ESANAK

"Bi herrialdeen arteko zubia eraikitzea polita dela uste dut"

UNAI NAFARRATE | ITZULTZAILEA



Edu Muruamendiaren eta Jesus Mari Lazkano, jaialdian margolariak egindako lanaren aurrean. | ARGAZKIAK: EDU MURUAMENDIAREN



Gernikako Arbolaren kimuaren landaketaren uena.



Kapitolioaren aurrean Muruamendiaren eta taldekideak.

ditugu: jaialdiaren hasierako ekitaldian Kepa Junkerarekin batera; Kongresuko liburutegian Ohorezko Agurra; Kennedy Centerren Klapertarrak taldearekin ordubeteko saioa... Berezi gogoan dudan uena Kapitolio atzean dantza genuen Ohorezko Agurra da; Gernikako Arbolaren kimu txiki bat landatu zuten ekitaldian izan zen. Ondoren, Jesus Mari Lazkano herrikiak

eta biok lurra bota genion landatutako zuhaitzari elkarrekin", dio dantzariak.

Arrasatear bat, itzultzaile

Orain dela sei urte AEBetan bizi den Unai Nafarrate arrasatearra aurkezle eta itzultzaile lanetan ari da jaialdian. Esperientzia paregabea bizitzen ari dela dio. "Askotariko taldeen ekitaldiak aurkeztu ditut, baina, batez ere,

Iturengo Joaldunekin izan naiz. Jende mordo bat ezagutzen ari naiz eta egunero asko ikasten ere bai. Jaialdira hurbiltzen ari diren amerikarrek interes handia erakusten dute gure kulturarekiko, eta orokorrean, gure herrialdearekiko. Euskal Herriaren berri izatea gauza berria da askorentzako. Bi herrialdeen arteko zubia eraikitzea oso lan polita dela uste dut", kontatu du Arrasatekoak.

'Begiradak' erakusketa, uztail bukaerara arte irekita

Bingen de Pedro margolari bergararraren eta Iñigo Arregi eskultore arrasatearraren obrak daude bertan

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Donostiako Kur galerian dagoen *Begiradak* izeneko erakusketan, zazpi artista gipuzkoarren obrak daude ikusgai, hilabete bukaerara arte. Artista horietatik bi debagoien-darrak dira, Iñigo Arregi eskultore arrasatearra eta Bingen de Pedro margolari bergararra.

Erakusketa honetako obra gehienak espazioaren eta airearen gainekoak dira, De Pedoren esanetan. "Erakusketan dauden lan guztiak ezin dira izen batekin laburbildu. Hala ere, grabitazioaren aspektua izan daiteke gure lanak batzen dituen gaia. Izan ere, lan askok islatu nahi izan dutena da objektu ezberdinak airean", azpimarratu du. Arregik gaineratu du zazpi artisten obrek ez dutela elkarren arteko loturirik, "ez kontzeptuan, ezta estetiko ere".



Arregi eta De Pedro. | BINGEN DE PEDRO

Erakusketaren izenari dagokionez, galeristak ezarritakoa da. "Artista bakoitzak eskultorekiko eta margolaritzarekiko daukan begirada izan da erakusketa honek bilatu duena. Gure arteko interrelazioa, nola margolariak eskultorearen espazioa ukitzen duen eta alderantziz", dio De Pedrok.

Erakusketa honetan eskaintzen duten artea "zentsumenen bitartez" jaso behar dela gaineratu du margolariak.

Erakusketan dauden lanei erreparatu, bergararraren kasuan, galeristak berak aukeratu zizkion obrak, ez zituen egin horretan pentsatzen. Arregiren kasuan, berriz, espresuki erakusketa honetarako egin zuen obra.

Erantzun ona

Bi artistek nabarmendu dute galerista oso pozik dagoela erakusketak izan duen erantzunarekin. "Maila handiko erakusketa bat dela diote adituek. Gainera, atzeritik ere jende ugari hurbildu da eta oso kritika onak jaso ditugu", azaldu du Arregik.

Azkenik, De Pedrok adierazi du erakusketa kolektiboak "zailak" izaten direla, baina hau "oso polita" gelditu dela.

'Andante' antzezlanaren eguaztenean Aretxabaletan

Markeliñe antzerki taldearen emanaldia herriko plazan izango da, 19:00etan

ENEKO AZURMENDI | ARETXABALETA

Uztailaren 13an, eguaztana, *Andante* mozorro antzerkia da egongo da Aretxabaletako herriko plazan. Testurik ez du eta keinu bidez komunikatzen duen lana da, musikaz lagundurik.

Gerra garaiko zapata anonimoen istorio desberdinak kontatzen ditu antzezlanak. Hiru antzezle bidean aurrera doaz, mozorrotuta eta musikaria lagun dutela. Ibilbidean zehar, zapata ezberdinak aurkitzen dituzte eta zapata bakoitzak istorio bat dauka atzean. "Gerra bizi izan dutenen edota honen ondorioz bizitza gogorra izan dutenen istorioak kontatzen ditugu, memoria historikoa lantzeko helburuarekin", azpimarratu du Jon Kepa Zumaldek, antzerki taldeko kideak.

Edozein adinetako jendea izan daiteke lana dela adierazi du Zumaldek. "Atzean gordetzen diren istorioak gogorak izan arren, barre egite eszenak ere baditu, eta, beraz, gustura ikusten dute hurrek ere", dio.



Andante antzezlanaren antzerki taldearen kideak. | MARKELIÑE

ZORION AGURRAK



OÑATI
Malen Caro Arriaran
Uztailaren 14an, 3 urte.
Zorionak, maittia! Jada 3 urte. Zelan pasatzen diren urtiak. Ondo-ondo pasatu eguna eta muxuak, etxekoan partetik.



OÑATI
Maren Luis Gomez
Uztailaren 13an, 2 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo ospatu eguna, etxeko danon partetik, eta muxu pila bat!



ARRASATE
Uxue Nalda Gonzalez
Uztailaren 12an, 4 urte.
Zorionak, potxola! Muxu handi bat, lhabarren, aitaxoren eta amaxoren partetik. Asko maite zaitugu!



ARETXABALETA
Markel Alarcia Iturri
Uztailaren 11n, 6 urte.
Zorionak eta ondo pasatu zure eguna, tia Kontxiren partetik.



OÑATI
Izar eta Ion Alzelai
Uztailaren 11n Izarrek 3 urte egingo ditu eta uztailaren 14an, Ionak 40 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partetik!



OÑATI
Ane Sagastume Barrena
Uztailaren 10ean, 7 urte.
Zorionak, Ane! Ondo-ondo ibili egun zoriontsu honetan. Jarraitu horrelako neska txintxo izaten. Muxu handi bat, familiakoan partetik. Mua!



ARRASATE
Nora Velasco Gomez
Uztailaren 10ean, 6 urte.
Zorionak, printzesa! Egun zoragarria pasa dezazula. Izugarri maite zaitugu. Mila muxu, etxeko guztien partetik; bereziki, Beñatena.



BERGARA
Beñat Alberdi Lasagabaster
Uztailaren 10ean, 4 urte.
Zorionak, denon partetik! Bereziki, Haitzek, patxo handi bat!



BERGARA
Martin Lazkano Bilbao
Uztailaren 10ean, 2 urte.
2 urte, Martin! Zorionak eta muxu pila bat, etxeko danen partetik.



ANTZUOLA
Irati Coma Tena
Uztailaren 9an, 4 urte.
Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, aitaxoren, amaxoren eta, batez ere, Markelen partetik. Mua!



ARRASATE
Maddi Calvo Ugalde
Uztailaren 9an, 7 urte.
Zorionak, Maddi!



ARETXABALETA
Oier Oroiz Antoñana
Uztailaren 8an, 4 urte.
Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta mila muxu, zure familia osoaren partetik.



ARRASATE
Jone Aranburuzabala Loiti
Uztailaren 8an, 9 urte.
Zorionak Garagartzako sorginari, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Inigo eta Eñaut Labayen
Uztailaren 8an Eñautek 3 urte egingo ditu eta uztailaren 16an, Inigoak 38 urte. Zorionak eta muxu handi bat bioi, etxeko danon partetik. Elkarrekin edarto ospatuko dugu!



ARRASATE
Julen Carrasco
Uztailaren 7an, 5 urte.
Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Asko maite zaitugu. Maria, aitaxo eta amaxo.



ANTZUOLA
Ainara Etxezarreta
Uztailaren 6an, 5 urte.
Zorionak, printzesa, etxeko denon partetik! Batez ere, aita, ama, Aitziber, Elene, Aitor eta Irati.




OÑATI
Elene Guridi Arriaran
Uztailaren 6an, 5 urte.
Zorionak, printzesa! Dagoeneko 5 urtetxo bete dituzu! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo handi-handi bat, etxeko danon eta, bereziki, Anerren partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Aimar eta Amets Barriola Biain
Uztailaren 6an, urtebete. Zorionak, txapeldunak! Urtetxo bat jada! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI
Hego Lopez Ruiz
Uztailaren 5ean, urtebete. Zorionak, txapeldun! Konturatu orduko pasatu da urtia! Egun politta pasatu familiarekin eta lagunekin. Patxo potolo bat!



ARRASATE
Irati Lpz. de Bergara Lpz. de Arkaute
Uztailaren 5ean, urtebete. Zorionak, polit hori! Besarkada handi bat, familiari eta, batez be, Lurren, Laiaren, Lierren eta Markelen partetik!



ARRASATE
Eneritz Zulueta Algorta
Uztailaren 4an, 4 urte.
Beti alai eta dantzan dabilen geure itsas laminarentzako, zorionak eta musu handi bat!



OÑATI
Andoitz eta Eñaut Biain
Uztailaren 4an Andoitzek 29 urte egingo ditu eta uztailaren 9an, Eñautek bi urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko danon partetik. Elkarrekin edarto ospatuko dugu!



OÑATI
Odei Palacin Aldea
Uztailaren 4an, 9 urte.
Zorionak, Odei! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat, danon partetik.




OÑATI
Mikel Guridi Guridi
Uztailaren 4an, 4 urte.
Zorionak, Mikel! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat, etxeko danen partetik.



ARRASATE
Intza Gordobil
Uztailaren 3an, 9 urte.
Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat. Aitarren, amaren eta Alatzaren partetik. Muak!




ARRASATE
Eneko Abarrategi Segura
Uztailaren 3an, 5 urte.
Zorionak, Eneko! Disfruta ezazu zure urtebetetze egunean laguntxoekin eta familiarekin. Asko maite zaitugu eta jarraitu zaren modukoa izaten!



OÑATI
Alaia Zuloaga Aranburu
Uztailaren 3an, urtebete.
Zorionak, bihotza! Urtetxo bat jada. Muxu handi eta potolo bat, zure familiaren partetik. Ondo pasatu zure egunean.



ARRASATE
Antonio Prol
Uztailaren 2an, 40 urte.
Zorionak, aitaxo! Primeran pasatuko dugu prestatu dugun festa sorpresa. Maite zaitugu!



BERGARA
Lily Osa Stombathy
Uztailaren 2an, 2 urte.
Amamaren, aitaitaren, Ibanen eta familia guztiaren partetik, zorionak!



ARETXABALETA
Paule Lagunilla Urzelai
Uztailaren 2an, 2 urte.
Zorionak, printzesa!



OÑATI
Elene Odriozola Arregi
Uztailaren 1ean, 6 urte.
Zorionak, Elene! Patxo handi-handi bat, etxeko danan partetik! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzia!



OÑATI
Helene Olalde Agiriano
Ekainaren 29an, 8 urte.
Zorionak, pitusina! Oso ondo pasaizu zure eguna eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Nahia Ruiz Barquero eta Miren Corbacho Barquero
Zorionak eta urte askotarako, printzesak! Disfrutatu zuen eguna alaittasun txispa horrekin! Muxu asko, etxekoan partetik. Maite zaituztegu, maittiak.



BERGARA
Ekaitz Curado Uzin
Zorionak, txapeldun! Egun ona pasa zure hamargarren urtebetetzean, eta merendola goxua ipini, e! Gora, San Fermin! Zorionak, etxeko guztien partetik, eta, batez be, Izarren, Oierren, Eleneren eta Ametsen partetik, patxo pila bat zuretzat.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OROIGARRIA

**Amaia
Lazpiur Alberdi**

2016ko uztailearen 5ean hil zen, Bergaran, 66 urte zituela.

*Gehiago ikusiko ez zaitugula
onartzea da zaila
baina betirako gure bihotzean
egongo zara, Amaia*

Alkabetako lagunok ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Bergaran, 2016ko uztailearen 8an.

ESKER ONA

**Rosario
Ena Garitaonandia**

(Higinio Ugartebururen alarguna)



2016ko uztailearen 1ean hil zen, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Nola ahaztu gogoratzeko hainbeste eman dizuna?

Bergaran, 2016ko uztailearen 8an.

URTEURRENA

**Maria
Ibabe Amuchastegui**

'Maria Luisa Askatzukua'



2015eko uztailearen 8an hil zen, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailearen 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, etxekeo izenean.
Bergaran, 2016ko uztailearen 8an.

URTEURRENA

**Ester
Zabala Gallastegi**

(Benito Eguren Garitanoren alarguna)



2015eko abuztuaren 7an hil zen, 83 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailearen 10ean, 12:00etan, Bergarako San Kristobalgo ermitan.

Beti izango zaitugu gogoan.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko uztailearen 8an.

URTEURRENA

**Pedro
Inza Duñabeitia**

2015eko abuztuaren 12an hil zen, 84 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailearen 10ean, 12:00etan, Aldaiegia auzoko San Kristobal ermitan. Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete.

*Gure ondotik joan zara,
baina beti izango zaitugu gure bihotzetan.*

Aldez aurretik, mila esker.
Bergaran, 2016ko uztailearen 8an.

URTEURRENA

**Hilario
Toledo Lizarralde**

2015eko uztailearen 3an hil zen, 80 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailearen 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

*Denbora, gogoa eta maitasuna eskaini zenigun beti
guk orain eta beti esker ona eskainiko dizugu zuri.*

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko uztailearen 8an.

1. URTEURRENA

**Esteban Igartua
Gabilondo**

2015eko uztailearen 24an hil zen, 86 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailearen 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko uztailearen 8an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire
lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean
maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55
BERGARA

HILDAKOAK

Oyarbide Acha. Bergaran, ekainaren 22an. 91 urte.**Martzelino Larrañaga Basauri.** Bergaran, ekainaren 25ean. 70 urte.**Ismael Mier Alonso.** Arrasaten, ekainaren 25ean. 90 urte.**Rosario Ena Garitaonandia.** Bergaran, uztailearen 1ean. 82 urte.**Luis Villar Gorostiza.** Arrasaten, uztailearen 2an. 84 urte.**Milagros Heriz Otaduy.** Arrasaten, uztailearen 2an. 97 urte.**Marisol Herrero Bermejo.** Arrasaten, uztailearen 5ean. 82 urte.**Carmen Aranburu Bidaburu.** Arrasaten, uztailearen 6an. 92 urte.**Amaia Lazpiur Alberdi.** Bergaran, uztailearen 5ean. 66 urte.**Esteban Igartua Gabilondo.** Bergaran, uztailearen 24an. 86 urte

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

**Ainhoa eta Ion**

Ainhoa Gruzeta arrasatearra eta Ion Iregi eskoriatzarra uztailearen 9an ezkonduko dira Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Zoriontsu izan zaitzela opa dizuegu etxekeok.

Saioa eta Robert

Saioa eta Robert arrasatearrak zapatuan, uztaileak 9, ezkonduko dira Arrasateko Udaletxean. Bazkaria Dolarea hotelean egingo dute. "Zorionak, bikote, familiaren eta lagunaren partetik!"

**Ana eta Fernando**

"Zorionak, ama eta aita! 47+3=50 urte elkarrekin! Ondo ospatuko dugu domekan. Besarkada handi bat, denon partetik".

**Iñigo eta Amaia**

"Datorren ostiralean, uztaileak 8, Tolosako Iñigoren eta Bergarako Amaiaren ezkontza ospatuko dogu Zarauzko Otzarreta jate-txean. Zoriontsuak izan zuen etapa berri honetan, bikote! Primeran pasatuko dogun dudarik ez daukagu! Besarkada handi bat, kuadrillaren eta familiaren partetik!"

**Maitane eta Imanol**

"Uztailearen 9an Imanol eta Maitane Itziarren ezkonduko dira. Gero, Salegi jatetxean elkarrekin ospatuko dugu. Familiaren eta lagunaren partetik, zorionak eta oso zoriontsuak izan zaitzela! Ondo pasatu eztei-bidaian!"



IMANOL SORIANO



EKAITZ FILARMENDI

OÑATI Ruper Ordorikaren kontzertua

Donostia 2016 Bidea egitasmoaren barruan Legazpi eta Arantzazu lotzeko egingo duten 16. etaparen azken ekitaldia Oñatiko bakarlararen kontzertua izango da. Kantu onenen errepaso egingo du Ordorikak. Etzi, domeka, Gandiaga gunean, 17:00etan.

AZOKAK**BERGARA Domeka azoka**

Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzeko merkatua. Etzi, domeka, San Martin plazan, 11:00etan.

BERGARA Eguazteneko azoka

Bertako produktuak eta baserrikoak erosteko aukera. Umeendako ur jolasak egongo dira eta pintxoak Nahikari tabernak ipiniko ditu. Uztailaren 13an, Oxirondon, 19:00etan.

MAGIA IKUSKIZUNA**ARETXABALETA Thor magoa**

Askotariko trukuak egingo ditu neska-mutikoendako eta gurasoendako *Magia Familiarra* delako ikuskizunean. Gaur, egubakoitza, Santa Kurtz plazan, 19:00etan.

ANTZERKIA**ARRASATE 'Letter'**

Malas Compañías taldearen lanak antzerkia eta zirkua umorearekin eta poesiarekin nahasten ditu. Gutunen bidez kontatzen direnak oholza gainean ipiniko dituzte. Etzi, domeka, Seber Altube plazan, 20:00etan.

DEIA**ANTZUOLA AKEren batzar orokorra**

Antzuolako Kirol Elkarteak urteko batzar nagusia egingo du. Denboraldiaren balorazioa egiteaz gain, zuzendaritza batzorderako hiru kide berri aukeratu ditu. Gaur, egubakoitza, Olaranen, 18:30etan.

IKUSKIZUNAK**OÑATI 'Eskutik sokak'**

LeKord taldearen emanaldia, *Kalean* egitarauaren barruan. Iñaki Letamendia eta Ane Artxe musikariek eta Amaia Ruiz eta Amaia Irabazal aktoreek euskal kantuei ukitu berezia emanango diete: perkusio instrumentuak eta antzerki hizkuntza nahastuko dituzte. Ibilbide poetiko-musikala egingo dute. Uztailaren 13an, Lazarraga lorategian, 19:00etan.

JAIK**OÑATI Trianako jaiak**

Astotrastoren jaitsierarekin hasiko dituzte jaiak: jolasak, musika, bazkaria, mus txapelketa, omenaldiak, buruhandien kalejira... Aste bukaeran, Trianan.

ARAMAIO San Cristobal jaiak

Domekan ospatuko dituzte jaiak: 10:30ean mendi ibilaldia egingo dute Uribarritik San Kristobal ermitara; 12:00etan meza nagusia; 14:00etan bazkari herrikoa; 17:00etan ipuin kontaketa; eta, 18:00etan bolo txapelketa. Aipatutako egunean eta orduetan, Uribarri auzoan.

BERGARA San Kristobal jaiak

Gaurtik, egubakoitza, domekara San Kristobal auzoko jaiak ospatuko dituzte. Domeka da egun handia, eta besteak beste, erretiratutako lunchaz, bertsolari saioz, herri kirol ikuskizunaz eta musikaz gozatzeko aukera izango dute auzotarrek eta bisitariak. Barikutik domekara, San Kristobal auzoan.

KIROLAK**ESKORIATZA 27. EskoXtrem irteera**

Bi ibilbide egongo dira: 47 kilometrokoa bata, eta 36koa bestea. Martxa ez lehiakorra da, baina zailtasun tekniko eta fisiko handia duena. Egunean bertan izena eman daiteke, irteera puntuan, 08:00etan hasita. Federatuek 12 euro eta gainerakoek, 15. Bihar, zapatua, Fernando Eskoriatza plazan, 09:00etan.

ANTZUOLA Antzuola Saria

23 urtez azpikoendako lasterketa, Lehendakari Txapelketarako puntuagarri dena. 130 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Etzi, domeka, Antzuolan, 09:30etan.

BESTELAKOAK**ARETXABALETA Txakolin Eguna**

Gipuzkoako bederatzi txakolin upategi izango dira. Edatekoarekin batera, Debagoieneko gaztagileen gazta jateko aukera egongo da. Bihar, zapatua, Mitarte kalean, 12:00etan.

HITZALDIAK**OÑATI Elikadura osasungarria**

Montse Perez erizainak egingo die berba erretiratuei. Osasuntsuenak diren jakiak izango dituzte hizpide. Uztailaren 12an, Pake Lekun, 17:30etan.

BERGARA Amnistiari buruz

Amnistiaren norabidean preso eta iheslariak etxera delako berbaldia egingo dute Joxe Mari Olarrak eta Antton Lopez *Kubati-k*, Sortuk eta Iratzarrek gonbidatuta. Uztailaren 12an, Irizarren, 19:00etan.

ZINEMA**BERGARA 'Kon-tiki'**

Aire zabalean emango dute pelikula, euskaraz, 7 urtetik gorakoendako. Eguraldi txarra egiten badu, Seminarioko karpan izango da emanaldia.

Uztailaren 12an, San Martin plazan, 22:15ean.

OHARRA**ANTZUOLA Alardearen entseguak**

Uztailaren 13an (19:30) eta 16an (18:00) egingo dituzte entseguak. Aipatutako egunetan eta orduetan, Herriko Plazan.

IKASTAROAK**ARETXABALETA Gazta egiten**

Ugala gaztandegiaren eskutik, gazta egiteko prozesuaren nondik norakoak landuko dituzte. Uztailaren 15ean eta 16an egingo dute. Izena emateko: 943-79 06 03 edo izaditamaia@gmail.com. Izen-ematea aipatutako lekuetan.

ARAMAIO Kontserba ekologikoak

Barazkiekin kontserbak eta frutekin marmeladak nola egin landuko dute. Uztailaren 19an egingo dute ikastaroa. Izena emateko: 688 69 57 63. Izen-ematea aipatutako lekuetan.

ARRASATE 'Nordic walking'-a

Ikastaroaren bigarren saioa egingo dute bi txandatan: 11:00-13:30 eta 17:00-19:30. Hilaren 11n, Musakolan, aipatutako orduetan.

LEHIAKETA**ARETXABALETA Kanpai joleen argazki lehiaketa**

Parte hartuko duen argazkilariak kanpai joleak bilatu eta aurkitu beharko ditu. Lanak irailaren 15a baino lehen entregatu behar dira kanpaijoleak@gmail.com edo kultura@aretxabaleta.eus helbideetan. Lanak entregatzeko epea, irailaren 15a.

Goiena Klubeko uztaileko zozketa

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!

Reincidentes
Liburua + DVD
+ 2 CD
Parte hartzeko sariaren izena: Reincidentes

**Liburu sorta**

3 liburuko pack-a (Denbora bere lekura, San Ferminetan Lesakan, Leize-zuloko misterioa). Parte hartzeko sariaren izena: Liburuak

**Sarrerak**

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**Otarrea**

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

**PARTE HARTZEKO:**

E-postaz: kluba@goiena.eus

WhatsApp: KLUBA [Saria] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburua da indarrean dagoen sustapena gestiozuzte. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntua. Hartu parte eta... on egin!

Dukiena jatetxean
prestatutako
gazta tarta



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo **Puntua.eus** edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-07-08

BUKATZEKO

Altxor historikoak, guztion ondare

- 'Uluburun': itsaspeko munduko aztarnategi garrantzitsuenetakoa birsortu zuten Bergaran
- 7 eta 12 urte arteko umeei erakutsi zieten arkeologiaren garrantzia eta aztarnekiko jokabide egokia

UBANE MADERA | BERGARA

Bazen behin *Uluburun* izeneko itsasontzi bat, 15 metro luze zen, eta 20 tonako karga eramateko gaitasuna zuen. Kristo aurreko 1300. urte inguruan itsasoratu zen Zipre aldean, altxorrez beteta. Bertsio nagusia da sei tonako kargarekin abiatu zela, irlako meategietako kobrezko lingotez osatutako kargarekin. Baina ustea da bidean geldialdiak egin zituela, Egipton, besteak beste, eta bertako altxorrek ere ontziratu zituztela. Usteak uste, Turkia pareko kostan hondoratu zen *Uluburun*.

Urrea, marfila, bitxiak...

Itsasoak urte luzez sakoneko uretan gorde ditu haren sabeleko sekretuak, harik eta arrantzale batek kasualitatez aztarna batzuk aurkitu arte. 1984. urtea zen, eta hurrengo hamar urteetan jardun zuten urpekariek eta arkeologoek munduko itsaspeko arkeologia aztarnategi handienetako altxorrak azaleratzen, aztertzen eta katalogatzen.

Izan ere, 18.000 pieza zeramatzan *Uluburun*-ek. Dirutan balioetsuak asko, urrearekin, marfilarekin, brontzearekin edo anbarrekin egindakoak izatearren:



Agorrosingo barruko igerilekuko aztarnategiko altxorrak ateratzen. | GOIENA



Ikasgaia entzuten. | NEREA GIL



Uluburun-en altxor batzuk. | GOIENA

Nefertiti izena zeraman urrezko eskarabeo bat; urrezko kaliz bat; brontzezko 354 lingote...

Edozein kasutan, historikoki balioetsuak dira azaleratutako aztarna guztiak ere, Brontze Aroaren amaierako objektuak izanda, historiaren pasarte horren gaineko aparteko irakasgaia dutelako euren baitan.

Birsortzea, Bergaran

Irudika ezina da aztarnategi horren aurkikuntzan parte hartu zuten pertsonen sentitu zutena horrenbeste altxor esku artean izanda; aditua izan ezean, horrelako zerbaitekin topo eginez gero zer egin jakitea ere zaila. Eta altxor horietako bat ezkutuan poltsikoratu eta etxera eramateko tentazioa ez izatea ere nekeza.

Bada, hori guztia landu eta ikasi zuten jolasaren bidez 7 eta 12 urte arteko neska-mutiko berengarrek, azterketa hartan erabilutako metodologia zientifikoa ezagutu ere, arkeologo profesionalek gidatuta. Igerilekuaren barrenean birsortu zuten *Uluburun*-en aztarnategia eta adituek esplikatu zieten zela jokatu hala koetan, etorkizuneko arkeologoak "sortzeko", eta ez "espoliadoreak", arkeologo-irakasleen esanetan.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Hitzetatik ekintzetara

Gipuzkoako Biribilguneaz hitz egin dugu sarritan Foru Aldunditik. Hau ez da, ordea, biribilgune fisiko bat, Gipuzkoako gaitasun handiko errepide sarea baizik. AP-8 iparretik, AP-1 mendebaldetik, iparretik hegoaldera N-1 errepidea eta sarea ixteko, mendebaldetik hegoaldera Beasain-Bergara autobidea. Sare honek biribilgune itxura hartzen duenez, horixe da izenaren arrazoia. Helburu nagusia Gipuzkoaren mugikortasunaren eta lurralde orekaren bermea da eta sare hau guztia bukatzean, Gipuzkoako edozein herritatik gehienez 15 kilometrora gaitasun handiko errepide batera izango dugu sarrera gipuzkoar guztiok. Biribilgunea ixteko, ordea, Antzuola eta Bergara arteko autobide berria bukatzea da falta den bakarra. 5 km bihurri! Obra hau bertan behera geratu zen 2015ean, baina egin dugu dagoeneko proiektu berria, iritsi da lehiaketaren unea. Obren hasiera 5-6 hilabete barru izango da. Debagoiena nahiz Goierri bailarentzat ezinbesteko errepide desiratua! Orain urtebete idatzi nuen bezala, Antzuola-Bergara errepidea bukatzea da Foru Aldundiaren lehen tasun nagusia. Horratx, ekintzek erakusten dute hitzak betetzen diren ala ez.

EROSKI
ARRASATE




Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

www.eroski.es

UZTAILAK 9
ELEKTRONIKAN
BEZa *
OPARITZEN DIZUGU

Telebistak, ordenagailuak, telefonoak, garbigailuak, hozkailuak, bideo-jokoak, argazkigintza, labeak...



Zure EROSKIclub Txartelean itzuliko dizugu hurrengo erosketetan.

* Kutxatik pasatzean sartuko dizugu erositako produktuei dagokien BEZa zure EROSKI CLUB TXARTELEAN. Adib. %21BEZa duen 100 €-ko erosketa egitean, deskontu erreala 17,35 € izango dira.
- Sustapenean ez dira sartzen telefono birkargak, e-pay txartelak (aurreordainketa) eta errebelatu digitala.
- Gainerako baldintzak salmenta-puntuaren kontsultatu.